

**TERESIO ELORRIETA**

**MENDATAKO  
PROFETA**

TERESIO ELORRIETA

**MENDATAKO  
P R O F E T A**

LARREA, 1986

Bear diran baimenakaz.

Depósito Legal: BI - 84 - 1986

**IGARRI S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto-Bilbao-14**



**Aita Teresio, bere profesa egunean.**



## ITZ BI

### *Idazlea*

Idazti au mataza egin dauana, ez dozu edozein. Ba dau sasi ixetuaren garra gogo barruan. Ogei bat urtegaz Peru'ra joanda, an bizi izan zan, Jaunaren mastian lanari lotua, bere bizitzaldiko egun eta urte luze ederrenetan. Euskalerrira itzulita, emen be etzan geldirik egon. Izatez langille danak, nunnai aurkitu, izango dau zeri eskua ezarri.

Ikuspegi ori baiña albora itxirik, Aita Elorrieta karmeldarrak ba dau, liburu oni dagokionez, sail bikain txaloga-ria. Liburu bat mamindu dausku, esku artean daukazun idazti au berak osotua dozu milla gauza bitxi jakingarriz jantzia.

Au ez dautzu edonok egiten, jaiot-lurretik ez ur bizi izanak batez be. Berezko sua bear da ortarako, izateak berak itsasten dauskun arnasa ta sua. Ori izan eban Aita karmeldarrak. Amaren altzotik ekian euskeraz, gero Larrea'n eta Markiña'n, irakasle onak eraginda, sakon ikasi ta Pazifik-itxas ertzean be ondo zaindu ta landua.

Emengo gerra aurretxoan, andik bialtzen zituan euskerazko lantxoak, itz-lauz ta poesiz, emen Larrea'n argitaratzen zan «Karmen'go Argia» aldizkarira. Eta, jakiña, gaztetan gozo edoskia ta ondoren maitez landua, dala izkuntza naiz dala lur-txera, ez dira errezko antz-lurpera jausten.

Euskaldun seme-alabak errez aurkitu oi doguz, erbesteetan urte-mordotxo bat eginda, barriro Euskalerriratzean, lau berba euskeraz esan eziñik dabiltzanak. Zergaitik ori? Euren erantzuna: «Aztu egin jat; ez dot euki nogaz itz-egin». Koko-mako ta maratilla merkeak; lur-gaiñeko orbel illak, na-

giaren esan suster bakoan. Oba mingaiña geldi euki, olako-ak bota baiño.

Mendata'n jaio zan Pedro Elorrieta Zenikaonaindia —Aita Teresio karmeldar Ordenan—, Manuel eta Segunda'gandik, 1910'ko urtarrillaren 8'an. Larrako karmeldar Ikastetxean latiña ta onen inguruko gaiak ikasi ondoren, 1925'ko garagarrillaren 9'an artu eban karmeldar jantzia, urrengo urtean garagarrillaren 10'an profesa egiñik. Markiña'n edertiak eta asketika eta Gasteiz'en Filosofia ikasi ostean, Errepublikaz zala-ta, bere ikaskide guztiakaz Ameriketara joan zan, lenengo Txile'ko Txillan'en eta gero Peru'n euren ikasketak osoturik. Emen apaiztu zan Teresio, Lima'n meza barria emonik 1933'ko urtarrillaren 22'an.

Mixiolari sutsu, aspertu barik eta ardura aundiz lanari ekin eutson Peru'ko karmeldar komentuetan. Nagusiak lenengotan San Pedro de Lloc'era bialdu eben, eta an daukagu 1936'an bere ikaskide Balentin Abasolo Igorre-koagaz. Gero Chocope, Trujillo ta Arequipa'n lan egin eban, ia beti lekaretxe oneitako nagusi.

Berrogei bat urte erbestean egiñik, Euskalerrian daukagu barriro be, Altzo'ko nagusi lenengo ta 1975'tik Santander'ko Hoz de Anero'n karmeldar Eremuan kargu bardiñagaz; bere nagusitzako iru urteak amaituta gero be bertan bakartade orreten bizi izan zan zati batean, baiña biotzetik txarto ebillela-ta, Kalahorra'ra aldatu zan. Sei bat urte antxiñako euskal erri-txuntxur aretan igaro ondoren, 1985'ko abenduaren 4'an Jainkoaren eskuetan itxi eban bere arnasa, egunean bertan aren arimearen alde illeta gogotsuak ospatuz.

### *Liburua*

Eta Aita Teresio karmeldarrak liburu bat idatzi eban, liburu interesgarria, «Mendatako Profeta» deritxona. Munduan zear euskaldun asko ibiltzen dira, ipurdikara ta uxu bait gara. Karmeldar onek egiña, orraitino, ez dau edozein euskaldunek burutu.

Liburu au osotzeko, nik uste, mendatar onek beti, edo gure azken-gudatetik beintzat, beti luma bizkorra erabili dau esku artean, naiz-ta emendik urrun bizi, bertan jazoten ziran gauzak jasoteko.

Peru'n asi zan datuak batzen, eta emen amaitu eban bere kontaketa, gaiak beti barriztuz eta ugariagotuz. Urte batzuk dira eurok argitara ekarteko asmoz ebillela. Baita niri laguntasuna eskatu be; baiña ni be naiko lanpetua nebilletako beti atzeratuaz joan giñan idaztia irarkolatzea. Eta oro gertu eukalarik, idazlan, argazki ta diru, ixil-ixillik joan jakun espirituen erreñura. Ez eban izan azkenaldiko pozik, au da: idazleak bere sorpena irar-maldetik urtenda ikustean izan oi dauan jaiobarriaren irripar gozoaren ikutu nabaria txastatu barik joan zan gure artetik.

Umetatik ekian idazleak ba-zala euren senitartean «profeta» bat, bere aitari —Manuel Elorrieta Intxausti— entzunda. Beraz, bizitza guztian arduratu zan Aita Teresio ori zer izan zeitekeanaren kezka. Igarle bat gure errian, eta bere sendikoa, aldikada baten izen zabala lortu ebana. Zelako profeta ete zan? Jainkoak Israel errian noizik bein jaigazten zituanen antzekoa? Sasi-igarleren bat?

Era askotako igarleak ezagutu izan dira edestian zear; gaur be bai, Afrika'n batez be. Ebertarren artean Testamentu zarreko profetak ospe aundikoak ziran. Aundiak eta txikiak; aundiak: Isai, Jeremi, Ezekiel eta Daniel, eta txikiak, amabi oneik: Osea, Amos, Joel, Abdias, Zakari, Sofoni, Joas, Mikea, Nahun, Abakuk, Ageu ta Malaki. Jainkoaren eta erriaren arteko mezulariak genduzan. Ez dakigu zelako eskubideak eukezan, baiña txera ta begirune aundiz artuak eta ikusiak ziran.

Onako zerbait ete zan Mendatako «Profeta» be? Ez dot uste. Baiña bere egunetan, eta geroago be bardin, entzute aundikoa izan zan Eulalio Tntxuasti Gomeztegi, Mendatakoa. Bein Kortezubi'tik etxerantza, gabaz, etorrela-ta, ainbat gauza esan eutsozan bidean illunetan agertu jakon bidazti batek. Eta bideko esanok izan ziran Eulalio mendatarraren ira-



garkiak, berak eta beste batzuk inguruetan zabalduak. 30 iragarki dira berak adieraziak eta 21 Kortezubi'ko Naberan' enak. Denporaz beteko ziranak, eta gitxi-asko gudatean eta guda ostean bete ziranak.

Igarlearen adierazpenak, zintzo egiñak dirala dirudi. Liburu au osotu ebana be, nik ondo ezagutzen nebana, etzan gai guzurrik esateko. Liburu onen orrialdeetan ba-da, beraz, zerbait siñisgarri dozuna. Gaur siñisgogor gara, egia; alan eta guzti be, zerbait siñisgarri ez ete da ezkututzen idazti-onen ostopean? Nik lez, eta beste euskotar askok lez, guda zital aren zigorkadak artu ebazanak bizkar-gaiñ, baietz esango dau, ziur asko.

Dana dala, liburu au egoki ta zentzunez moldaturik daukazu. Ainbat barri ta datuz aberats. Bizkaitar guztiok bizi izanak, ukatu eziñak; an, or-emen, ezarian lez ereiñak, lau ta errikoi adieraziak. Irakurtean, puntu batetik bestera jauzi ta saltu dagigu konturatu barik, une baktotxean izpar barriak aurkituz.

Orrez gaiñ, gure guda-egunetako kronika zeatza be badozu. Etzan egillea kronika idatzi nairik ibilli, baiña kronika be ba-dozu bere liburu «Mendatako Profeta».

Larrea, 1985-XII-31

AITA ONAINDIA

## Sarrera

*Entzute aundiko «Profeta» edo Igarle bat agertu zan Bizkaian, emeretzigarren gizaldian «Mendatako Profeta» esaten eutsiena, ta bere egunetan durundada andia atara ebana.*

*Aldi baten, bere iragarpen arrigarriekaz Gernikalde guztia artega ta ikaraturik euki eban, batez be Gernikan buruz iñoanaz, eta «gerra» edo gudate barri baten jazoko ziranakaz.*

*Zintzo ta sutsu esan eta adierazten ebazan iragarki orreik toki guztietan, beste batzuk be lagun zituela orretan.*

*Berak esanak siñestu be egiten ebazan erriak, ta zabaldu be bai Bizkai guztian. Baiña banaka batzuk txotxotzat be artu eben Igarle ori, ta bera ilda gero, aiztu egin ziran beragaz, J. M. Barandiaran'ek bere «Eusko-Folklorean» agertu eban arte. (Religiosidad del Pueblo Vasco, IV, 1924, 180).*

*Aldi onetan ondiño bizi ziran bere senitarteko edo ondorengo batzuk eta ezagunak, bera ta bere iragarkiak be erriak baiño obeto ta argiago azaldu leikiezanak, baiña orretan be etzan iñor arduratu, ta ezer idatzitakorik agertzen etzanez, Eusko-Folkloreak iñoan baiño geiagokorik, ez egoan zelan jakin.*

*Onetara «profeta» entzutetsu ori Azti (Mago) Sorgin edo olakoren bat balitza lez geratzen zan, eta berak iragarriak eta esanikoak, oker eta aldaturik, errietako esamesa ta izki-mizki antzera, danak nastauta, aitu eziñean geratzen ziran.*

*Baiña istori edo edestian agertzen dan gizon batek, edo zelangoa izanarren be, bera izan zanez agertu bear dau, bere era ta tankeran, ezer kendu ez ezarri bagarik.*

*Orregaitik «Mendatako Profeta» ori, neure senitartekoa dan ezker, Edestirako bere jarleku ta tokian, bera izan zanez jezarrita ipintea, gura dot.*

*Ganera onetariko edonor, Edestian, argi dirdiratzalle izaten da, bere kidekoen irizpide, egite ta goraberak be argitzen deuskue ta zerbait geiago erakutsi be bai. Orrela ikusi geinke, anai arteko gudate zer-batzuk eta beste olako jakin-garriak, berak Igarleak iragarritakoak, zelan gertatu ziran,*

*Norbaitek esan eustan:*

*—Zetan zabiz «projeta» orren kontuak billatzen, lelokeri ta iñozokeriak baiño ez dira ta bera be txotxoloz beterik?*

*Baliteke olan izatea be, baiña edesti-ispilluan ikusi bear dira, berenak ala gureak, direan iñozokeri aundiagoak.*

*Dana dala, onetariko gizon bakanen batek noizean bein agerkeria bat egitea, edestirako, ez da alperrikoa izaten. Eta Euskalerrirako baserri baten alako «karismadum» Igarle bat agertzea: ez da, ba, agerpen makala!*

*Beste euskotar goragarri asko be baliteke betirako ixilpean eta aiztuta geratzea, euretzaz ezer iñok be idatzi edo esan ez dabelako, tentelkeriak ziralakoan, eta baita be, euskeraz idazten ez eutsielako erakusten, erderaz baiño: ta orrela, idazteko zaletasunik be ez yakon geratu euskaldunari,*

*Ospe aundiko Igarle ori betiko illunpean geratu ez daiten, ta bere agerkai edo ziñaldaritzat, zerbait idatzirik gelditu daiten gerorako, neuk berari buruz dakidana idatzitea asmatu dot, bide batez zer-batzuk be aipatu ta adierazten dodazala.*

*Gaurko egunetan ainbat guzurkeri ta asmakeri idazten badira, onuragarriago izango yaku jazorikoak idatzi ta gogoratzea, batez be euskeraz eta geure-geureak badira jazokizunak.*

*Nundik jakin dodazan Igarlearen goraberak be esango da edo berez agertuko dira, beste jakingarriekaz batera bertoko orrialdetan. Esakizun ardurazkoenak barregarritzkoakaz nautauta badoaz be, irakurtze ori atsegingarriago izan daiten bakarrik da.*

*Benetako edesti egiteko asmorik ez darabilgu, baiña gure egunetan gizadiak aldaketa aundia egin dauanez, geure gazta-*

roko joan-etorri ta jakintza guztiak, edestia lez, zar eginda-  
edo, geratzen dira ta berez «edesti» barri bat eginda.

Olako gertaera ta jazokizunetan ikusi ta ikasi bear izaten  
da nor eta zertzuk direan guretzat maltzur eta kaltegarri-  
nak. Beste errien antzera Euskalerrriak be bere eskubide ta  
zuzenbideak daukoz ondorengoan ta norberen alde egiteko,  
galdu edo baztertu bear ez direanak. Geute orobatasun eta  
zeintasuna galdu bearrik ez dago, Jaungoikoak emon eta asa-  
bak ardura aundiz zaindu ebena, geuk be zaindu ta gordetako.

Mendatako Igarlearen egunetatik ona eginbide ori, bea-  
rrezkoagoa da.. Batez be azkenengo gizaldi bi onetan euskal-  
dunari askotan iruzur egin dautse, ta bera be orretarako asko  
eraratu da ta tentelkeriz nastau ta lagundu be bai, zer egiten  
ez dakiala, bere anaiari kalte egiñaz.

Mendatako «Profeta» edo Igarle egunetan jazoriko erri-  
ko aldakuntza onetan, ulertu daitekez obeto onetariko egite,  
gorabera ta jakingarrienak,

Asmo onegaz damotsuguz idatzitako oneik eta berau ira-  
kurtzea atsegin izan dakizula.

## I'ngo Atala

### AURRETIKOAK

#### BILLAKETA

Nor zer dan eta zelakoa dan jakiteko, bere ezaugarriak jakin bear dira lenengo, eta orretarako bear diran billaketak eta azterketak egin.

Mendatako Igarlea nor eta zelakoa dan jakiteko, azterketa bardiñak egin bear ziran berak idatzitakoetan eta bere ezagunak ziranetan. Bere iragarpenen kontari batzuek zer-bait idatzi ebalu diñuenez, garrantzizkoa zan idatzitako orreik billatzea, besteren batenak izanarren be.

Ni baiño aurrerago ibili zan G. Arteagako Manu Iturri Donostin bizi dana, idatzitako orren billa ta ez eban aurkitu ezer be. Ori jakiñagaz, bereala susmatu neban «Igarleak» ez ebalu ezer idatzi ta baliteke jakin be ez egitea idazten, etziralako orretan larregi arduratzen aldi atan.

Itxaropen obeagoagaz asi nintzan neu be billakuntza orretan prailleen artean, baiña usgune bardiña aurkitu neban.

Banekian Mendatako Igarleagaz arduratu zirala praille edo lekaideak, eta amabostero edo illero, batzarrak edo «conferencias morales» eukiten ebezala gogapeko arazoak aztertu eta azaldu egiñaz eta liburu baten ezarriaz. Baita banekian, Igarlearen goraberakaz eztabaida aundietan ibilten zirala. Baña liburu orreik geroagoko urtetan asi ziran idazten, eta Igarlearen egunetakorik, ez da agiri, ez Markiñan ezta Larran be, Foruko Pantzezkatar Liburutegia erre egin zan, eta Bermeo-ra enintzan joan. Barandiaran'en «Eusko Folklore»-an agertzen dana baiño beste idatzitakorik Igarle onetzaz, ez dot ikusi.

Lenagoko euskaldunak gizonaren itzari ta esandakoai emoten eutsen idatzitakoari beste siñeste. Onetarako badaukaguz ziñaldari ta autorleak Igarlea ondo ezagutu ebenak.

Orretariko bat neure aita da, *Manuel Elorrieta Intxausti*, Igarlearen lobatxu nean bizi zana. Onek txikitatik entzuten eutsozan iragarkiak ta beste bere esanak osabeari, ta siñestu be bai zietz, buruz ikasi arte. Gero beti ibiltan zan bere seme-alabai «profetaren» iragarkiak esaten.

Beste olako ziñaldari bat G. Arteagako *Felix Naberan* dogu, Igarlearen kideko ta lankidea izan zana, ta berak lez, artu iragarpenak zabaltzen ebazana. Onen esanak. *Germana Esturo Astorkiaren* alargunak emon daustaz, eta beronek idatzi dabezan eran agertuko dira geroko bere tokian.

Naberanen antzera beste iragarpen-zabaltzalleak be ibili ziran, baiña nortzuk izan ziran ez dakit.

Niretzako beste ziñaldari gogoko bat Jose Iñazio Arregi Muzueta da, karmeldar-Anaia, Igarlea bere etxean ikustatu ebana, ta senitartekoa nintzan ezkeru, beragaz arduratu nin-duana.

Onexek dira ba emen «Mendatako Profetaren» Ziñaldari ta Autorleak.

## NORENTZAKO ESANAK

Zer norentzat dan jakitea beti da zer-ikusi aundikoa. Mendatako Igarlearen esanak be, ondo aditu ta azaldu gura badira, norentzako esanak direan jakin-bear bardiña dago. Ez da bardin, esate baterako, Moroak Españera Sorkaldetik etorriko direala esatea, ta Gernikaldeko bateri, Moroak eguzkia agertzen dan lekutik etorriko direala esatea. Onek Gipuzkoatik aituko dautsu ta beste edonungo españarrak sorkaldeko edozein tokitik.

Auxegaitik eta kontulari bakotxak bere erara esan eta dardara aundiagoa emotearren-edo, gauza barriak ezarririk, ipuin antzera geratu ziran aien iragarkiak, eta bera Igarlea be beste alako Azti edo Sorgin baten antzera.

Euskaldun edo Bizkaitar esan orde, «Abarkadunen seme» esaten eban Igarleak, berari esan eutsanak be alaxe iñoa-

lako, Jakiña da, ba, abarkak zireala eusko ezaugarri-oñeta-koak batez be jaietan edergailluz, txukun eta poliki apain-duaz, erabilten ebezanak. Oskiak erosteko erre2tasunagaz, galdu ziran geroago abarkak.

Zuzen-zuzenean yatorkiezan, ba, «abarkadunen semeai» Igarlearen esanak eta iragarki orreik, baiña nuridikoak zirean iragarkiak gatxa zan jakitea. Bazitekean zerutikoak izatea, baiña Gizadiak berak be badituz eskutuzko almen ta ezaupideak geroagokoak be aurretiaz jakin eta iragarteko, gero esango dogunez.

Dana dala, bein lenengoko iragarkiak zeatz-meatz jazoten zirala ikusirik, zuurrago aztertu bear ziran iragarkiok, berak Igarleak bere lagunekaz, iragartzen asi orduko, egin ebanez.

Onetariko «profeta-moltzo» agertzeak Aberriaren aldakuntza audienetan izaten dirala diñue. Orretara Españiko Felipe 2'ren egunetan, Portugal'en agertu ziran ainbat Iragarle, Aberriaren azkasunezko pozak adierazten. Indietan be bardin agertu ei ziran, gure Mixiolariak diñuenez, iñundiko poz eta zorionak iragarten.

Karla-gudaketa ondorean be agertu zirala «Profetak» Mendatan ta Bergaran, diño Julio Caro Barojak. (Los Vascos, 289). Baiña emengo «Agertze» ori etzan izan Aberri-Azkatasunaren poztasunerako, bere menpetza ta zoritxarrerako baiño.

Begarako Igarleak ez dakit zer esaten eban, baiña emen ikusiko dogu Mendatakoak esaten ebana, eta zelan aurretiaz iragarri eban negargarritzko beste gudaketa bat, bertokoak nastauta bestiekaz, alkar ilten ibiliko zirala, ta gero gerokoak.

Estu-larri aldian itxasontzitik SOS egiten danez, Igarleak dei egin eban; baiña ez eutsen siñestu arduradunak eta Agintariak, txotxolotzat artuaz bera ta bere iragarpenak.

Ondo alkaturik egon balira euskotarrak eta bestiekaz nastau bagarik, indartsuagoak izango ziran, eta baliteke gude edo gerrarik ez agertzea, iragarki ori etzan, ba, ezin bestekoa.

Bear-bearrezkoa da, ba, Erri bat beti be ondo alkartu ta adiskidetasunean bizi izatea.

## LENAGOKOAK

Lengo orrialdean esan dogunez, «profeta-agertzeak». Aberrri-aldaketa aundien egunetan jazoten badira, Mendatako Igarlearen esanak edo Igarletza, zelakoa zan eta noizkoa, jakin bearra dago; baita, bere aurretikoak gerokoakaz zeri-kusia daukien ezagutzea be. Orretarako aurreko ta geroko batzuk aipatuko dira, batez be Igarleak gogoratuak eta jakingarrienak,

Mendatako Igarle ori euskotar uts eta jatorra izan zan ezkeru, bera ta bere aurretikoen izkuntza edo euskerean adierazi nai doguz berak iragarriak.

Errialde batetik bestera ibilteko, zaldi edo astogañean ezpazan, oñez bakarrik joan al izaten zan, alkarren arteko ezer-artuemonik ba sarritan ezin eukita, Orregaitik-edo, oitura, izkuntza ta itz egiteko era batzuk, berarizko ta bestelakoak ziran. Sustrai ta mamiñez bardin edo erdi bardiñezkoa, Bizkaieraz, izanarren, Markiñan, Arratian eta Bermeon, euskera bardiñean etzan itz egiten, baiña alkar aituten eben, eta gero bardin idatzi be bai eskerrak agertu ziran jakitunai. Oneik zuzenbide ona ta errezak emonaz, errialde bakotzeko abots-izki ondakiñak itxi egin dira. Orrela egin eben Bizkai-euskera «Batua», orain daukoguzan artuemon eta errez-tasunakaz Euskadi osoan egin daitekenez.

Euskereari ostikoka ugari egin bayako, geu bagara errudun, eta atzerrikoak baiño geiago sarritan, geure burua ta bear dan alkartasuna zaintzen ez dakigulako.

Beste olako jazoera kaltegarritzkoak be izan dira Euskal-erri gustian, eta oneik be, Igarlearen iragarki ta aldaketa orreitan ezagutu al izango dira obeto, baña ezagutze ori berez agertu bearko da emen diñoguzenetan.



Erriak bere asaba ta Aberriaren goraberak jakin eta azterkatzeko eskubidea dauko, ta sarritan jakin-bearra be badauko, bere zuzenbidea billatu nai badau. Geuri ikastoletan erakutsi ez euskuen zerbait emen esatea, ez da txarto egongo. Atzerritarren eta bertokoen asmo, egite ta jazorikoak, baita maitzurkeri ta barragarrizkoak be, argi egiten dabe edestian, Aberri bateri bere zuzenbidea billatu ta okerkerietatik alde egiten laguntzeko.

Igarle onen goraberak olangoak izatea gura geunke.

## IGARLETZA

Igarletza edo «profeta» izatea Jaungoikoaren izenean itz egin eta bere Mezulari edo Ordezko izatea da.

Bere erriaren okerrekoak zuzentzearren eta «Mesias»-en edo Bidaliaren azalpenak emotearren, ainbat Igarle bialdu ebazan Jaungoikoak Israelera. Onexek dira egiatzko Igarleak.

«Profeta» izate orreri beste esangura batzuk be ezarriten dautsez gaurko egunetan. Azti, Izarlari, Sorgin eta sasi-igarleak be izenpe orretan ezagutzen dira.

Oneikoak ugari izan ziran Txina, India, Persia, eta antxiñako errialdietan, benetakoan antzera, miragarrizkoak egiñaz. Ejiptoko Asti-Magoak be ikusten doguz Moises eta Aaron'en gertagi bardiñak egiten. Zerbait ezin izan ebenean onela diño: Jaungoikoaren atzamarra dago emen, onetara Jainkoa goralduaz. (*Urteera*, 8, 15).

Izarlari ta Azti-jakitun izatea ez da berez txarra, Jesusen Jaiotzean be agertzen dira-ta. Bakan bera be, orretarikoa izanarren, Jaungoikoaren alde agertu zan, Israel madarikatu barik bedefinkatu egiñaz eta iragarki barri bat esanaz. (*Zenbakiak*, 24).

Baiña beste Sorgiñik geienak, euren gaitasun eta eskuartzeak bear ez diran arazoetan erabillirik, kaltegarri ziran eta orregaitik Bibliak eta Eliz-Agintariak zeatz eta gogor ga-

lazoten ebezan. Geroago, Inkisiziño-Bazkuna be agertu zan, Sorgin ziran eta etziranak be larregi astindu ta zigortuten ebazana. Igarle mistiku-asmalariak be etziran gitxi izaten.

Guzti onetaitik, zertarikoa zan Mendatako Igarlea?

Etzan izan ez Azti, Izarleri Sorgin ez Lilluratzallea. Olako gaitasun, almen edo asmorik ez eban iñoiz euki, ta orretan amesetan be ez.

Santu edo Dontsuen goi-argizko eragite, agerpen, ta ikusterik ez eban euki, ta aldi atan ugari ziranen «profeta mistiku» asmakerizkorik, ezebez. Bere tentu ta ezaguera osoan beti bizirik, beste baserritarren antzera, kristiñau zintzo ta Jainkozaletasun betekoa izan zan, bere ekiñaldi guztietan.

Berak, Igarleak, berekotik ezer atara baga, beste norbait tek esan eutsazan iragarpen arrigarri orreik eta berak adierazo ta zabaldu egin ebazan errietan, zerutikoak ziralakoan. Auxegaitik bakarrik etorri yakon «Profeta» ez-izena.

Izen ori ez dago, ba, ain txarto ezarrita, benetako profetaen antzera, bere «Mezularitza» ondo bete ebalako.

«Profeta» izateko aukeratu ebanak, orretarako zintzo ta egokia zalako autatuko eban.

Auxegaitik arduratu zan bera Iragarlea be, artu ebazan «iragarpenak» argi ta garbi danai esateko.

Igarletza-jakintzarik ez bestelakorik euki ezarren, ondo bete eban Eulalio Intxaustik bere mezularitza ta igarletza, bere egunetan ospetsua izanaz eta «Mendatako Profeta» egiñaz.

## 2'garren Atala

### EUSKALDUNENAK

#### NUNGOTARRA

Eulalio Intxausti Gomeztegi, bere egunetan entzute aundiko Igarle edo «profeta» egin zana, Mendatarra zan.

Mendata, Bizkaiko erri txunkun bat da, Oiz alderantz, Gernika gañean dagoana. Bere eleizaldea tontortxu baten agertzen da, ta arantzatzxoago, Albiz'era bidean, eskumalderantza ikusten dira Igarlearen auzotegi «Mendaturo» ta «Etxebarri» bere bizitegia, ikustoki ederrekoa dana. Zugazti aundipe batean estalita egoan auzotegi osoa, neguko ekaitz eta edurtzetatik babestuta, ta udaldian gerizpe eder-ederrean gordeta geratzen zana. Amaikatxu keriza, makats, iko ta in-txaur jaten ibiltzen ziran bertako mutikotxoak!

Oindiño piñu baltzik agertu etzanez, zoragarri ta ikuspegi-zoak ziran Mendata ta beste euskal erri-erriak. Bere muga ta Oiz azpian aurkitzen da Bizkaiko sapailo edo balkoia.

Indietako Mixiolari zan Markiñako Diego Zabalan ta beste Larrako pralle bateri laguntzera joan nintzan, mutikoa nintzala, Albiz'era, D. Fernando Markuerkiagana. Gero emendik Mentatara goazala, bide ukondo baten geratuta diño Diego mixiolariak: «Ene, ze polita!, zer da ori?» —itandu eban—. «Orixe da Mendata, iñundik baiño obeto emendixek ikusten dana» —erantzun eutsoen—. Erri aundi ta basotsua da, auzotegi ta baserri-etxez polito apainduta dagoana.

Mendatak, Gernikako Lege-Batzarretan, 9'garren jar-tokia eukan. Astelen guztietan, sal-erosien apukoz, alboetako erri guztien erdi-unea ta batzartokia Gernika izaten zan, eta orain be bada.

Beti izan da Gernika, bertan batzen diran danentzako, biitoki ta aldarterik atsegingarriena.

Norbere erria baiño geiago maite izaten eben batzuk Gernika. Orregaitik ardura aundiz artu ebezan danak Igarlearen esanak eta iragarkiak, Gernikagaz zer-ikusi aundia eukelako.

Gernikara ta edonora joateko erri-bideak egoten ziran, baita bide-zidorrak ugari be, ariñago egiteko. Oñez ibili bearra egoanez, bide zuzen eta lasterragoak egiten ziran eta ikusbide ederragokoak.

Arribideak ba baziran, gorpu-illak eroateko asmoz egiñak.

Entzutea da Ziurtzaraño eroaten ebezala gorpu-illak.

Bizkaiko Edestiak diño Mendatan, 1834'garren urtean, liberal eta karlatarren artean, gudaketa bat egon zala, baiña ez diño Mendatako ze lekutan izan zanik.

Mendata, Igarlearen erria, entzute onekoa izan da beti,

## EUSKO - SUSTRAIAK

Emengo lurraldeetan ez albokoetan, euskalduna ez dan aurrekorik, ez da iñor agertzen.

Arkeoloji ta antxiñako beste ikaste-lanetan be, Euskalerrri edo Euskadiko biztanle, euskaldunak bakarrik agertzen dira. Beste tokietan be eusko aztarren batzuk badira, baiña onei atzerantz eginda-edo, gizaldiz gizaldi, bertoko lurraldean gelditu ziran, iñok aldatu ezin egin ebezala, euren izate, izkuntza eta odol garbian.

Baserri etxeak ziran eurentzako egokienak, baiña nabaerri ta zelaietan, uri antzera ta alkarren ondoan, egiten ebezan euren etxeak, inguruan arerioakandik zaintzeko jauregien bat ezarriaz.

Entzutea da Euskotarra beti izan dala bere enda-izakeran morrosko eder, aundi, sendo ta bulartsua. Erromatarrak be, asko entzun eta ikusita egonarren, beti arrituten ziran euskaldunen bat aurkituaz, bakan eta bereziak ziralako euren izkuntza ta enda garbian, naita Anibalegaz nastauta joan.

Tito Livio, Plutarko, Pomponio ta idazlari batzuek aipatuten dabez euskaldunak.

Prantzi aldetik gudaketan Erromatarrek ibiltean, etziran sartu Euskadin, gudari gogortsuak ziralata. Baiña Ebro aldetik etorkeran, ez dakit zergaitik, euskaldunakaz adiskide egin ziran.

Berak Igarleak be baekian euskaldunak gizon aundi eta morrosko ederrak zirala, geroagokoak gizon txikérragoak izango zirala iragarri ebanian.

Arabatar euskaldunak txikerragoztat euki nebazan, baiña oraintsuengoz egiñiko lan-azterketan «Los Castros de Lastra»-n gizakondarretan 1, 70'tik 1, 80'rañoko gizabeteak agertu ei-dira. (*Deia* 5, 8, 81, 4 an.).

Entzunda neukan Arratzuko Obitegi zarrean be, arriturik geratu zirala 1, 90 inguruko giza-kondarrak ikustean. Gípuzkotarrak batez be beti agertu dira mutil tantai ederrak. Beste endakoakaz etziralako iñoiz nastau, izango zan ori. Ondiño geure egunetan be, lotsagarria zan maketu bategaz ezkontzea.

Odol azterketak egitean, bakan agertu ziran euskotarrak. Olakorik ezer jakin ezta, arriturik jakin gendun, Liman, Peruko irratiz euskaldunai dei egiten eutsela «R. H. Negativo» edo ezezko odola jaio barri bateri emoteko. Berriozar, Naparroako, neure ikaskide zan Paulino Donazarrek emon eutsan odola.

Euskalduna ez da iñoiz arrotu bere odol, zeintasun, eta berezitasunean, baiña bai indartsu izatean eta alkar arteko burruka ta buru-gogortasunean. Onetara egon ziran alkar arteko banaketak: Naparroan, «Agramonteses-Beamonteses»; Bizkai aldian: «Gamboinos-Oñazinos»; eta Prantzi aldian: «Sabeltxuri ta-Sabelgorriak».

## LOKARRIA

Euskaldun guztiak enda, izkuntza ta odol batekoak, eta alkarren artean anai izanarren, ez eben iñoiz danen artean,

Laterri ta Jaurbide bat bakarria egin, Errialde bakoitza bere ardurapean eta Agintaritzan bizirik.

Orregaitik-edo, Eusko-Aberriak izenik be ez eban euki «Euskalerrri» bakarrik esanaz bere Aberriari. Erri-Agintzaritza zanez bere Jaubetza, izenean be naikoa zan Aberriari «Euskal-Erri» esatea, erri-batzarrak izanik bere Zaindari zolá-bizkorrak.

Sei ziran Eusko-Lurraldeak, euren ikurdi, ikurrin, izen edo deitura berezi eukezanak. Zazpigarrena edo «Benabarra» Napparroa zan, 1512'garren urtean bere Erregeak uxatu ebezanian, Prantzitar erregeagaz zati ori banandurik, sortu zana.

Onetara bananduta bizirik, «euskerea» zan bakarrik, euren Batasunaren ikurriña ta lokarria. Euskera egiten ez ebana erdeldu, maketu edo atzerrikoa zan; euren Aberkide etzana.

Gure gaztaroan «pasiegu» ugari ebiltzazan baserririk baserri «trapu zarren» billa. Oneik eta beste gallegu batzuek be, euskeraz polito ikasten eben.

Lenago baten egoki izan bayaken euskaldunai olan alkar-gandik bananduta bizitzea, geroko urteetan, irizpide ta guda tramankulu barriak agertu ziranean, guztiz kaltegarri izan yaken, euren eskubideak zaintzeko indarrrik be euki-eza. Bere etsaiak ondo ulertu izan dabe euskotarren ezbear ori, Euskadi beti banandurik eta alkar aitu eziñik eukiteko, alegin guztiak egiñaz.

Emeretzigarren mende azkenaldian, agertu zan Buruzagi bat, Sabino Arana Goiri izenekoa, euskaldunak bat eginda ta alkaturik, galdu ebena barriri lortzeko ta bere azkatasuna zaintzeko, indar aundiagoko erabilkundeagaz, euren eskubideak jaritxi egiezan. Baña berandutxu izan zala dirudi Karlatarrenentzat beintzat, orduko Jauntxuenak, Liberaldarrak baño, España zale aundiago eginda egozanda. Ganera, amurru biziagoa sortzen yakien karlatarra euren gaztedia aberztale egiten zala ikusita. Errepublika aroan asko zabaldu zan abertzaletasuna, ta orregaitik arin bizkortu ziran bere arerio

gustiak, eragite ori lenbailen indarrez ito egiteko, gudate zatar bateri su emonaz.

Antxiñako euskaldunak ba Azkatasun eta Erri-jabe zaleak ziran, eta euroen alkartasun lokarria: «Euskerea» euren izkuntza maitagarria, gaurko Jakitunentzat arrigarritzkoa dana.

Ikasi dagigun, ba, geure-geurea ondo maite izaten.

## ANDRAZKOAK

Gizonezkoak ezeze andrazkoak be gaitasun eta edertasunetan etziran makalagoak. Prakadunak besteko eskuarte ta taiua erabilten eben.

Neskatilla eder batzuk soloan Jaietan, artajorran eta akulu ta bei buztartuekaz gizonezkoen lanetan ikusteagaz, bertoko etziran gure ikaskideak ikaratu ta arriturik, begira-begira geldituten ziran. Gu barriz orretan ez giñan bape arritzen, eta Arrigorriagako gudatean «sabeletik-sabeletik» lenen esan ebana, andrazko bat izan zala iñauskuenean, bereala siñestu egiten gendun, sarde ta akulua erabillanak ezpata be bardin artu leikela-ta.

Baiña etzan gizon-tramankuluak erabiltea bakarrik, zelan eta ze ederto erabilten eben ikustea baiño.

Onetariko bat izan zan «Monja Alférez» Erauzotar Katalin Donostiarra be, Ameriketan prakadun ibili zana. Bere buruari, Antonio izena ezarrita, Txile aldera joan zan bertarako gudari egiñik Arauco gudaketan gallenduaz eta «Alférez» mallakoa egiñaz. Geroago, Potosí, Cuzko ta Ayacucho urietan ibili zan, bere neska izakera ezkutatzearren-edo, beti iskanbilla ta gizonkerietan.

Orretaiko gaiztakerien baten, eusko gudari batek eroian atxiloturik Epailleagana, nor zan jakin bagarik; baiña euskezar egiten ebala ikusirik, bereala aindu ta azke itxi eban.

Ayacucho (Perun) gau baten, xotxetan jokoan ebillala, galdu egin eban, ta irabazlea bere diruak batzen egoala, bere

ezpata zorrotzagaz jota, josirik itxi ebazan esku-maiak. Argi-ontzi ta bazterrak be apurturik, eta norbait ilda-edo itxita, alde egin eban; baiña arrapauta urkatze zigorra emon eutsoen.

Norbait urkatzean, eleizako atea zabalik geratzen ziran. Autortu ta gero Gure Jauna artzean, eskuan artuta ariñeketan joan zan Santa Clara Eleizara, bertan babestuaz. Orduan «Agustín de Carvajal» Gotzaiñak artu eban bere kontura, ta luzeroan beragaz izketan egonda gero, irribarreka sartu eban lekaima artean. Gotzaiña burutik egoalakoan geratu ziran ori ikusi ebenak, neskatillea zala jakin ez da. Illa bete bi egon zan barruan eta Limara eroan eben. Emen Trinitate Bernardetan iru urte igarota, Españera bialdu eben. (*Tradiciones Peruanas*, 1, 57-Ric. Palma).

Berton be egon eziñaz, barriro joan zan Ameriketara. Oraingoan Mexikora, bere ezagun pantzekotarrakaz eta beti prakadun. Oneik lenengo urtietan Veracruz'en ebillanean, zaintzen eben baiña geroagoko urteetan galdu jaken eta ez eben jakin, nun eta zelan eta noiz il zan.

Beste olako bat, odolez euskotarra zana, Franzizka Zubiaga zan, Cuzco'ko Huarkakay erritxu baten jaiokoa ta «Mariskal Gamarra'ren» emaztea. Alargun geratzean, Koronel jantzirik, bere senarraren Ordezko egin zan eta prakadun Agintari, matxinadak zapaldu, arerioak azpiratu, atzerapideak artu ta beste olakoak egin eta aginduaz. Gero berak be alde egin bear izan eban Txilera ta Valparaiso'n il zan.

Onetariko egiteak, ain goragarri izan ezarren, odolbizitasunaren ezaugarriak dira, beste tokietan baiño eusko andrazkoetan agiriago agertzen direanak.

Gizonezko ta andrazko euskaldunak, danak izan dira euren zeintasun, indar, almen eta edertasuna, beti agirian erabili dabezanak.



## ERBESTERA

Egia bada, diñuenez, Anibal'egaz ainbat euskaldun joan zirala Italiara ta bertan geratu zirala, antxiñakoa da erbestera joateko eusko-zaletasuna.

Eusko Mixiolari, itxasgizon eta urriñetara doazanak, arraiñetara doazanak arriturik geratzen izan dira edonungo bazterretan eusko izenak aurkitzen zirala egiztatuaz. Elorrioko dominikutar Mixiolari batek be esan eustan, Peruko bere mixiolaritzan, indiotar basatai be entzuten eutsezala eusko itz garbi batzuk esangura bardiñekaz. Edo euskaldunen bat igaro zan ortik, edo euskerea antxiñako izkuntza artean lenengotarra da, orretara ainbat zeñezko ta ezaungarri edonun izteko.

Euskaldun batek erbesterantz egiten baeban, etzan bakarrik bere zaletasunagaitik, zeozer egiteko asmoagaitik baño.

Amargarren mende ingurutik amazortzira-edo, aurrerapen aundiak eginda bizi ziran euskotarrak euren burdingintza, arrigin, arotz, ertilari, arrantzale ta itxasontzietan lenengo maillakoak eta berebizikoak izanik. Baserrietan be ekiñaldi guztietan era bardiñean agertzen ziran.

Ikastetxe Nagusietan egiñiko injenieru ta jakitunak etziran izaten, baño bai, bertan lanean zeñek obeto eginda, batatak besteari ikasitakoak. Lekaretxe ta prailletan be bardin izaten zan, batatak besteari erakutsi ta ekifiaren ekiñez buruz baño obeto ikasiaz. Orain euroen ertilanak erakustokietan ikusten dira.

Mendata, Igarlearen erria be, etzan orretan atzean geratu. Bertoko olako Maixu bat, Juan de Olabe, joan zan Kalagorrira 1470 urtean Eleiz-Nagusi edo Katedralean lan egitera. Geroago, 1518-59 urteetan «El honrado Mtre. Pedro de Olabe, Mendatarra» zan Eleiz-Nagusi orren Antolatatzalle ta Maixu jatorra.

Beronen lana ordaindu baño len, ondo ala txarto ba ete egoan jakiteko, Eleiz-agintariak Aztertzalle bat ekarri

eben, eta beroen eritxiz, lan-saria geitu egin bear izan eutsen.

Bere loba Juan de Olabe ta Pedro Lamikiz izan ebazan laguntzalle. Eta bera Pedro ilda gero, Martin de Olabek lana bardiñean jarraitu eban, Pedro de Albiz eta beste Pedro bat, bere anai Patxigaz, lagun egin eutsela.

Guzti oneik Mendatarrak ziran, baiña gero Markiñarrak eta beste erretako batzuk jarraitu eben lan orretan, burdin eta beste olakoak Euskaditik eroanaz. (*Notas histórico-arqueológicas*, 87, 90, 95, etc. Manuel de Lecuona, Pbro.).

Onetariko lanak egitera gazte asko joaten zirala esaten dau Kirikiñok be, ta Paris'ko Eiffel-dorre gorengoko atala edo zatia, Julián Abando, Arrietako bizkaitar gazte batek ipiñi ebal. (Abarrak, 162-176).

Itxasoko arazo ta lanetan be oso jakitun izan ziran euskotarrak, gudaketan be, ibili bear izanaz.. Bale-arraintzan eta makallau billaketan mundu guztian ziran bikain eta lengotarrak, Ugarte, itxaso ta lur barriak billaturik, Terranoban euki ebezan euren itxas-lanik arduratsuenak. (*De-ia*, 24, 4, 80, C. Clavería).

Geznari,. Orkezkari ta salerosketak be baeukezan Brujas, Ostende, Borgoña ta beste uri ta Laterrietan.

Cristobal Colon agertu zanian, zer-ikusi ta artu-emon aundia euki eben euskotarrak beragaz, laguntasun osoa emonaz berari. Granadan Errege Katolikuekaz euki eban itunben edo antolatzean, Bizkaitar bat, Gerrickaizko Adan de Markina, izan zan bertako aitorgille edo ziñaldari. Idazkariak be aldi onetan, guztiz zintzo ziralako-edo, Españan euskaldunak ziran.

Colon'egaz joan ziran euskaldunak, asko izan baziran, geroago bertan geratu ziranak, eusko abizenak diñauskueñez, geiago ta neurri bago ugariagoak izan ziran.

Entzutea da Perun, Andaluzitarrak be ugari joan zirala ta euskotarrakaz euren burruketak euki ebezala, ta onetaiko euskotar batzuk Sokabaia-Arekipara bizitzen etorri zirala.

Euskaldanentzat Ameriketako ateak beti egon dira zabalik eta beti izan dabe an abegi ona. Sendiz ugaritsuak ziranez, euskaldunak toki guztietan zabaldu dira, Iparragirrek iñonez: «Emanda zabal zazu, munduan frutua». Baiña orain agortu da iturri ori, eta sendietan ondorengorik euki ez nai dabela, «Maketuai» leku-egiten dabizela dirudi.

## NAPARROA

Mendatako Igarlearen egunetan Euskalerrian ikusten zan «aldakuntza» bere nortasun eta azkatasuna, oso-osorik galtzea zan. Aldaketa ori Naparroa menperatu eben urtietatik asi zan, apurka-apurka euskerea bazterturik eta bere nortasuna galdurik.

Fernando «Errege Katolikoa» ta bere Ordezko «Kardenal Cisneros» bata bestea baiño maltzur eta azeriak ziranez, gorputza il baiño eusko-gogoa ilteko asmo aundiagoagaz sartu ziran Naparroan, eta indarrez ezin ebena, azpikeriz lortuko eben.

Eusko Laterrik lenengo, gorengo ta aundiena «Naparroa» zan bere Erregeak lenengo maillara jaso ta goratu ebena, ta «Baskon edo basoko»-tik izena artu eban eta latin edo erderaturik «Vasconia»-zana. Baiña gero «Nabarra» ize-nagaz geratu zan, izkuntzalarik diñuenez, «Naba-erri» edo leuneko erri esan nai dabena. Bizkaia be aldi baten, edestiak diñuanez, 1111'tik-1179'arte, Naparroko Erregearen menpekoa izan zan, zati bat beintzat.

Erregeak, Bakaldun edo Jabetasun osokoak izaten ziran, Errialdeak etxejauntzak balira lez, euren seme artean bananduten ebezanak. Orregaitik gaurko eritxi ta irizpidez orduko Aberri ta Laterriak ezin leitekez ondo aztertu ta ezagutu. Toki baten «Errege» bazan, beste leku baten «Jaun, Konde, Duke, Emperador» be bazan eta toki bakotxean bere Jabetasun eta Jaurilaritza bere-bizikoa eroaten eban.

Berez eta izatez Naparroa oso-osorik Euskotarra zan eta beste bere eusko-anai artean, lenengoa ta aundiena izanik, oiñordekotasuna be berea zan. Orregaitik esaten eutsen Euskereari «Lingua Navarrorum» eta edozein euskalduni, «napartarra». Najera ta beste alderdi orreitan euskeraz egiten zan. Onelako Erri-Alkate batek bariro bialdu eban Erregeagana bere Ordezko bat, erri-orretan euskeraz baiño besterik etzala egiten-da, euskeraz ekian, baten bat bialtzeko esanaz.

Baiña zoritxarrez, 1512 urtean, galdu ebazan Naparroak bere Errege maitekorrak, eta zoritxarragoa dana, konturatu be etziran egin zer galtzen eben Erregeak uxatuaz. Kastillako Erregea, era on bat euki ebenian, napartar Erregeen aurka asi zan gudaketan, beste napartar eta euskaldun batzuk be lagun ebazala, ta Prantziko Erregeaz be alkar aituz, eta Naparroako Erregea eskomunikatuta egoala esanaz, diñuenez.

Onetara azpiratu eban Naparroa ta zatitu be bai, txatal bat Prantziri emon edo itxiaz, Benabarra dana, ta Najera ta beste lurralde batzuk ostuz.

Jakiñik aldi atan erri baten sendotasun, kultura edo-jakintza ta jarduera guztia, antxiñako lekaretxe ta jauregietan gordetan zala, Kardenl Cisneros'ek, erre ta apurtzeko agindua emon eban. 110 jauregietatik banaka batzuk geratu ziran erdi zutunik.

Naparroa, sortu zanetik euskotar utsa zanez, baliteke bere jauregiko idaztegieta euskerazko zerbaitzuek gordeta aurkitzea, baiña «S. Millán de Yuso». Errijoan izan ezik, beste tokietan etzan ezer geratu, ez euskerazkorik ez antxiñakorik.

Erregea bakarrik aldatu zalakoan, eta Napartar erria be pozik geratzeko, euren «Fuero» ta askatasunean itxi ebazan Kastillako Erregeak, Bizkaia zan antzera.

Baiña laster agertu ziran napartarrak Esau antzera, euren lensemezkoa ta etxaguntza galduta, euskal-irudi ta tankera guztia Bizkairantz eginda. Lenago baten «Lingua Navarrorum» zan euskerea, orain «Vizcaíno» egiñik geratzen zan eta

napartar euskaldunak be «Vizcaínos». Euskera ordez «vizcaíno» esate ori arin eta lasterren baten zabaldu eben. Berak, Jabier Deunak, be badiño bere amak «vizcaíno» itz egiten ebala, ta berak be bai.

«Quijoten», (*Sultan* liburuan, 386) agertzen da esaten:

—«Cadí: Paréceme lengua extraña, ¿dónde se usa?

—Madrigal: En Vizcaya.

—Cadí: Y es Vizcaya...?

—Madrigal: Allá en la raya de Navarra, junto a España».

Bizkaia, España ondoan dagoala, ta Naparroko mugan, diño ba Migel Cervantes agurgarriak. Baiña Naparroa euskalduna zanik, ez bertan askok euskeraz egiten ebenik, ez dau esaten.

Españiar Jaurbídekoak Naparroa bere euskal anaietatik bananduta ta zatiturik euki gura izan dabe beti, geroagoko urtietan be, bere anaiakaz alkaturik, indar larregia artu ez dagian.

Nok eta zelan egin eben guzti ori, arrigarrizkoa da; baiña alegin orretan ibili dira beti. Asmo ori obeto ezagutzeko, «Príncipe de Viana»-ren ikurdian ikusi geinke, zelan azeritxakur bik, (España ta Prantzik), daroen agoan azur uts kirten bat (Naparroa), bere mamin guztia janda gero, pozik daroela. Onetara maltzurkeriz azpiratu dabe ba Naparroa, ta orain, erderaz «Morón» ollaskoa diñogun antzera, luma guztiak galduta gero, or dabil bere «Fueroai» karakaraka egiten beti.

Naparroako bere Erregeak jarraitu balebe agintari, oilasko orrek beste kukurruku bat egingo eban bere luma ta jantzi ederrakaz eta bere azkatasuna ta nortasuna galdu barik.

Karlatarrak indarrez lortu nai izan eben askatasuna, baiña gero eurak be, erria atzipetuaz, «fuero» oskolai karakaka egin izan dautse.

Zetarako dira ba «Eskubideak» euroen jabetza ta nortasuna bein galdu ezker...?

Napartar zintzoenaí ez jake ori aiztuten.

## BIZKAIA

Naparroa, Benabarra galduta, txikiagoturik geratu zan beste Errege-Ordezko baten menpean, baña erria ondiño bere lengo Eskubide, Dirugintza ta Batzarrakaz; Bizkaiaren antzera, bere «Erri Agintaritzan», gelditu zan.

Onetara beste Europako Laterri edo Errialde batzuek bereganatuaz, eta Ameriketa billatzeagaz, goiko maillaraño igon eben Españiko Erregeak, eta euren Jabetza edo Jabe-bideak onelaxe agertzen ziran aginte ta aginpide guztietan:

«Provisión del Rey Felipe III, para la fundación de los Padres Carmelitas Descalzos en Calahorra». (1603, marzo 1.).

«Don Felipe, por la gracia de Dios, Rey de Castilla, de León, de Aragón, de las Sicilias, de Jerusalem, de Portugal, de Navarra, de Granada, de Toledo, de Valencia, de Galicia, de Mallorca, de Sevilla, de Cerdeña, de Córdoba, de Córcega, de Murcia, de Jaén, de los Algarves, de Algeciras, de Gibraltar, de las Islas, de Canana, de las Indias Orientales y Occidentales, Archiduque de Austria, Duque de Borgoña, de Bravante y Milán, Conde de Absburs, de Flandes, de Tirol y Barcelona, Señor de Vizcaya y de Molina, etc.». {*Monografía Documental*, 177, Higinio Gandarias).

Laterri ta Errialde guzti oneik Bakaldun bakar baten menpeko izanarren, etziran danak Jabe-bide edo Jabetza batekoak izaten, ezta Jaurbide edo Gobernu bat bardiñezkoak. Beste tokietan «Errege, Conde, Duque edo olakoa bazan, Bizkaian «Jauna» bakarrik zan, eta bere Lege-Zarren okerrikoen bat agintzen ebanetan, Gernikako Batzarrak, «Sea obedecido, pero no cumplido» erantzuten eban. Men egin bai Aginduari, baiña egin ez. Edo «Kirikiñok» iñoan lez, «Aginduari burua makurtu ta bete ez». (*Abarrak*, 188).

Onela Bizkaitarrak Azkatasun osoa eukirik, lagundu be geiago laguntzen eutsen euren «Jaunari» bakotxa, bere gurariz, Gudari izateko edo edozetarako aurkeztuaz. Aldi orretan, Españiko Erregearen alde ainbat euskaldun agertzen dira gudaketan, itxas lanetan eta abar zintzo egiten, Euskdiko Agintariak eurai ezer agindu baga, ta «Mugak» Ebron eukezala ta Batzarrak Gernika ta Iruñan. Españiko «Siglo de Oro», urrezko gizaldia bazan ori, ta Españiko «Aberri-batasuna» Errege Katolikoak egin, nundik ateraten dabe, oraingo Espain-Aberri Batasun zaleak, kaltegarritzkoak direala Batasun orretarako Eusko Azkatasun eta eskubideak? Ala, «Separatistak» ete ziran ba Errege Katolikoak be, Eusko-Azkatasun eta «mugak» orretara zaindu ta ontzat artzen ebezalako?...

Bizkai Erri-Agintaritzan, erriarenak ziran berezko ondasun guztiak, eta lurak be landuten ebazanenak bakarrik. Ardura aundiagaz zaintzen ebazan Bizkaiak bere aberaski ta ondasunak, danentzako naiko ta aski izan eitekezan. Burdiñarri meaztegiak ezin obeagoak ziran Enkarterri aldean. «1800'garren urtean, 141 ola ta 140 suaroztegi zeuden Bizkaian. Burdiñarria apurka ataratzea agintzen zuen euskaldun legeak, ez pillo aundietan, danentzako aski geratu zedin. Meatzak eziran iñola ere jabe bakarrekoak erriarenak baizik». (J. M. Mendizabal, *Deia*, 9, 11, 80).

Baserri-etxeak be etziran saldu ez erosten, seme nagusiena «etxejaun» egiñik. Norbaitek, lege bidez, alde egiten baeban, beste sendi edo etxaguntza bat jabetuten zan ango baserriagaz. Eta beste norbaitek etxaguntza barri bat irasten baeban, lenengoko abizenari, jatorrizko izen edo abizena ezarten eutsen, batzuetan biko ta irukoak egiñaz. Orrela agertzen dira Urionabarrenak, Urinobarrenetxeak, Garayurrebasoak, Agirregomezkortak, Gabikagogeaskoetxeak, Garrogerrikaetxebarriak, Berrogerrikaetxebarriak, Ganekokortabarriak, Mendaturionaindiak, eta olako beste asko. Nire aitita ta bere anaiak be, etxebarriak egin eta ezkondu ziranian, euren auzotegiko izena ezarri eutsoen abizenari, «Zeinka-Onaindia» ipiñiaz.

Erri-Agintaritzaz zanez Euskalerrikoa, Errialde bakotzak eukan bere lurralde jabetasuna be eta euren Batzarretan erabagi ta eskatzen eben nungotarra izan. Orrela Bizkairatu eizan Durango ta Bizkaitik Arabaratu Ayala irura ta beste erriak eta Santander alderantz be bardin. Orregaitik Bizkai mugak, oker eginda dagozala dirudi, ta norbere etxe barruan kanpotarrak, Araban be Trebiño dagoan lez. Erriaren erabagiz izan bazan ori egitea, orain be, Erriaren erabagiz eta gurariz, itxi bear leuskioe etxera etorten.

Bizkaiko Lege-Batzarrak Gernikakoak ziran eta araxe joan bear izaten eben bere «Jaunak» zin-egitera, baiña Gaztelako Azken-Errege Jaunak ez ei ziran etorten eta otzitu egin ziran alkarren artean ondo konpontzeak, batez be azkenaldian, eta «Jauntzat» Napoleon bera autatu eben, baiña uts egin ebanez, ixillean geratu zan autakuntza ori. Gizonik urtenena ta edozer lortu ta, txalo guztiak bereganaturik Buruzagi lez Lege-batzarretan agertzen zana, Dimako Bernardo Zamakola izan zan. Baiña olako baten, Erregea koipetutiarren-edo, labankeriz bidezkoa etzan Lege barri bat Bizkairako, ezarri nai izan eban: «Gudaritza». Txalo artean, zurikeriz eta zuri-murian baieztutea lortu eban. Laster sortu zan matxinada gogor bat, batez be Begoña aldean «Zamakolada» diñotsoena, eta lenengoko txaloak arrikadak biurtuta, arin alde egin bear izan eban.

Beste anai bat euki eban Zamakolak idazlari ta erri-jakintzan arduratzen zana, bertsolarien barrí lenengoz emon ebana. (ZER, aldizkingi, L. Akesolo).

Beste irugarren anai bat be euki eban «Juan Domingo de Zamakola Jauregi» zana, Abade jakitun eta agurgarria, Arequipa (Perun) 45 urte ta «Kaima» erriko parroku edo txauburu izan zana. Erri orretako Ama Birjiña da Arequipa uriko Zaindaria, 1784'ko lurikareak egiñiko kalte ta ondamentiak Eleizan antolaturik, gomutakitatz zeru goi-goian Bizkai ikurdi eder bat ezarri eban. Arequipa'ko Gotzaiñen bizitza, ur-bide, ur-ekarte, garastaketa, ta beste alako ur-lurren egitamu ta idatzitakoak itxi ebazan gordeta. Geroko



urteetan bere egitamuekaz egin eben Kaima lurraldietako garaskateka, «Zamakola» izena ezarriaz. Len eremu zan tokian, orain lur-umau orretan, erri polit bat agertzen da Zamakola izenekoa.

Kaimako aldare-nagusi ondoan dago lurperatuta bere gorpua idazkun onegaz: «R. I. P. A la memoria del sabio Historiador, Benemérito Cura de esta Doctrina Bachiller D. Juan Domingo de Zamacola y J. f 25 de mayo de 1823. Sirvió 45 años de Párroco». (*Documental del Perú*, Arequipa, 180).

Gizon agurgarriak bialdu ebazan Bizkaiak Erbesterantza, ta etxerako be gizon jakitun eta egokiak geratzen ziran bere Jabetzarako. Erriak gogo ta zintzotasunez jarraitu eban bere Azkatasun eta Erri-Agintzaritzan, baiña Aundiki ta Aberatsenak, beste atzerriko irizpide ta ekanduekaz nastaurik-edo, betidaniko Batasun eta Abertzaletasunagaz otzitu egin ziran, eta azkenaldian ezer egiteko adore bagarik, guztiz kikilduta agertzen.

Igarle ta bere lagunak be, Bizkaiko gatxen erru guzti ori, «Aberatsai» ezarten eutsen.

Orretara agertu zan 19'garren mendea, ta gero Karlatar gudateak.

### 3'garren Atala

## ALDAKUNTZAKOAK

### BARRITZALLEAK

Prantzin. agertu ziran, XVIII'garren mendean, adimen-zalekeriz eta idaz-lanen bitartez, eragite barriak sortu-erazo ebezanak baztar guztietan, eta Prantziko matxinada ikaragarria be ortik agertu zan. Politika arazoetan «liberaldarrak» ziran eta erriaginte edo demokrazi izenean euren geiegikeriak egiten ebezan.

Ziñeskintzan Eleizearen aurka, ta alosodun Erregeen aurka agertzen ziran. Euskalerrian barriz bere Erri-agintaritzta eta Azkatasunaren aurka, 1789 urtean Prantzi aldeko euskaldunai euren eskubide ta Jabetza kendurik eta España alderdikoai, urrengo mende asieran, erlejiñoz be jazarpen barbiña erabilirik.

Españiko Errege, Fernando VII'garrena eurekaz adiskidetu egin zan eta zeatz-gogorturik, orragiño iñok egin ez ebana ausartu zan Euskalerriaz egiten: 1820 epaillaren 6'an Nafarroako Errege Ordezkarria aldatu eban, Espoz Mina Gudalburua aren orde ezarririk. Ebrotik Pirineos'era aldatu ebazan Zergategiak, Euskadiko Lege-Batzarrak, antxiñatik egiten zireanak, suntzitu ta ezereztu ebazan. Aurrerantzean Nafarroan «diru barria» egitea be galazo eban. Eta Eusko Lau Alderdiok, Españiko «Erki», Probintzi maillara jetxi ebazan. (*El Carlismo de los Vascos*, 48, Justo Garate A.).

Onetariko egiteok lasai egiten ikusita, iñok zirkiñik egin ezipaleu, euskaldunak urte unada gitxian galdu ebela euren adore ta bizitasun guztia, esan bearko. Baiña bitakoa zanez euskaldunentzat Liberalarren jazarpena, eleiztarrak, Abadeak aurreratu ziran matxinada antzeko bat egiten. Entzutedunak onexek agertzen dira: Bizkaian, Domingo de Quezala, Fr. Jose Ramon de Agirre, Antonio Marañoñ, «El Trapense».

Gipuzkoan: Gorostidi ta Ezeiza.

Naparroan: Joakin Lakarra, Jose Joakin Melida, Franzisko Benito Eraso.

Araban: Antonio Amurrio, Ramon R. de Alegría. Au, Gasteizen zigortu ta il egin eben, eta ilten egoalarik esaten ei eban: «Muero por la Fe». Salbatierra ta Labastidan be egon ziran matxinada ta zalapartadak. Frantziskotar Garizumako sermolariak be ibili ziran matxin- zirikatzaile. (*Intervención del Clero Vasco, en las contiendas civiles, 1820-1823*, Pio Montoya, S. S. 1971).

Eleiz-jazarpen ori asieratik euki eben liberaldarrak, baiña Españiko Gotzaiñak ez eben euren arpegia larregi agertu. Aita Santu Ordezkoaren Idazkian agertzen dira norartekoak izan ziran lekaide-jazarpen batzuek, gero gudaldian gogorra- goak izan ziranak. (*La Exclaustración, 1833-40, M. Revuelta G., BAC*).

Emen ikusten da zelan Quesada Gudalburuak Gasteizen Pantziskotarren Lekaretxa itxi ta giltzapetu eban.

Egunen baten, praille batek «sermoia» euki eban, eta bere itzaldia zerbait txarto esanda egoala-ta, praille guztiak lekaretzetik alde egiteko agindua emon eban. Izlariak laster alde egin eban, baiña beste guztiok, ezetariko errurik baga, iges egin bear izan eben. Oneitatik iru prailleitsuak ziran; beste iru, 80 urtetik gorakoak; eta bederatz, 70-80 bitarte-koak. Nora joango ee ziran oneik ba...? Agintaritzan ez egoan, ba, zuzenbide ez errukirik!

Ganera Erriak asko maite ebazan bere prailleak. Txiro ta eskekoakaz beti ziran emokorrak. Bazkaritzat, egunero emoten eutsen egosari gozoa ta ostatuz artu be bai. Eleiz-erazoetan ezeze, lurgintza, arotz, argin, erti-lan eta beste olako ekiñaldietan, Maixu jatorrak, bikain eta eurreratuena- k ziran. Sestaoko Labe-gori «Altos Hornos» alboko Karmen Eleizatxoaren ate gañean auxe ikusi neban idatzita: «Emen bizi ziran Karmeldarrak, baratza garastatuteko itxasoko ura lenengoz erabili ebenak».

Onexek ziran, ba, Ikastetxe Nagusietan ikasten ibili baga, berezko injenieru ta Ertilari ziranak. Euroen lan eder asko orain «Museo» ta Erakustokietan agertzen dira.

Sukaldari ta beste edozetariko egikizun eta ekiñaldietan be, beti ziran pralleak lenengoak, erritar edozeñeri erakutsiaz, eta ikasten lagunduaz.

## KARLA-GUDAKETA

Fernando VII, 1833'an ilda gero, laster agertu zan anai arteko gudaketa «Karlatarra» deritxona.

Ume neskatilla bat baño besterik ez eban itxi Fernandok eta berau Erregiña izan zedin, lengo Legea aldatu bear izan eban; baiña Karlatarrak ez eben ori ontzat artu ta «Carlos», Fernando beraren anaia, Errege egitearren, jagi ziran gudaketan.

Jaurbidea ta Liberaldarrak neskatillaren alde agertu ziran, bere ama «Cristina» Ordezko zala, ta «Cristinos» esaten eutsien Karlatarrak; baiña onetatik geienak euskaldunak ziranez, «Giristinos» esaten eben, eta laburturik «Giris». Izen orregaz geratu ziran liberaldarrak eta geroago, Txapeloker edo Guardi-zibillak. (*Gran Diccionario, Selecciones, Readers Digest*, «Guiri» t. 6, p. 1753).

Erlejiñoz be banandurik agertzen ziran, Giristarrak Eleizearen aurka ta Karlatarrak alde egiten ebela.

Euskaldunen artean Karlatar Gudalbururik jatorrena, Tomas Zumalakarregi izan zan, garaipenetik garaipenera eten barik joiana, ta Bilbon, nundik eta. zelan zauritu eben iñok ez ekiala, ta gero Zegaman 1835 Bagillaren 24'an il zana. Zauri ori etzan iltekoa ta batzuek uste izan eben zitalkeriz il ebela; baiña, Justo Garate Arriolak diño, «Septicemia» edo odol-ustelduragaz il zala (*El Carlismo de los Vascos*, 133).

Beste Eusko Gudalburu batzuk be agertu ziran, Jose Iñazio Uranga Azkue, Azpeitiarra, ta Joakin Elio-Ezpeleta,

Napartarra, baiña Maroto antzera, euskaldun etziranak be agertu ziran.

Giristar aldetik Espartero zan Gudalbururik goienetakoa. Kapitan maillakoa zala, Perura joan zan eta Ayakutxon, Ameriketako azkenengo eraso-aldian, atxilotu eben. Barriro etorririk, Kalatarrren aurka jokatu -eban, eta Euskotarrak, euroen Azkatasunaren alde gogor eta luzeroan gudaketan ebiltzazala ikusirik, «Ez yatsuez *Fueroak* kenduko, jabongo yatsuez, ez ibili galtzeko bildurretan», eta beste olakoak esaten ibili zan. Baita esan eban: «Iñor ausartzen bada *Fueroai* kalte egiten, neure ezpata da lenen jagiko dana zaintzeko». Olako asko esanda, Marotogaz Bergaran bakea egiteko besarkatu zan.

Era ta eukera ugari euki ebazan Esparterok bere esanak eta eskintza betetako, baiña «guzurti ta ziñausle» izatea, naiago izan eban, eta Cristina Erregiñak Paristik Olozagari, 1841 urrillaren 21'an idazten eutsanez, «Galgarri ta gaitz-eragille ei zan Esparterok ziñez eta zin-itzez Bergaran eskiñi ebana ez betetzea», (*El Carlismo*, 116).

Sei urte iraun eban Karla-gudaketa onek eta bitartean, erbesteko idazlari agurgarri batzuek agertu ziran Euskalerriguztitan: Humboldt, Dembowski, Chacho, Lichnowski, Walton, Viardot, e. a. Oneitatik batzuk esaten eben, zergaitik etzan Pirineos'en be, Suiza antzera, Eusko-Alkartasun izeneko Eusko-Laterri bat egiten.

Onetariko asmo ta zalaparta bat egon zan 1837'ko dagonillaren 26 eta 27'an, Zízur, Iruña alboan, Naparroari bere Askatasuna emon nai eutsela-ta. Baiña bereala ito eben asmo ta zarata ori, matxinadea zapaldu, Gudalburu ta Sargentuak, danak il eginaz. Onetariko ekintzarik geiago agertu ezarren, asmoz eta gogoz, sortu ziran «Laurak bat», «Zazpirak bat» izenez, eta orreitan bai, gizon agurgarri, jakitun eta idazlari, Iturralde, Campion, N. Landa, Oloriz, Ansoleaga, Suit, Aranzadi ta abar, bazkide izan ziran, bigarren karlistada ondorean.

Dana dala, iruzur eta itsumustuan geratu ziran Karlata-  
rrak lenengo gudaketagaz eta bigarrenari itxaroten, ordaiña  
emoteko gurariaz.

## BIGARRENA

Urte nastaldi aundikoak izan ziran Espāniko Jaurbide  
ta Agintarientzat 19 mendekoak, batez be aldi onetakoak.  
Ama -alaba Erregiñak, bakoxtak bere Agintaritzan, alde egin  
bear izan eben Madrilletik. Errege barri bat be ekarri eben  
Italiatik, Amadeo de Saboia zana. Erkalderri, Errepubliketa  
be sortu zan.

Bitarte egoki oneik ez ebezan jakin Karlata-  
rrak zelan ustiatu eurentzako, buru-argidun Buruzagirik euki ezaz eta  
«Fuero» Askatasun-mamiña be galduaz. Erriaren oldar, gar,  
gogo ta indar guzti ta ugaríak, alperrik galtzen ziran.

1847-49'an egon ziran guda erremuskada batzuk. Baiña  
ez dabe ori aintzat artzen, 1872-76'koa bigarrenentzat artuaz.

Dorregarai Gudalburuak euki ebazan zorionezko ekital-  
di batzuk 1873 dagonillaren 24'an eta azaroaren 7'an Mon-  
tejurran. Mendi ori gero toki santutzat artu eben Karlata-  
rrak, urtero bertan Batzar eta ospaketak egiñaz.

Abadeak be nabarmendu ziran gudate onetan, batez be  
Manuel Santakruz, Abadea. Onak ikaragarriko ekiñaldiak  
euki ebazan eta barregarriak, batez be iges egiten ebanian.  
Buru argidun Gudalburu agertzen zan, bere egitekoak ondo  
asmau ta aurrera eroaten ebazala.

Elduaien, Giputz erritxoan 1842'an jaiu zan, eta gero  
zartzaroon, 1922'an Josu-Lagundian sartu zan, Kolonbiara  
joanik Mixiolari, ta 1926'an il zan Pasko deritxon urian.  
Eusko aldizkingi ta izparrak irakurteko zaletasun aundia euki  
ei eban.

Beste gizon agurgarri bat, karlatar gudari izanikoa ta  
olerkari ta ereslari batera izan zana, J. M. Iparragirre da,  
«Gernikako Arbola» abestiaren egillea. T. Aranzadik diño,

1877 urtean, bera Madrillen ikasle zala, eres-antzerki edo «Opera» Gayarreri entzutera joan zala, ta onek amaieran «Gernikako Arbola» lenengoz abestu ebala. Txalokada bi-tartean, ule zurizko gizontxu bat, bere besotik artuta, ekarri eban barrutik, ereserki orren egille zan Iparragirre ta biok geratu ziran besarkaturik, txaloak geiagotuaz. «Antxe iru-ditu yatan Euskalerrria anaitasunez bat eginda» diño Aran-zadik, Baña kaltegarri izan yakozan Euskalerrriari Karlatarren ekiñaldiak. Euskotar etziran beste norbaitzuek, zurrago ibi-lirik, ostu ta ustiatu dautsiez erriaren almen guztiak.

Muxikako Pozuetara joan ziran karlatar gudariai esan eutsen Igarleak: «Karlístadea aztu egingo da ta gero pareu-ko da bear dana» (*Eusko Folklore*, IV, 1924).

Españarrak be XIX'garren mende ori ez dabe ontzat ar-tzen, alkarganako gorroto, guda ta ilketak izan ziralako bere zeregin guztiak. Lafuente, Ortega Gasset, Balmes, Menendez y Pelayo, eta beste batzuk, antzekoak diñoez (*Crispación*, *Deia* 31, 12 81, Pío Montoia).

## 4'garren Atala

### IGARLEARENAK

#### IGARLE-DURUNDADEA

Erriaren aldakuntza aundienetan Igarle edo «Profetak» agertzen direala egia bada, Bizkaian be agertu ziran, Mendatakoa da entzutetsuena. Karlatar guda aintzat artu baga, beste gudaketa zatar bat iragarri eban, negargarriagoa izango zana.

«Igarle-mezularitza» artu ebana bat bakarrik izan zan, baiña onek bere lagun eta adiskidez euki ebazan, bear bada, lenengozko alkar ezagutze ta jarduketak. Danen artean, laster jazoteko zan iragarkiari itxarotea, erabagi eben, urrengokoai siñestea emon edo ez emoteko ezaugarritzat artuaz lenengokoa. Baserritarren jakiturizko erabagi zur bat zan ori, gero-koai bearrezko siñestea emoteko. Iragarpen orreik benetan ziran bakan eta siñestu eziñezkoak, eta eurentzako garrantzidunenak, gudate ondorengo ta aldaketak ziran.

Bein ikusi ebenian iragarki orrein ziurtasuna, Igarlearen lagunak be iragarpen orreik zabaltzen asi ziran errietan.

Euroen durundadarik aundiena 1875-80 izan zala dirudi. 1876 urtean lengoratu zirean, erbestetik etorrita, Larrako Karmeldarrak, eta zortzi urte lenago Markiñara. Jose Iñazio Murueta Anai, ta eskean ebillana, Larratik joan zan Mendatara, Igarleagana, erria larriturik eta ikaratuta egoalata, ixilik egoteko esatera.

Inguru onetan izan zan, ba, igarle-durundada ori, baiña, Iragarletza, lenengo Iragarlari agertzea, urte batzuk aurretikoa da, 1870 ingurukoa. Felix Naberaneri siñestea emon ezkerero, lenengo ezaupidetzat artu eben iragarkia, Prantzi-Prusianuen guda izan zan, 1870 irailaren 1'an Sedan'en amaitu zana.

Igarlearen loba zan Manuel Elorrietak be esaten eban berak ezaguera eukanetik entzuten eutsazala bere osabeari iragarkiak azaltzen, eta bera 1867'an jaio zan.



Iragarle ta bere lagunak euren begiekaz egiztatu eben Bizkaian egin zan aldaketa ikaragarria, ordurarte iñoiz egin etzana. Iñori errua ezarten etziran ibiltan, baiña zerbait aipatu eutsen aberats gizonai, eurak zirala Bizkaiaren kalte-egilleak erria ta Aberria alboan itxita, geiegikeriz diru ta aundikeri billa joan ziralako.

Bizkaia, bere semeak irizpide ta gogo batekoak ziran bitartean, zutunik egoan; baiña ori galdu ta bestiekaz nas-tau zanian, ankazgora joan zan eta iduleztara geratu.

Eta errua nortzuk? Kanpotarrak ala barrukoak?

## IGARLEAREN SENDIA

Mendatako Profeta ori baserritar zintzo ta tolesgabeko gizon zan, guztiekaz adiskide ta lagun-abarreko zana; bere emazte ta seme-alaba bigaz etxean pozik bizi zana, ta iñori kalte egin baga, danai ondo esan eta ondo egiten eutsena.

Eleiztar zintzo ta arduratsua be bazan, egin-bearrak ondo betetzeko asmo ta egikera guztiakaz. «Mariaren Alaba» Anaidia agertu zanian, ez eutsan galazo, batzuk esan ebenez, bere alabeari, anaidikoa iztan, ezpabere, Analdikoa bazan, erromerira ez joateko baiño. Eulalio Intxausti Gomeztegi eban izena, ta iñoiz ez eban susmatu, ez amesetarik egin «profeta» izenagaz geratuko zanik.

Bere Bataio ta Ezkontza Agiriak urrengo orrialdean daukozuz.

Aren" gurasoak Josep eta Joxepa ziran, aitaren aldetik Arratzutarra, ta amaren aldetik Ibarruri" ta Albiztarra.

Lau neba-arreba izan zirn eta danak ezkondu ziran. Zarrena, Jose Julian, 1812'an jaioa ta Gerrikaitzen Maria Franzika Ibaibarriagaz, (15, 2, 1840) ezkondu zana.

Bigarrena, Maria Josefa Leona, 1817'an jaioa ta (1, 4, 1843'an) Bartolome Ozamis'egaz Kortezubiko Salbide baserrira ezkondu zana.

Irugarrena Eulalio Intxausti bera, 1819'an jaio, ta (26, 2, 1848'an) Maria Tomasa Gorriñogaz ezkondu zana, Mendatan.

Ta laugarrena, Feliziana, 1828'an jaio ta Jose Antonio Elordietagaz (11, 11, 1854'an) bertara, Etxebarrira, ezkondu zana. Onetara neba-arreba biok, bizitza biko baserri-etxe batera ezkondu ziran, «Etxebarri» Mendaturiko Auzotegira.

Lauroen Bataio-Agiriak 4 zenbakidun Liburu baten agertzen dira, 174, 207, 227, ta 276, orrialdeetan, Mendatako Eleiz-Agiritegian, orain Derion dagoana (*Archivo, Seminario de Derio-Bizkaia*).

Neba-arreba lauroen ondorengoak zer-ikusi aundia euki eben berak Igarleak iragarritako gudaldian, beste askok be euki ebenez. Orregaitik geroko orrialdeetan esango doguz euren senitarko gorabera guztiak.



**Isidoro Elorrieta'ren leenengo mezatan.**

## BATAIO-AGIRIA

227 - *Eulalio de Inchausti*

«Día diez diciembre de mil ochocientos diez y nueve, yo Dn, Juan Antonio de Arechederreta, Cura y Beneficiado de San Miguel de Mendata, bauticé solemnemente a un niño que (según declaración de su madrina) nació a las dos de esta tarde, y le puse por nombre Eulalio, hijo legítimo de Josep de Inchausti natural de Arrazua y de su esposa María Josefa de Gomeztegui, natural de ésta de Mendata, vecino y parroquianos de esta Dcha. Abuelos paternos José de Inchausti, y su esposa Ana de Uribarri, vecinos y parraquianos de la indicada Arrazua. Maternos José de Gomeztegui, natural de Ibarriuri y Marina de Zarragoikoetxea natural de Albiz, vecinos y parroquianos de esta; fueron sus padrinos Pedro de Aní(f) vecino de esta y Estefana de Musatadi de Arrazua, a quienes advertí el parentesco espiritual y obligaciones que contrajeron y por la verdad firmé. Don Juan Antonio Arechederreta. (Rubricado)».

## EZKONTZA-AGIRIA

*Libro 4, 136*

*Eulalio de Inchausti con  
María Tomasa Gorrino*

«En veinte y seis de febrero de mil ochocientos cuarenta y ocho. Yo Don Juan José de Zarrabeitia Pbro. Beneficiado y Cura de esta Anteiglesia de San Miguel de Mendata, habiendo examinado en doctrina cristiana con consentimiento de sus respectivos padres y precedidas las tres canónicas mociones que prescribe el Sto. Concilio de Trento, al tiempo de las misas conventuales celebradas en esta Dcha. Anteiglesia de Mendata, de las que no ha resultado impedimento

alguno; casé y velé in facie Ecclesiae a Eulalio de Inchausti, natural y parroquiano de ésta, hijo legítimo de Josep de Inchausti, natural de Arrazua y su esposa María Josefa de Gomeztegui, natural de Ibaruri, vecinos y parroquianos de ésta; con María Tomasa de Gorriño, natural y parroquiana de ésta, hija legítima de José Ignacio Gorriño y su esposa María de Barrenechea, naturales de Arrazua, vecinos y parroquianos de ésta; fueron testigos Juan José de Dartiano, natural de ésta, y Domingo de Inchausti, natural de Arrazua, en cuya fe firmo, yo el dcho. Cura. H. D. Juan Jose de Zarrabeitia. (Rubricado)».

## USTEGABEKOA

Beñola Santiagotan, erri-jaietan oitura zanez, gure Eulalio Kortezubira joan zan, ezkondata egoan bere arrebaren Salbide baserrira. Lasai ta polito an igaro eban eguna, ta gabaz etxera etorteko beranduegi egin yakon. Mendata urruntxu egiten zan, eta bertarako bide zidorra, beresi edo zuzgasti usu-illunetatik be igaro bear izanagaz, bildurgarria egiten zan.

—Geratu adi berton biyar arte —esaten eutsan arrebeak eta beste senitartekoak be bai. Baiña berak Jaungoikoaren bildurra baiño besterik ez eukolata, ezetz eta ezetz erantzuten eban, kaskallu egiñaz. Gaberdi inguruan urten eban Salbidetik.

Ugaldeko Santa Ana baseleiz aurretik igaroteko, ez dakit Eulaliok Aitiarenik egin baeban, baiña konturatu zaneko, «Gabon» esan eutsan eleiz ostetik andra batek.

—Gabon, zeuri be, —erantzun eutsan Eulaliok bildurtu baga.

—Nora zoaz? —diñotso andreak.

—Ni Mendatara noa. —dirautso Eulaliok.

—Ba, neuk be, ortixek igaro bear dot. Bidean alkarren lagun izango zara—. Eta lagun jarri yakon andrea Mendaturirarte.

Naberanek diño andrea barik beste norbait izan zala, Alemania, Portugal, Brasil eta orretan agertzen izan diran antzeko bat, norbera ondamen eta arriskuetatik bere dei, esate edo iragarriekaz, zaintzen dabena, ta misteriozko deikun eta bitartekotasun batzukin darabilena.

Pozik artu eban Eulaliok biderako laguntasuna; baiña bereala konturatu zan arek andreak asko ta larregi ekiala. Bidez-bide joan-da-joan, ixildu бага izketan ziarduela; bakan eta ikaragarritzko jazokizunak iragartzen eutsazan geroago jazo zireanak. Arriturik eta siñestu eziñean entzuten eutsozan Eulaliok andreari bere iragarpen eta esate guztiak eta buruan kakotuta lez geratzen yakozan esakun gustiok. Gogoaren gogoz entzuten joiala, azkenerako erdi zorabiotuta, nekatuta geratu zan.

Astirik ezaz edo arduriaren arduraz itandu be ez eutsan egin Eulaliok andreari: «Zu nor zara, nungoa zara, nundik zatoz, nora zoaz, zelan dakizuz jazokizun orreik?», edo beste olako itaunik, «Etxebarri» bertaraño eldu ziranean be itaun egiteko ez yakon ezer bururatu, «auxe da nire etxea» esatea baiño, ta «Agur».

Alkarri «Gabon» esanaz agurtzean, Eulaliok bere etxerantza egin eban eta andreak aurrerantz. Baiña Eulaliok bereala biurtu eban bere begia andreak norantza egiten eban jakin gurarik, eta... ez eban ezer ikusi, ez andrazkorik ez bere oñatzik!

Ez ikuste orrek biotz-ikara aundia emon eutson, bestelako susmo ta asmaketak bere buru ta gogoan sortuaz. Etxeratu-tean be bere gela, lo-tokia, eguna-laxe argi-argi ikusten eban eta egite onek be geiago larritu eban, lorik egin eziñaz.

Nor izan ete da ba andra ori? esaten eban bere artean eta ezin eban bakezko erantzunik aurkitu. An inguruko andra-gizon guztiak ondo ezagutu ta gogoratzen ebazan Eula-

liok, baiña alako buru-argidun andra bakan, jakitun eta bes-telakorik ez eban iñoiz ikusi, ez iruditu. Andra orrek urru-nera joan bear baeban, zetan etorren ba Mendatetik zear, bide zatarragoak aurkituaz eta ganera gaberdian? Sorgiñen bat edo beste mundukoren bat ezin ete zan ba?

Susmokeri oneik geiago artegatu ta larrituten eben, baiña zerutikoa be izan zeikeala jakiñik, zerbait nasaitzen zan.

## MEZULARITZA

Bere buru-auste ta gogoketa arduratsuetan ibili ta gero, ez eban jakin Eulaliok biyaramonian nori esan edo zelan esan bart orretako jazoera. Lotsa be bazan esateko, baiña olako ustegabeko bat eta batez be areik iragarkiak, danentzako baziran, zelan ixillean gorde? Amesetarik ez eban euki, lillurakeririk ez eutsoen egin, bere senean egon zan, edozeñeri adiz-adi entzuteko eran, andreari bide gustian entzuten, baiña nungotarra zanik ezin eban jakin. Zerutarra ezpazan, nor besterik izan zeitekean? Beste urtenbiderik aldi atan etzan aurkitzen: edo zerutikoa edo sorgiñena. Parapsikoloji-jakin-tzarik be ondiño etzan e2agutzen. Orregaitik zan ba «ager-tze» au Eulalio-ntzat larrigarriagoa.

Etxeko ta auzotegikoak entzun bai, baiña ez eutsen ezer erabagitzen. Eleizpean be igandetan, Meza ostean, esaten ibi-liarren, arriturik entzuten eutsoen, baiña besterik ez. Abade ta Txaunburuak, geroago beintzat txotxolotzat artu eben. Bakarrik Kortuzubi aldeko bere lagun eta adiskideak ardu-ratu ziran beragaz eta gero bere iragarkiak zabaltzen lagun-du, «nok esaten eban baiño, zer esaten eban, jakingarriagoa zalata». Orrela agertu yakozan Felix Naberan eta beste bat-zuk, eta eurok emoten eutsoezan ortarako argibide ta eritxi barriak.

Lenengo iragarpenak zelan betetzen ziran itxaron eben, eta gero, iñok ez ekian lez zan itz-eragillea edo gauzak esan eutsazana, ta bera Eulalio bakarrik iragarki orreik ent-zun ebazana, bere-gaiñ geratu zan Mezularitza guztia. Aurre-

rantzian Eulalio «Mendatako Profeta» lez agertuko zan, eta senitartekoak be izen orregaz ezagutuko eben. Bera bakarrik zan ba iragarki orrein jabe ta zabaltzalle, ta «andra» ori bere artean Ama Birjiña izan zala, geroago ta ziurtasun aundia-gogaz uste ebanez, siñeste orrek emon eutsan iragarkiak zabaltzeko indarra ta bizitasuna azkenerarte.

## 5'garren Atala

### IRAGARPEN-ADIERAZLARIAK

#### IRAGARPENAK

Berak, Igarleak, ondo ta garbi adieraziko ebazan arek andreak esaniko iragarki guztiak, baiña bere entzule ta geroko adierazlariak ezin ebezan bardin esan, bakotxak berak gomutatzen eban erara baño. Orregaitik agertzen dira aldakuntzak eta oker ulertu ta esandakoak, batez be erri-esalari ta adierazle diranetan.

Idatzita geratzen ez diran esanak laster nastau ta okertuten dira erri guztietan, ta Igarlearen iragarkiai be bardin jazo yake, zein dan berea edo ez dan jakin eziñaz.

Manuel Elorrietak bere osaba «profetari» baiño beste iñori ez eutsozan entzun iragarpen orreik. Orregaitik daukodaz garbi ta benetakoentzat bere esanak, iñoenakaz nastau ezin ebazalako. Naberan'enak be bardin izango ziran, baiña Igarleari lez berari be bardin jazoko yakon.

Zeintzuk direan Igarlearen iragarpen zigurrenak obeto jakiteko, bakotxari zenbakia ipiñi edo zenbatu egingo doguz Elorrieta ta Naberanen iragarkiak. Oneik beintzat Igarlearenak direala jakingo doguz, eta besteenak, asko edo gitxi, nastauta dagozala.

Mendatako Igarlearen egunetan beste «profeta» ganora bako batzuk be agertu zirala, ez dogu aitzu bear, eta euren iragarpenetan ezagutzen direala. Mendatakoak, «munduaren azkena» ta beste olako iragarpenik ez dau aipatuten, ezta suntsiketa ta agerpen barragarrizkorik be. Olako asmakeririk ez eban erabilli.

Onexek dira ba, «Mendatako Profetaren» iragarpenak Manuel Elorrieta Intxaustik esaten ebazanak:



- 1 Bide zabal barriekaz bide-gurutzez beterik geratuko zala Bizkaia; etxe barriak uste ez diran tokietan egingo zirala.
- 2 Atean-atean egongo zala tabernea.
- 3 Oñestua lez arin egiten ibiliko zireala burdiak.
- 4 Gizonaren berbea edo itza mundu guztian entzungo zala.
- 5 Argiak, ipurtargiak lez, argi egiten egongo zirala, ta ori toki guztietan izango zala.
- 6 Aidezko txorik agertuko zireala, baiña an barrukoak, gizonak izango zirala.
- 7 Aita Santua katigatuko ebela, baiña gero librauko ebela.
- 8 Aita Santua engañauko ebela.
- 9 Gernikan Juntea, Batzarra egongo zala.
- 10 Gerria agertuko zala. Bake alegin batzuk egongo zirala, baiña ez, «gerria» beti agertuko zala.
- 11 Amazortzi-berrogei urtekoak be joango zirala gerrara.
- 12 Emengoak bestiakaz nastau egingo zirala.
- 13 Kanpu-Erreñuetatik etorriko zirala gerratan laguntzera.
- 14 «Moroak» etorriko zirala eguzkia agertzen dan lekutik.
- 15 Aidezko txoriak Gernika erreko ebela, lau alderdietatik sua emonda. Prusianuek izango zirala.
- 16 Oka aldetik Bermeora izango zala gerraterik gogorrena.
- 17 Bilbo, onean konpontzen ezipazan, erreka moduen eroango ebela kaleak odola.
- 18 Zaplartzada baten, euli moltzo bat il eta banaka batzuk erdi bizirik geratzen direanez, alaxe gitxi geratuko zirala bizirik, baiña eurak onak.
- 19 Abarkadunen semeak joango zirala, eurak gura ezda, beste lekuetara dotriña erakusten.
- 20 Abarkadunen semeak joango zireala Madrillera agintzen. Lege barriak emongo ebezala.
- 21 Gosea etorriko zala, ta zer janik ezaz, larritasunetan ibiliko zirala.
- 22 Gitxiago izanarren, Gurutzedunak irabaziko ebela gerria.
- 23 Akabuen joango zireala Kanpu-Erreñukoak eurenera, an be laster gerra egitera.

- 24 Alderdi bitan geratuko zirala, onak eta txarrak.
- 25 Erreñuek erreñuen kontra egingo ebela gerratan.
- 26 Bilbon, txindurri-metan lez, kalean alkarri oztopo egi-  
ten ibiliko zala jendea.
- 27 Fedea galdu egingo zala, baiña beste leku batzuetan  
geitu.
- 28 Abadeak eurak galduko ebela erlejiñoa.
- 29 Jakituria jakituri gañean etorriko zala, ta orduan txarto  
ibiliko zala mundua.
- 30 Gizona, bere izakeran, len baiño txikiagoa izango zala,

Berari Manueleri ixilpean esanikoak:

- Larogei urtetik gora biziko zala.
- Bere begiekaz ikusiko ebazala «moroak» bere  
etxe aurretik pasatzen.
- Gerra agertzean, soldaduzka aroan egongo zirala  
bere semeak.

Onexek dira ba Igarlearen iragarki geienak eta ardura-  
tsuenak. Urrengo atalean daukoguz Felix Naberanena. Ba-  
tzuk, Manuel Elorriegaz bardin direanak, eta beste batzuk,  
arek ez diñoazanak.

Naberan'enak be bardin zenbatuko dira.

## NABERANENAK

*(Germana Esturo, Astorkiaren  
alargunak idatzitakoak).*

Felix Naberan Mendatako Igarlea baiño lau urte inguru  
gazteagoa zan. Beronegaz artuemon aundia euki eban ira-  
garpen arazoetan, eta euroen esangurea ondo ulertu eban.  
Orregaitik sarritan esaten ei eban, berak ez ebala gura bizi,  
Igarleak iñoazan egunetan, eta Jaungoikoari eskatzen eutsa-  
la, egun orreik baiño lenago bere arimea eroateko, 1924'an

zezellaren 3'an il zan 99 urte eginda eukozala..Bere gurasoak Jose Antonio Naberan eta Mari Kruz Landa izan ziran.

Onela idatzi eustan Germana Esturok:

«Kortezubiko Salbiden eukon arreba bat Mendatako Profetak txarto geixorik, eta gau bertan bera ikusita etxera doiala, «Gabon» esan eutson Abade batek, eta biyok berbetan doazela, Mendatakoak esan eutson: «Ze argi dagoz orrek etxeok! ». Eta besteak:

—Bai, orretan Errosariyo Santua egunero errezatzen da; orretan bestietan, noiz edo noiz; eta orretan illun dagoznetan, iñoiz be ez.

Gero esan eutson asko ikusiko genduzela arrigarriak:

- 1 Gizonak aidean ibiliko zirala, txoriak lez.
- 2 Gizonak berba egingo ebala ta mundu guztian entzungo ebela.
- 3 Argiak etorriko zirala ipurtargia lakoak.
- 4 Barkuek egingo zituezala burdiñezkoak.
- 5 Andrak eleizan egongo zireala ule luze pertxan edo kakoan lez, ez deboziñoagaitik, ezpada arrokeriagaitik.
- 6 Eleizeak atarako zituela deboziño asko, baiña jendea geroago ta otzago.
- 7 Andrak ibiliko zirala erpe-atzamarrakaz, arpegia muxarangozorro biurturik, euren trentza ederrak ebagita,
- 8 Abadeak galduko ebela asko Fedea, ze egingo zirala liburu nasaietara.
- 9 Etorriko zala aize aundi bat gizona zutunik ezin egongo zana.
- 10 Etorriko zala gerra-zibille ta gero mundiala. Goiak bera etorriko zireala. Prusianuek eta Arketan be egingo zala «desenbarkue».
- 11 Karlitatea amaituko zala ta pareuko zala bear dana.
- 12 Gernika erreko ebela, ta txarrak, irabazten ezpadau, Bilbo be zuzitu egingo ebela.
- 13 Joko ebezala kanpaiek, baiña ez arein erlejiñoan kasurik egiteko, ze otso amorratuak izango zirala. Geure gura-soen erlejiñoan jarraitzeko.

- 14 Gero Gernikan egongo zirala atien-atien dendak eta eukiko gendula kontribuziñu kontribuziñuen gañean ta olloeri ipintzen dautsenian arin ibilteko.
- 15 Egongo zala 48 orduko gerra txiki bat.
- 16 Gurako ebela il portu aldeko gizontxua, iru umeen aita, Gernikako Juntatan juramentu egingo ebana; baiña ez ebela lortuko, ze Aingeruak jabongo ebela ta.
- 17 Zelan egingo zirala baserrietara bide zabal ederrak.
- 18 Ipiñiko zituezala bide kurtzietan Jesusen irudiak.
- 19 Diruak ez ebala balioko. 1.000 pta. urretan daukozana, aberatsa izango zala.
- 20 Berrogei urtean ez gendula entzungo txorien kantua baiño beste kantarik.
- 21 Gerra aundia izanda gero Siberiyeko muelle gañean egingo ebela bakea, amabi Naziñoko banderakaz.

Gauza asko esanda gero, Mendatakoak:

— Prantzi be txarto dabil, laster sartuko dira Alemanak —Eta onek erantzun:— Berdungo atietan, Alemanak ezpata puntan ibiliko dituez Prantziko umien buruak, baiña antxe galduko dabe gerrea Alemanak.

Baita esan eban ez zendula eukiko kontribuziñu ez soldaduzkarik eta ondo biziko giñala ta semeak esango eutsoela aitari: «Ze ederto bizi garean! », Eta aitak: —«Bai, semeok, baiña, nun dago gure erlejiño santua?». Ta andrazkoak be artuko ebela izkillua ta burrukatuko ebela erlejiñoaren alde.

Baita esan eban Karlos, espirituz etorriko zala.

Eukiteko kandela bedeinkatua, ta zortzi eguneko jatekoa ta ezkutatzeko leize-zulo ta atxarrean.

Ain gauza asko esan eutsozan eta taberna aurrera eldurik eta edegita, «Sartu giñazan zeozer artzera» esan eutson, eta besteak erantzun: «Nire barruan ez edanik ez janik ez da sartu ainbat urtean» eta «gabon» esan eutson suntsiturik. Eta Mendatakoak: «Jesus! Ez da izan mundu onetakoa!».

Eldu zanian etxera, bentanan parata, eskribidu eban noiz izango zan Prantziko gerrearen amaia, ta orduan esango

dodaz onek gauzok. Eta gau oneri esaten eutson Eulaliok. «Gaba egun egin zana»; beian egongo zan orratza be ikusteko beste argi egin eban eta. Gero gura izan eban eldu Aita Santuagana, baiña il egin zan, Barzelonan diñueuz.

Ikusi ta aztertu geinkenez, emen be ez dagoz iragarki danak Naberaneri bakarrik entzunikoak. Batez be azkenaldian badagoz beste batzun entzunikoak eta nastauak, beste askok egin dabenez.

Ori orrela dala ikusteko, «Egin» eta «Eusko Folklore»-an agertukoak be ipiñiko doguz.

## «EGIN»-en AGERTUKOAK

Mendatako Igarleari buruz agertu zan «Deia»-n, 1981'ko Zezeillaren 8'an, idazlan bat Manuel Elorrietaren iragarki batzukaz. Bertan egunetan agertu zan gero «Egin»-ean, beste idazlan bat, «Meatako Igarlea» idazpuruagaz Naberanen iragorpen batzukaz, onetara:

«Duela ehun urte Arteagako Naberanzakoneko aitona, Meatarra joan zen. Bueltan gauez, gizon bat topatu zuen bidean. Aitonak esan zuen: «Illun dago, ba». Gizonak erantzun zion: «Bai, laster illunduko du»,

Eta bat batean argitu omen zen gaua eta gizonak profezia hauek egin zituen: «Suzko guardiak eta airezko txoriak etorriko dira».

Apaizetan ez dira ehunetik hamar onak izango, berez onak direnak baizik. Heurek galduko dute erligioa. Aberatsak dirua kalera botako dute, esanaz: «Onexek galdu nau». Pobreak diru hura batzen hasiko dira, baina diru hark ez du balio izango.

Balkoidun etxeak eta miradordunak, denak hondatuko dira. Negua eta uda ez dira igarri ere egingo, arboletan izan ezik. Prusianoak etorriko dira eta anaiak alkarren kontra hasiko dira. Soroak hilez beterik aurkituko dira eta hain-

beste gorpu ehortzeko lurrik ez da izango. Handik bat hemendik beste bat batuko dira bizirik geratu diren apurrak eta esango dute: «Elkarrekin bizi gaitezen». Orduan jan nahi duenak lan egin beharko du. Alperrik izango da masoei tiroak botatzea, arik eta elizako atea josi arte. Gero abar-kadunek masoiak Erromatik kanpora botako dituzte. Sevilla'ko kai gainean hamabí erreinetako legeak egingo dituzte eta esango dute: «Oraintxe bizi gara ondo». «Gero berriro txartzen eta okertzen hasiko da eta gero eta okerrago eta orduan azken juizioa izango da».

Geroztik ehun urietara, aitonak Meatatik ekarritako profezia hauek gogoan dauzkate Naberanzakonan.

Baztar alde onetan agertzen da Naberan'en argarki polit bat jezarrita, eskuan makilla ta buruan txapelagaz, alboan onela idatzita:

«Huxe da Felix Naberan, Bizkaiko Diputazioko pentsioa, zahartzaroa kobratu zuen lehenengoa. Beraz, Bizkaiko lehenengo pentsionista.

Pezeta bi edo hiru kobratzen hasi zen. Agure hau ehun urtekin hil zen 1924'an. Ez da beraz atzo goizekoa. Meatako igerlearen profeziak ere honexek zabaldu zituen. Baita sinestu ere.

## EUSKO-FOLKLORE

(IV, 1924, 180)

Erderaz izanarren, lenen idatzitakoak diran ezkerro, Mendatako Igarleari buruz, J. M. Barandiran'ek *Eusko Folklo-rean* agertu ebazanek (IX-1924, 180'tan), emen an dagozanez ipinten dira,

«Mendatako profeta» be, beste «profeta mistikuen» artean agertzen danez, edonok susmatu leio, beste alako bat izan zala batez be ikusirik antzik ez daukiela, durundadea

baño, Igarlearen benetako iragarpen eta esanakaz. Amaitu be bitxikeriekaz amaitzen da.

Onela diño:

Durante la última guerra civil Carlista apareció otro «profeta» en el pueblo de Mendata (Bizcaya) cerca de Guernica. He aquí cómo se le dio a conocer su extraña vocación, según lo refieren actualmente quienes le conocieron y le trataron.

Llamábase Hilario (Eulalio) Inchausti. Era natural y feligrés de Mendata, barrio Mendaturi, caserío Echébarri, y como, labrador que era, se dedicó a cultivar sus tierras en toda su vida. Sabía leer, pero nunca se supo que hubiera leído otros libros que algunos devocionarios corrientes, ni que hubiera recibido instrucción extraña ni superior a la que por entonces se daba generalmente a personas de su condición social.

En ocasión de hallarse enferma una hermana suya que vivía casada en el caserío Salbide, del pueblo de Cortezubi, fue un día a visitarla, deteniéndose allí hasta la media noche. Entonces, determinó volver a Mendata. Se lo opuso su cuñado, marido de la enferma, diciéndole que era ya tarde para emprender la vuelta. Mas él le contestó que sólo temía a Dios, y tomando un palo en la mon partió camino de Mendata.

Al pasar junto a la ermita de Santa Ana, que está en la jurisdicción de Cortezubi, se le apareció una fujer desconocida que, después de saludarle, le preguntó a dónde iba.

— Voy a Mendata, le contestó Hilario (Eulalio).

— También yo, le replicó la mujer.

Entablada así la conversación, se dirigieron ambos a Mendata, pasando junto a la iglesia de Arrazua. Entonces la mujer reveló a Hilario (Eulalio) muchas cosas que habían de acontecer. «En lo venidero, le dijo, serán construidos muchos caminos, los cuales se cruzarán en multitud de sitios, y se abrirán tabernas en casi todas las casas». (Nota: Esta predicción es popular en muchos sitios del pueblo vasco, y

la tengo por anterior al profeta de Mendata. En Ataun se dice que las señales del próximo fin del mundo serán: atien dendea, kamioak Kurtzan, ta latin iraurketa (tienda en cada puerta, cruzarse las carreteras y la trilla en el horno). Lo mismo dicen en Zeanuri).

Los liberales dominarán en España y la empotrecerán. Muchos pueblos guerrearán unos con otros, pero España no entrará en la contienda con ellos, sino que sostendrá guerras con los moros. Los liberales emigrarán a países extranjeros. Si vuelve a surgir otra guerra civil entre los liberales y demás habitantes de España, los moros entrarán una noche en esta nación por el lado de oriente. Entonces España entera irá contra los moros y la guerra será horrorosa, sobre todo en Bilbao, donde correrá la sangre como las aguas de su ría; y si los malos no son vencidos, Dios hará que la ciudad se hunda debajo de la tierra.

Los sacerdotes empezarán a rezar tres Ave Marías después de cada Misa, y establecerán muchas Cofradías piadosas; pero la gente se apartará cada vez más de la religión; los hombres olvidarán la doctrina cristiana, solo algunos aldeanos la conservarán. Entonces será libertado el Papa, y por encargo de éste unos aldeanos propagarán la doctrina cristiana. (Nota: «Algunos datos de este relación son indudablemente elaborados en tiempo posterior al del «profeta»).

En esto llegaron a una encrucijada ambos caminantes, y se despidieron.

Según otra versión, referida este mismo año de 1924, por Tomás de Kobeaga, vecino de Cortezubi, el mencionado Hilario (Eulalio) Inchausti, yendo de noche a Mendata, tropezó con un hombre cojo quien le acompañó en el camino enseñándole el arte de adivinar. Cuando hubieron llegado ambos cerca de una taberna, Hilario (Eulalio) invitó a entrar en ella a su acompañante a echar un trago de vino. Mas él le contestó que jamás había probado vino, y en diciendo esto desapareció; Cuando Hilario (Eulalio) llegó a su casa halló su habitación iluminada como si fuese de día.



Desde entonces empezó a adivinar cosas ocultas y luego se extendió su fama en los pueblos de alrededor. Acudía a él mucha gente deseosa de averiguar el paradero de animales y objetos desaparecidos y de hombres, sobre todo de los movilizados con motivo de la guerra, cuya suerte se ignoraba.

En cierta ocasión, hallándose en el caserío Pozueta de Mújica, dijo a los soldados carlistas que fueron allí a beber chacolí: *Karlistadea aztu eingo da ta gero parauko da biar dana*. El Carlismo será olvidado, y luego se establecerá *lo* que sea preciso.

En su tiempo fue establecida en Mendata la Congregación de Hijas de María y no permitió entrara en ella su hija; porque decía que tales congregaciones y cofradías serían vanas, puesto que sus miembros irían por la mañana a la iglesia a adorar a Dios, y a la tarde a la romería a servir al diablo.

Anunció que ya estaba próximo el fin del mundu y que luego vendrán muchos predicadores malos y también Jesucristo; que aquellos obsequiarían a sus discípulos con manjares exquisitos, pero que Jesucristo se mostrará más modesto y a sus seguidores dará pan y queso.

No cobraba las consultas; pero a su casa llegaban regalos abundantes: gallinas, pollos, etc.

No tuvo espíritu de proselitismo tan poderoso que le obligara a salir de su casa a adoctrinar a la gente: solo se contentaba con predicar y difundir entre los muchos que a él acudían, sus extravagantes ideas, poco conformes con las doctrinas de la Iglesia católica tradicionales en el País.

Oarra: Emen «Eusko Folklorean» agertzen diran adierazpenak Eulalio bagarik ordez «Hilario» esaten dabe. Mendatako Profetaren izena, jakin ez ebenak, bere iragarpenak be ezin ebezan ondo jakin, noizik bein egizko iragarkien bat esanarren.

Jakiñik, asieran diñoanez, nungoa ta ze baserri-etxekoa zan Mendatako «profeta» ori, zergaitik etzan iñor joan Mendaturi-Etxebarrira, nor zan bera «profeta» jakitera? An aurkituko eben 47 urteko gizon bat, Manuel Elorrieta zana, Profetaren lobeza ta iñok baño obeto bere osaba ezagutu ebana ta bere iragarki garbiak beti esaten ibiltzen zana. Joan baziran, ainbeste barriketarik ez eben esan eta asmatuko; esatekoan be, beste ziñaldari egizkoaren eritxia alboan ezarri ezkeron, bera Igarlearen izen ona etzan galduko.

## AZTERKETA

«Mendatako Profetaren» iragarki ta esanak ugariak izan ziran eta gero zeatz bete ziranak. Elorrieta ta Naberan'en ataletan zenbakiz izentaturik agertzen direanak dira Igarlearenak, iragarki banakaen bat edo bi ondo aditu eziñezkoak izanarren Naberanen aldetik. Beronen bagarik, beste edonor bateri entzunikoak, edo oker aditukoak izatea be baliteke, beste adierazle bieri jazo yakenez.

Mendetako Igarleak ez eban iñoiz azken «juiziorik» aipatu, ez beste eleiz siñesterik, ez iñor «suntsitu» terik erabili. Baiña bere Iragarpenen barri-emolleak, Igarlearen gertaerak arduratsuago ta lazgarriago egitearren-edo, erabili ebezan olako amaiera ta barriketak, iragarpen orretan dakusgunez.

Geroago ikusiko dira banan-banan, batez be gudate iragarkiak eta arduratsuenak, egizko ez direanak eta zalantza-koak ixilduaz. Bardin geratuko dira Prantzi ta Europako Gudate Nagusiko gorabera ta izenak: Arketa, Siberia, Sevilla, Erroma, «masoí» ta orretaikoak.

Iragarpen orreik ondo ezagutzeko, Euskalerra edo Bizkairako bakarrik esanikoak direala, jakin bear da,

## IGARLEAREN IZAERA

Arduragarri ta garratza izan yakon Mendatako profeta jaunari bere Iragarletza leporatu ta ondo eroatea.

Irutaikoak ziran Igarlearen iragarki ta esanak: Laster gertuko ziran gizaldiaren aurrerakuntzak, alkar arteko gudatearen goraberak, eta erlejiñozko ta beste arazoak.

Asieran uste izan eban Igarleak bere iragarpen guztiak arin ta laster jazoko zireala, baiña gero konturatu zan luzeroko ta geroagokoak zireala, ta beretzako bakarrik esanikoak etzerala, erri guztiarentzat baiño.

Bere adiskide ta kideko baserritar batzuk lagundu eutsoen, baiña bere buruzpideak nogaz autuan erabilli, zuzendu ta eragiteko, bera baiño giza-mail aundiago ta goragokorik ez eban euki, bere etxera ta berari entzutera asko joanarren.

Ez egoan «Inkisiziñorik», eta alde batetik bere iragarkiak zabaltzeko laguntasunik euki ezpaeban, bestetik be. ez eutsoen eragozpenik ez oztoporik ipiñi.

Onela askatasun guztia euki eban bere iragarkiak sutsu ta gogotsu esateko; ta urrundik yetorkozan giza-maila guztietako gizonak berari entzun eta beragaz itz egitera. Auzotegikoak esaten ebenez, beti ei egoan albatean edo bere etxe aurrean lagun aldra bat itxaroten; euroen artean, Markiñako prailleak be ikusi ta ezagutu ebazan. Baiña oneik, ainbat joanarren beragana, ez eben ezer esan edo. euren eretxia iñori agertu. Idatzitakorik ez da beintzat iñun agiri.

Erri-Agintariak, ez bere aurka ez bere alde, ez eben ezer esan ez egin, eta Eleiz-Agintariak be jarduera bardiñean jarraitu eben, ixilik geratuaz.

Iragarpen batzuk: «Aita Santua engañauko ebela», «Aba-deak eurak galduko ebela erlejiñoa» esatea, etzan bape atse-gingarri Abadientzako; baiña oneik aldi atan ospe ta izen onekoak ziran eta gatxa zan errian ori siñestea. Gernika erreko ebela, moroak etorriko zirala, gose ta «gerra» zatar bat agertuko zala, eta beste olako gudate arazoak eta al-

karren artekoak, bildugarriago ta kezkarriagokoak izan ziran errirako»

Bitartean Iragartea, zerutikoa zalakoan bere Igarlaritza, Mezularitza, ekiñaldi osoan ibili zan bere iragarkiak zabal-tzen azkenerarte, danak ondo jakiñarte; zartzaroan konturatu zan ondiño norbait geratzen zala ezer jakin baga: «Aita Santua», ta berari be esan bear yakon, beretzako be baziran eta.

## ZORRAK

Bere Igarletzan gogo guztiz arduraturik, Eulaliok bere etxaguntzan berakada aundia egin eban, abelgorri ta sololanak narrastxo erabiliaz. Baserri lan guztirako andrea ta neska-mutil gaztetxo biak etziran naiko izaten. Berak barriz, iragarpenak bere entzuleai azaltzen ainbat ordu ta egun igaroten ebazan. Beragana entzutera etorritakoai, eskupeko bat emoterik ez yakon iñori gogoratzen. Onetara geroago ta txi-roago geratzen zan Igarle gizajoa. Urri ta murri geraturik, gorakada aundia egin eutsoen «zorrak», nori zor eutson be gogoratu eziñaz.

Lendik zerbait zainbizi izan bazan, orain, bere zorren artzekodunak baztar guztietan ikusirik, guztiz durduriturik geratu zan. Eleizaldetik-edo gizonen bat ikusten baeban Mendaturira etorten, larratzen eukazan bere beiak beste ugazaba baten landara edo solo batera aldatuten ebazan, bereak zireala igerri ez egian.

Txaltxu bi eder-ederrak eukazan kortan. «Onexekaz jaseko yoat diru moltzotxu bat» esanda, biyaramon goiz baten, mutiko bat lagun ebal, poz-pozik joian txaltxu biokaz Durangora, berton salduteko asmoagaz. Maguna edo Maume aldetik berantza joiazala, beresi-mortuan, moskorti antzeko batzuk barreka ta iseka etozala, agertzen ziran euren atzetik.

—Txo, —diñotso bere mutikoari—, orreik atzetik barreka datozenok, baliteke neure zorren billa etortia, ta kendu

egingo yauskuezak geure txalok. Sartu gaitезan beresi onetan ezkutaturik, zer diñoen entzunaz, eurok alde egiten daben arte.

Olaxe sartu ziran, eta txaltxuok pozik asi ziran euren ondoan bedar gozoa jaten, baiña gero apurka-apurka urrundu ziran txalak, eurak konturatu baga. Bein moskortiok aldendu ziranean, asi ziran txalen billa ta, txalik ez! Batera ta bestera deika ta arakatzen ibiliarren, txalik etzan iñun agertzen, eta eurak be beresi barruraño oartu baga yoiazan. «Onelako toki, zugazti itsuan, «txalak ezeze geu be galdu egingo gozak» —esan eutson bere mutikoari, ta txalak piztientzat itxita, atzera joan ziran Mendatara uts eta diru barik. Ezin eban ezetara be astindu bere urrikeria, ta zorren buruko mina!

Bere arreba ta gizona bertan etxe alboan nasai ta asero ikusteagaz bakaitza sortzen yakon, eta eurai marrokeriren bat egin be bai. Asmo orregaz-edo, Aldabola baserritik sendi txiro ta beartsu bat ekarri eban, bioena zan «Etxetxiki» txabolan bizitzeko. Asarratu ordeз, errukitu egin zan bere koñetua ta emon eutson bere atala be, sendi ori nasaigo bizitzeko. Kristobal Laspiur, Joxepa ta bere alaba Maria izan ziran etorritakoak eta gero bertan Etxebarrin, Igarlearen bizitegian geratu ziranak.

## ZARTZAROA TA ERIOTZA

Bein bere seme Jose Enrike gizon egin zanian, nasai geratu zan geldigeldika Igarlea zartzarorako, lenagoko zor, ardura ta nekaldi guztiak alborantz kendu ta aitzuaz. Baiña Igarletza arazoa, ez yakon bere ardura ta ekiñaldia burutik iñoiz joaten, azterketan, beti gogoz ibiliaz. Laztan eta nekagarri izan yakozan bere iragarpenok, eta arrokeria baiño apaltasuna bearrezkoagoa izan yakon eurok adierazteko.

Iragarpenetan arduradun gorengoena zan norbait, ezer be jakin baga geratzen zala, gogoratu eban zartzaroan Igarleak; Aita Santua. Beronentzat be baziran iragarpen batzuk.

Bere buruari ainbat eraginda gero, ber-bera Erromara joatea asmatu ta erabagi eban.

Orretarako zartxoia be bazan, baiña 70 urtetik gorakoa izanarren, sendo ta osasun onean aurkitzen zan «joan-etorri» bat egiteko ta bide batez Aita Santuaren onespén eta par-kamena irabazteko. Biderako dirua baiño beste laguntasun bearrík ez eukan, eta ori be emon al eikion bere koñetuak, amaseiko ta ogeikoetan ugaritsua zanak. Eskatu be eskatu eutsan, baiña onek, Abadeari esan bagarik aldi —atan ezer egiten etzanez, esan egin eutsan Abadeari Igrlearen eta bere asmoa. «Ezetz» erantsun eutsan gogor Abade Jaunak: «Zer egingo yok ba orrek Erroman? Aita Santuari bere txotxolo-keriak esaten ibili? Ez egiok dirurik emon eta ez dok joango, zarra be badok-eta».

Arriturik eta naigabeturik geratu ziran ezkon-anai biok, eta Igarlea zer egin ez ekiala, dirurik ez eutsan emon-eta. Baiña Erromara joateko asmorik ez eban galdu. Baekian norantza jo, ta etxean zeozer ixillean esanda, alako baten joan zan erromes, bidezti antzera ta txanponik baga ta oñez Bartzelonaraño. Emen geixoagaz makalik aurkitu zan eta Geixotegi baten sartu zan. Orain ez dakigu ze Gexotegi ta ze geixo euki eban, baiña aldi atan, bidean otzikara, birikeri, izurrite, edo beste olako geixo ilgarri bat arrapatzea, etzan bape arrigarri. Jakingarria izango zan bideko bere ibillaldia be, ta nekez betea, bere urteakaz.

Il zanian bialdu eben Geixotegitik idazki bat Etxebarri-ra, ta erantzun be bai txiroa ta ondasunik bagakoa zala esanaz.

Ibili nintzan Bartzelonan bere Eriotz-Agerkai edo Argi-bide bat billatzen, baiña eneban ezer eurkitu. Eliz-barruti-koak erre egin ebezan azkenengo gudaketan, eta Geixotegie-tan, zeinñetan eta ze urtetan izan zan jakin barik, gatxa zan billatzea.

Derion aurkitu neban Mendatako Meza-liburutxuan 1893' ko urtean bere koñetuak ataratzen eutsala Meza bat eta axe

izango zala lenengokoa, aurrekorik ez da agertzen-da (*Archivo, Seminario Derio*).

Il zan, ba, gure «Mendatako Profeta» bere Mezularitza ondo beteta ta bere Igarletzagaitik bizia be emonda.

Goragarria izan zan Mendatako Igarlearen ekiñaldia.

## 6'garren Atala

### EUSKO GORABERAK

#### ALDERDI BARRIA

Mendatako Igarlea ilda gitxi barru, 1893 urtean berean, Eusko Abertzale Alderdi barri bat sortu zan Bilbon, Sabino Aranak irasi ebana. Zer-ikusi aundia euki ebanez Igarlearen iragarpenakaz eta batez be gudaldikoakaz, zerbait sakontxoago ezagutu ta aztertu bear dira bere izaera ta egitasunak.

Sabino Arana Bilbon jaio zan 1865 urtean eta Sukarrietan il 1903'an. Bere aita Santiago, karlatar zintzoa zan eta gudate ostean alde egin bear izan eban Prantzira, ta bere seme mutil gazte biak be bai, Koldobika ta Sabin. Gero Bilbora barriro etortean, Ikastetxe Nagusietara joan ziran ikasten.

Bizkaia, betidaneko Askatasunean bizi izan zalata, Koldobikak Sabino Politika-arazo orretan arduratzera ekarri eban. Buru argiduna izanik Sabino, Bizkaiak ezeze Euskal-erri gustiak zer euki ta zer galdu eban, eta beste olako al-dakuntza ta goraberak zearo aztertu ta ikasi ebazan; baita Euskerea be.

Euskotarren galtzerik aundi ta tamalgarriena bere Aberri «gogapea» ta «nortasuna» galtzea izan zan. Ezer barriztau gura al bazan, ortixek asi bear zan, burupide ta sendabide barri bat egiñaz. Euskal-erri guztia bide bardiñean ipinteko, Irakasle jakitun baten antzera, egitamu oso ta eder bat egin eban Sabiñok; baña, zer egin beragaz? Euskaldun guztiai zelan erakutsi?

Aurretiaz be egon ziran, batez be Napar aldian, bera laxe jakitun eta eritxi batekoak izan ziranak; baiña euren irakaste ta ekiñaldiak ezerezian geratzen ziran, eta berari be bardin jazo leikion. Zer egin ba? Eusko-Abertzale Alderdi barri bat irasi egitea, gogoratu yakon. Orretarako aurretiaz dana gerturik euki bear eban.



Lenengotik, Euskalerrian euskerazko izen barri bat ezarri bear yakon, lenago latiñeraztuko «Vasconia» ordez. Ortarako ta edozelango moltzo ta mordo esateko, euskereak «di» atzizkia darabil olako ugari. Euskalerria esateko be «Euzkadi» zan izenik egokiena ta esangura bardiñezkoa: «Euskaldun Aberria Euzkadi da» esateko. Euskotarren «Ama-Aberria» zein zan jakiteko be, ez eban euki Sabinok, Salomon jakitunagana jo bearrik, ezpataz erdibiturik egoan Eusko umeaberria, olaxe jarraitzea nai ebela España ta Prantzik, baiña benetako Amak ez. Euskaldunak alkar anai baziran «Ama» baten semeak ziran, eta ez eben bear beste «Ama» ordezkorik.

Egunen baten, 1893 Bagillaren 3'an Larrazabal'en bere asmo ta ekiñaldia bere adiskide ta lagunen artean lenengoz agertu eban. Ontzat artu baeben bere irrintzia, eusko biotzetan ondiño iraun egiten ebala askatasun bidearen ezau-garri zan, berandutxukoa izanarren. Baliteke irakaskintza orrek urte batzuk lenago Karlatarren artean gar aundiagoa ataratzea, baiña onerako ez da ezer beranduegi izaten. Ikurriña be arduraz eratu eban, S. Andres Gurutza ta iru margodunezko Euzkadi ikuspegikoa. Ontzat artu eben Euzkadi osoan Ikurrin ori; Prantzi aldeko euskaldunak be, ezer aldatu baga, artu eben eurentzako. Gero atara eben Eusko Abendaren Ereserkia, egiñik musikarari onenakaz; gudaldian Eusko-Gobernuak, Jaurlearitzak, ikurriñaz batera, ezer aldatu baga, erabili **ebana**.

Onetara atalkin eta adikizun guztiekaz jantzi eban Sabi-ok bere Aberria, eusko gaztediak laster beretzako artu ebana. Kistar zintzo ta benetakoa zala Euzkadi osoa egiztaturik, «Jaungoikoa ta Lege Zarra» Goiburutzat artu eban.

Madriliko Gobernuak, Sabinoren egunetan, ondo esku-peratuta, ta indarrez ondo loturik eukan Euskalerrri guztia bere izate ta mailla guztietan. Orretara ta ezarian, Gudalburu Agintza, Kapitania, Burgos eta Zaragozan egozan. Unibersidade ta Ikastetxe-Nagusiak, Valladolid eta Zaragozan; Auzitegi, ta Audiencia, Burgos'en; Gazteiz Elizbarrutia Burgos

Gongotzainpean, Panplonakoagaz banandurik. (*El Carlismo*, 215, Justo Garate).

Sabinoren Abertzaletasunak zuzen joten eban España-taron biurrikeriagaz, eta laster bizkortu ziran España-zale guztiak, bera Sabino ta bere jarratzaillien aurka, zoroa be bazala esanda. «Ez —erantzun eban Canovas'ek—, Sabino ez da zoroa, urrundik ikusten dabena baiño». Geroago beste batzuk be esan eben, Sabiño damutu egin zala egin ebanagaz, oker adituko zerbait idatzi ebalako, baiña alan izan balitz, ezagutuko zan eta il zan eran etzan ilgo ain gazterik.

Bere idatzitakoakaz Sabínok bultzada aundia emon eutson Abertzaletasunari, Euskereari ta Eusko-nortasunari.

Karlatarrak indarrez bakarrik lortu nai izan ebena, Sabinok eusko biotzetan azi barri ori ugari ereinaz lortzen eban, azia bein ondo erein ezkeru, ondorengoa be berez etorriko zalata.

Berak, Sabínok, Euskalerrria ikusi, ezagutu ta neurtu eban ez beste askok be bardin egitea baiño besterik ez eban nai, geienak ez-entzun baiño besterik egiten ez dabelako, ta iñoiz bideratu ezaz eta buru gogor izanik, norbere buruari ta urkoarenari kalte aundia egiten dautsielako.

Sabinoren Eusko-Abertzaletasuna laster zabaldu zan, batez be gaztedian, euren Batzoki ta alkar laguntasunetan erakunde ta zabalkunde ona ta garbia erabiliaz.

Primo de Rivera agertzean ezkutatu bear izan eben arduradunenak, baiña Errepublikaren etorreran, indar aundia goz biztu zan eta gudaketa egon ezpalitz edo beranduago agertu, Euzkadi osoa bereganatuko eban eroian abiada ta ibillian.

## ETSAIARENK

Sabinoren erakuste barri ta irrintziak oñaze ta zornejarion aundia atara eban bere arerio ta etsai artean. Laster bizkortu ziran erakuste ori ito eragiteko alegiñetan, giza-mail

inguru guztietan jazarpen gogorragoa ta sakonagoa ezarriaz, batez be eleiztar gizonetan eta jakintzakoetan, Gobernu ta Eleizearen Ordezkariek bat egiñaz. Gazteizko Gotzain Jau-nak «masoi ta separatista» baiño beste kaltegarrikorik ez eben ikusten Euskalerrian. Abertzalien aurka egiteko, euroen ardura ta itzaldiak ezin obeagoak ziran Españatar Gudalburu batentzako, amorruzko zirikada batzuekaz.

Ragonessi Aita Santuaren Ordezkariek zala, «Sda. Congrega-ción de Religiosos»-tik agertu zan agindu edo aginbide bat Nagusientzat, euren menpeko ziran «abertzaleak» salatu ta zaintzeko eskatzen eutsena [*Euzkadi y el Vaticano*, 57, I. *Moñones*]. Onetariko bear izanik ez eben euki Praille-Na-gusiak, lendik be, Gotzaiñak euren Abadiekaez egiten eben antzera, eurak be bardin egiten eben euren menpekoakaz, baiña orain egite ta zemakuntza geiagogaz. (V. Id. 44-55, etc. I. *Moriones*). Orain siñestu be ezin leitekezan agintza, esate ta marrokeriak erabilten ziran, osterantzekoan guzur-keriak siñestu egiñaz. Praille guztietakoak izan ziran orre-tariko jazarpenak, baiña batez be Napartar Kaputxinota-renak.

Bitartean, Ikastola ta osterantzekoetan, betidaneko ja-zarpenean ziarduen Madrilgo Agintariak.

Alfonso XIII Gernikara etorri zan baten «Amaya» Ere-santzerki, «opera» itxuratu eben Arratzuko toki polit eta egokian eta gero gazteak Gernikan agerkunde bat egin eben txartel edo Pankarte bat aurretik eroiela, «Eusko-Uniber-sidadea» eskatzen. Beste zer barik, espexera eroan ebezan gazteok. Or Leizaola arein arteko.

Ikastoletan «erestuna» be erabilten zan euskeraz egiten ebenentzat, azkenengokoena zigortuaz. Egite ori lenagoko urtietakoa be bazala dirudi, Kardaberaz Josu-Lagundikoak be Araban salatu ebana, entzunda daukat-eta.

Ni neuk baten bakarrik euki neban «erestuna» euskeraz egin nebalako, ta zigorra artu baiño lenago beste mutiko bateri emoten nengoala «zaust» kendu eustan erestuna beste mutiko nagusitxo batek «amaren berbetea egitea ez da pe-

katu» esanaz. «Beti azala eu erestunduna Maixuak esan ez dagian, lantzian batian emongo deuat iri»-esan eutson bere lagunari. Arrezkero eneban geiago ikusi erestunik. Beste ernetako ikastoletan be bardin izaten ziran erestunak eta makillakadak.

Nire aurretiko ikas-mutillak, Maixua il zalata, illetara joan bear izan eben. Oitura danez, ikusirik, gorpu-illobira lur apur bat bakotxak botatzen ebala, mutiko guztiak asi ziran lur-arri mokillakaz zerraldoari jo ta jo, lurperatuta itxi eben arte, ordea emonaz orretara euren Maixu makilladunai.

Onetariko mutiko batzuk, gero Abade Jaun agurgarri eginda, umetan egiñiko euren goraberak barreka gogoratu izan dabez,

## MAIXU BARRIAK

Arrezkero Mendatan urtean bein agertzen ziran Maixu barriak, «Interiñoak» esaten eutsienak, erakusten baiño makillaka obeto egiten ebenak, eta beti berandu ibiltzen ziranak.

Maixua etorren bitartean guk «marroan» egiten gendun ikastola barruan jolasketan. Atea zabalduaz bakarrik Maixua eztulka ta makillaka asten zan, baiña mutikoak, burua makurturik eta sagutxoak lez, bereak egozan bakotxa bere tokian. Orduan umeok erreskadan ipiñita, bakotxari emoten euskun esku-makillakada ederra, ta moskorragaitik-edo uts egiten baeban, gogorragoa izaten zan bigarrena.

Albiz'tik be etorten ziran Mendatako ikastolara morrosko eder batzuk, barriro etxera joan ez egitearren, bazkaite-rako urdai-ogiartekoak ekarzela, arratsaldeko bertan geratuaz. Baiña oneik be ez eben ezer ikasten, zirriborro ta ziri batzuk idazkeran egiten baiño. Gero beste Albiztarrak barreka ta iseka egiten eutsien esanaz: «Oneik «paluak» txarto egiten baiño besterik ez yuek ikasi!». Geiago etzan iñor etorri Albiztik Mendatako ikastolara.

Bizkai-Aldundiak jakiñik Gobernu-ikastoletan jazoten zana, auzotegietan berak egin ebezan ikastola barriak, andereñoen ardurapean ikastola bakoxta ipiñita, amaren berbeta ta bere maitasuna edonun umetxoak oartzen ebela, danak pozik geratzen ziran. Baiña agertu zan Primo de Rivera, jauntxoa, ta andereñoak kendurik, beste Gobernuen antzera geratu ziran ikastolak eta umeak.

Astean bein yatorkun Abade Jauna Ikastolara kistari-ikasbidea erakusten, eta «geuretarra» zanez, pozik, zintzo ta zantzoz agurtzen gendun «Egunon dakarrela» zoli esanaz. Buruan txapelik ez ule-kopetarik euki ezta, geure atzamartxo bigaz bekoki ondoko ule txortatuari gorantz egiten geuntsan, eta irribarreka etorren Abade Jaunak barreka aundia-  
goa egiten eban. Gero ezarian urreratzen zan mutikotxoren batengana, zeozer esanaz, bere buruko txuntxurren bat ikusterera. Gazeztezik etozan Abade-gai ikasleak, maixuak maki-llagaz egiñiko txuntxurak mutikoai ikusiaz, «No hay derecho a eso» esaten eben zarataka, erriko agintariak entzun egien, baiña iñok ez eban jaramonik egiten. Etxean barriz bere amak: «Maixuak olan jo auanian, zeozer egingo oan ik «iffotsan. Aitak, ostera, beste antzeko zigorraldi barri bat emoten eutsan, urrengoan obeagoa izateko. Nire aurreko mutiko bat konorte barik jausi zan olako makillada bategaz. Il zala-koan urreratu yakozan beste mutillak, eta itxartukeran laster zutundurik diñautsie: «Ez esan gero ezer nire etxeoai, beste ainbeste jo ez nagian neure aitak». Eta bere etxean ez eben ezer jakin.

Etxean, eta Erriko Agintariak beti Maixuaren alde egiten ebenez, umetxuok ez geinkian Maixuari zelan ordean emon, Belarriaz danak entzun egien, onetariko ganorabakoak esaten geuntsozan:

— «Maistro — Soso visto — Coger un arri — y asertar belarri». Edo Berriatun esaten ebenez: «Maistro — Soso visto — Arriye tirau — Ankan asertau — Txintxinge, txintxinge — Se ha escapau».

Beste errietan be olako batzuk entzuten ziran, eta Men-

datan jazorikoak beste errietan be erdi bardiñezkoak izaten ziran.

Azkenaldian, errukiturik-edo, Maixu on bat ekarri euskuen Mendatarra, Irakasle jatorra zana. Soriako gazte ezkonbarri bat zan. Biok agertu ziran Ikastolan, eta euren irri-barrea ikusteagaz bakarrik, poztu, ta ezagutu eben mutikoak, axe zala Irakasle jatorra.

Ikastola makillarik etzan ikusten, eta ume txikitxuai laz-tantxoak, eta mosutxuak emoten eutsezan. Ikastolan iñoiz ez eban utsunerik egiten, eta alboan erderaz ondoen ekian mutiko bat bere itzultzailetzat artuta, beti ebillan erakusten.

Urte batean, aurreko lau urtetan baiño geiago ikasi gendun, batez be idazkeran eta zenbaketan.

Orduko «Gripe» geixo barriagaz il yakon andrea ta alde egin bear izan eban, mutikoak atsekabez geratuta.

Errua nok eukiten eban esan бага, Bizkaian eta euskalerrri askotan onetarikoak ziran gure gaztaroko Maixu, ikaste ta ikaspide guztiak, umetxoen alamen eta gogaikarrietan iñor arduratzen etzala.

Agintarien ardurea edonun eta edozelan erdere Euskal-errietan sartu ta zabaltzea zan, toki bazterrenetan be erderazko izenak ezarriaz, Mendata aldian «Ganbe» orde2 «Hambre» ta beste tokietan «Dos Caminos, Traslaviña», Traslabiña orde3, ta beste olako asko esaten ebezan, gerokoak nundik agertu ziran izen orreik jakin ezin ekiela.

Traslabiña abizenagaz Bizkaitar Abade agurgarri bat bizi izan zan Cuzco-Perun: «El Licenciado Cristobal Traslaviña» bertako Eliz-Ikastetxean 27 urte Nagusi izan zana, ta Indio-tarren alde beti egiten ebana. Cuzco'n il zan 1713 urtean (*Tradiciones del Cuzco*, 10, Genara Elorrieta, Vda. de Aranzabal).

Emen esandakoakaz ondo ulertu ta ezagutzen da, zelakoa ta norartekoa zan euskerearen eta eusko-izatearen jazarpena ta euskaldunen tolesgabetasun eta tentelkeria. Gobernu, Maixu, Gotzain, eleiz-gizon eta sasi-euskaldunen bitar-

tez eta danen artean, norberen aurkako gorrotoa be erein eben euskal biotzetan. Egite ori benetan da mingarri ta lotsagarria! Basati artean be egin ez dana!

## ELEIZ - MAILLAN

Zetan esanik ez dago zelakoa izan dan beti Euskalerrian Kistartasuna. Bizkaian berandutxu agertu ei zan, baiña asieratik berez eusko-izaeraz bat egin ei eban.

Norbere etxea zan antxiñatik euskotar batentzat tokirik arduratsuen, ta etxean eskaratza edo sukaldea, bertan baten zalako, danak batera jaten, sendi guztia. Urrengoko tokirik arduratsu ta maitegarriena, norberen auzotegia zan, bertan alboan lurperatzen ebezalako sendi maitearen illak. Baiña gero, Kistartasuna agertu zanian, Eleizara eroaten ebezan sendiko illak eta erri guztiak, eleizan baturik, illakaitik otoi egiten eban, eta orretara luzatzen zan etxea eleizaraño, sendi bat egiñaz. Onetara lenagotik berezko maitasuna zana, Kistar —maitasun eginda geratzen zan, eta eusko izaeraz bat egiñik.

Eleiz barriak be errirako egokienak egiten ziran, alboan gorape ta aterpe eder-zabala egiñaz, erriarentzat batzar-toki atsegingarri bat agerturik. Arrizko mi eder bat egoan bertan, Udal-etxe, uri-batzar edo beste olako Anaidiak euren erri erabagiak artzeko. Baita baegoan beste toki bat mutikoak pelotan egiteko.

Erri guztirako tokirik maitagarrienak, eleiza, eleizpea ta eleizalde ziran. Igandetako Meza-nagusi aurretik, Agurtza ostean, eleizbira bat egiten zan, Abade ta bere jarratzaileak «Nunc, Sancte, nobis Spiritus» latineraz abestuten ebela, ta jai aundietan Txistularia aurretik zala. Meza nagusian erri guztiak abestuten eban, abeslariekaz aldizka, «Angelis» Meza. Andra batzuek egoten ziran asieratik euren sendiko illobi gañean argizariak piztu, ixotuta Abade Jaunak ur bedeinkatuaz il-otoiak egiten eutsezala. Illobi orreik eleizako olagaz estalita dagoz, baiña Errigoiti, Amezketa ta beste erri batzuetan ondiño lengo arrizko zulo-estalki ederrak ikusten dira.

Iru izan ziran Euskalerrirako Eliz-barrutiak: Baiona, Iruña ta Kalahorra. Auxe izan zan Bizkairako Gotzain-Barrutia, moroak. Españartu ziranian-edo utsune batzuk be euki ebazana. 1857 urtean egin eben Gazteizko Gotzai-barruti, Eliz barrutia, batzuk, euskotarrak lar biztuko ziralakoan, goganbear eta susmo txarragaz artu ebena. Orrela Sto. Domingo Kalzadako Apaiz-Nagusi Barbarejok Jaurbideari idazten eutsan: «Goztzen, Liburu ta Izlari guztiak euskotarrak eurenetaikoak eukirik, orrelako Eliz-barrutian, barriro be indar aundiagoa artuko ebela; ta.euskereak aurrerantz egin ez egian, beti euki ebela Kastillako Erregeak ardura ori. Aldi orretan, euskerazko eleiz-ikasleak irutik bi baziran, laster gitxitu ta jatxi ziran sakonerarte (*Eusko Ikaskuntza*, «Deia», 28/10/83, 18 orrialdean, Rodríguez de Coro, I. Pinedo).

Ordurako galdu eben euskotarrak euren azke-zaletasuna ta euren nortasun ta eusko-izatearen gogapea. Bitartean ekiñaldi guztiagaz eta aspertu baga ziarduen Madrilgo Gobernu ta beste España zale egiten ziranak, ikusi dogunez, euskaldunai euren euskerea, izaera ta soñeko guztiak kentzen. Arri-garriena, euskaldunak orretan ez konturatzea, ta ez larritutea.

Gazteizko lenengo Gotzaiña, Alguacil Rodríguez, Extremadura alderditik etorritakoa izan. zan. Beste geroko guztiak, baten bat-edo izan ezik, bardin izan ziran kanpotarrak, M. Mujika etorri arte.

Eusko umeak Eleiz-ikastetxietara joaten ziranean, bereala aitzuten eben euskerea, euren artean itz egiten be ez eutsielako itxiten, eta ikaste guztiak erderaz eta latinez zirealako. Neure aitag jakin bear izan eban ori, etxetik amaika urtegaz urten nebanian esan eustalako.: «Kontuz gero! Ez euskerrik aitzu. Amagaz aitu eziñean bazatoz, ostikada bat emonda, etxetik botako zaitut». Enekian zergaitik zan zemakuntza ori, baiña andik urte gitxi barru, Lesakatar anai biko txai jazo yakien euren ama Larrara etortea euren lekaidekunde edo «profeziño» egunean, eta ezin ziran alkar aditu. Orduan amak baztar batera joanda, negar eta negar baño besterik ez eban egiten. Zer jazoten ete yakon ikustera joan



yakon praille bat, eta bere semetxo biak, Naparroako Villafrankan lau urte ikasten egonaz, euskera guztia aitzu ebela ta orain ezin ebala, bere seme bikoitxakaz, itzik egin, eran-tzun eutsan.

Mendatan be bardin jazo yakon Arganeko mutiko bateri. Andaluzian eta ikastetxe ta praille artean iru edo lau urte eginda, Errepublika agertu zanian etxera etorri zan eta iño-gaz aitu eziñik, Abadeagana bialdu eben, euskeraz barrio ikasi eban arte. Ba ei egoazan an Andaluziko ikastetxean beste euskaldun batzuk, baiña galazo egiten eutsiela alkarren artean itz egiten, esan eustan.

Onetariko giza-eskubideak zapaltzen ebazanak «Eleiz-gizonak» ziran, Asia, Afrika ta Ameriketan, olakorik egiten ez eben artekoak. Baiña bertan euskaldunakaz ez egoan olako «Giza-eskubiderik».

Igarlearen egunetan eta ogeigarren mende onetan be, Euskalerrri osoa, ondo Jaungoikoztuta egoan, batez be base-rria. Eliz-agindu ta Kistar oiturak gogo beroz zaintzen ziran, gurasoak izanik euren ardura ta eragille jatorrenak. Eguneru sutondoan Andra Mariaren agurtza otoi egiten zan, eta bardin eleizaldean kanpaiak jokeran. Jatordu ta ogerakeran be beti otoi egiten zan. Eleiz-Anaidiko eleizkizunetan illero gixtienez autortu ta Gure Jauna artzen zan. Orretarako prail-leren bat ekarten eben gero arratsaldeko «sermoia» egiten ebana, leioak illunduaz. Edurtzarik aundienetan be etzan Mezarik uts egiten. Ta alaxe zan beste eleiz-ekiñaldietan.

Iru edo lau urte barru «Mixiñoak» be egiten ziran elei-zaldean bira bat «Erdu, pakataria» oska egiñaz. Bitarikoak ziran Mixio-itzaldiak: Kistar ikasbidea ipuin eta barregarrie-kaz erakusten ebana, ta negar eragitekoa, pekatu, inpernu, eriotz, Kristoren Nekaldi eta beste olakoak aipaturik, orroi-ka, gogotsu ta samurtasun guztiagaz, egiten zana; ta sarri-tan, berak sermolariak be, eskuetan Gurutzea arturik, negar egiten eban orduan. Gero etzan bape arrigarri, autortzean morrosko sendo ta bulartsuak autorle ta bere kutxan dardar-ka dantzan eragitea.

Jaungoiko-zaletasunezko aro ta giro onek ainbat Mixiolari sortu-erazo ebazan Euskalerrian, mundu osoan zabaldu arte. Aldizkingi baten irakurri neban gaztaroan, mundu guztiko Mixiolarietatik 25/100 euskaldunak zirala. Sendi ugariak izanik, praille ta lekaime joaten ziranak be asko ziran; eta ganera, buru-argidun, aztura ta izaera onekoak ziranez, toki guztietan ziran onartuak eta agurgarrienak.

Komunistak Chinaz jabetu ziranean, Mixiolarien aurka ebiltzazan zigorrez epaitu ta astinduaz. Onelako baten, epaikuntzan Mixiolari batek diñotso bestean belarrira: «Galduak gozak». «Zuek be euskaldunak? Ez bildurtu» —erantzun eban Agintari arteko batek. Eta euretaikoak konturatu baga, poz-pozik arduratu zan mixiolari bi onekaz, Euskalerrirako bidea artu eben arte arazo guztietan lagunduaz. (Mixiolari-Aldizkari baten irakurritakoa).

Politikazko jazpena alde batean itxirik, iñoiz baiño gorenego egon zan Euzkdi, Mixiolari ta eleiz-gizon eta lekaime artean. Aldi orretakoa zan Dimako Domingo Trinitarioa, oraintzungoz doatsutu dabena ta gazterik il zana, ta bide orretan daukiez Karmeldarrak be bi edo iru Indietan Mixiolari izan ziranak.

## ERRI - JAIK eta beste batzuk

Eleiz arazoakaz bat egiñikoak ziran Erri-jaiak, eta Erri bakotxak bere Zaindari egunean, urtero bi edo iru egun jai andikiro egiten ebazan. Gabonetan antzera, erri-jaietan be danak etxeratuten ziran, lengusu-osaba guztiak maikide izanak, eta aurretik Meza-Nagusira joanaz. Meza ostean, Abade Jaun, Erri-Agintari ta eleiztar guztiak, txistularia biribilketak joten aurretik zala, joaten ziran jolastoki edo zelaira, andimandiko «Auresku-Agurra» ta goratzarre bat Agintari-Nagusiai egiten ikustera. Gero etorren «Atzesku» ta dantzan egitea ta Zaragi tokira txurrunplin batzuk egiten joatea. Geroago, astiro ta estura barik, bajoiazan andra-gizon eta

umetxu taldeak euren senidetarren etxerantza, baserrietako bide-soloak-eta, pitxi-loraz antzera jantzita ikusten zirala.

«Erromeria» zan gaztediaren poztasun eta zaletasunik aundiena, Garizuman izan ezik, urte guztirako joásketa zana. Pelotaldi eta beste kirolak ez eutsen ezer kentzen erromerian.


Igande baten, Chillan, Chileko Gotzain zan Martin Rucquer Jaunak, Bergaratik igarokeran, arriturik ikusi eban arratsaldean, bertako enpaantzan, neska-mutillez beterik, jantzan ebiltzazala ta soñu abestiak be bitara edo «duo» egiñaz polito kantatzen. «Geldi emen» esanaz, bere burdi barruan geratu zan entzun eta ikusten. «Onela dantzan egin eta abes-tuten daben erria, erri santua da, ez dago munduan erri obeagorik», esaten eban. Chillan'en ikasle giñala, beti etor-ten yakun agur egitera, bakotxean Bergarako enparantzan ikusitakoa gogoratu ta adieraziaz.

Udaldian erromeriak mendi-tontor eta auzotegi gei-entan izaten ziran, baseleizatxoren bat baegoan. Asteguna izanarren, soloan nekatu arte lan eginda gero, pozik joaten ziran aldraka ta zantzoka ¡aietara, soñu, irrintzi ta kanta, arantzean eta onantzean, baserrietxe ta baso-mendi bazterrak bizitasun eta alaitasunez lurrinduaz. Berez be euskalduna ixilik egotekoa izan ezta, edonungo baserri aldean entzuten ziran egunero txistu, abesti, zantzo ta aupadak, troka bate-tik bestera be, alkar izketak egiten, arri-biziak erantzule zirala. Baserri lanak erdi jolasketan egiten zirala dirudi, gazte bizitasuna be alaiago agertuaz, eta matralla gorridun ume-txoak be edonun agertzen ziran.

Jan-edanak be etxeok eta baserrikoak ziran. Baserri-txe bakotxak bere labatxoa eukan aurren, ogi biribil ederrak, opil eta artopillak erretako. Gero artaburu, sagar, piper eta beste olakoak erreko ziran labatxoan.

Negu aldian txarri edo txaltxuren bat ilten eben, larregi bazan, albokoakaz erdibana egiñaz. Gatzagaz poliki-poliki eratuaz, gorde egiten eben kaxa aundi eder baten, lapikora-ko ta urte guztirako urdai ta okela naikoa eukirik.

Negu aldia etzan geldi egotekoa izaten. Indiaba-arto zuritze ta beste olako eskuartekoak egiten ziran, bitartean neba-arrebak alkarren artean abestu ta ipuiñak esaten ebezala. Andrazkoak geienetan goruetan eta josten ebiltzazan, mai-zapi, izara, maindira ta olakoak ederto landu ta apainduaz. Onetariko oial burdikadak eroan ebazala Amorebietatik zear Lastra, Francoren Gudalburuak, esan eutsan Espinosa nire ikaskideari, gerra edo gudatzen ibili zan Napartar Injineru batek.



**«Profetaren» etxe barrizatua.**

Astelenetan Gernikara joaten ziran alboerrietako baserritarrak, aldarte bat artuaz batera, zeozer ikusi, erosi edo saldu egitera. Goizean Bermeotar andrazkoak be etorten ziran zarata ta zalaparta aundia ataratzten ebela. Olako baten Txatxarramendira joan giñan ikasleok ibillaldi bat egitera, ta suburdia (trena) Gernikako Geltokían geratu zanian, alako

jendetza ta zaratea entzunik, bereala jagi ziran nire Irakasle bi, matxinadea zalakoan «Qué pasa, qué pasa» bidean esaten ebela. Gero barrero etorri ziran barreka ta lotsaturik, olako «Penarik» iñun ez ebela ikusita. Nire aita ta ama be astelenetan Gernikara joaten ziran, zeozer saldu edo erosten. Alako baten nire amak amabi sagar aundi ta ederrak, iñun ikusten ez direanak, eroan ebazan saltzera, ta bereala agertu yakon arriturik erosle bat. Sal-neurria ordaindurik, banan-banan saltzen ebazalakoan, sagar bategaz bakarrik yoian danari erakusten sagar ori. «Ez gizona, ez —idotsan nire amak-sagar guztiak dozuz zeureak». «Ez, andrea, ez —erantzun eutsan besteak, sagar batek bakarrik balio dau ori ta geiago, mundu guztian ez dago olakorik-eta». Beste sagar bat artu eutsan, bakotxa bere besopean eroiala. Izan be sagar ikargarriak ziran areik! Tamalgarria alako sagar mota bat galtzea!

Gernikara ezeze, Durango, Bermeo, Zornotza ta Galda-kaora be joaten ziran Mendatarrak sagarrak saltzen. Bi edo iruren artean, auzoko asto guztiak arturik joaten ziran goizean goizetik merkatura. Itxartuteko txirriñezko ordulari, erlojurik euki ezta, ogeratzean Purgatorioko arimai otoi egiñaz bakarrik itxartuten ziran ordu egin-egiñean. Etxeratzean andrazkoak baziran danak, mendi-basoitsuetatik igarotzean, abots sakonagaz koñaka ta txokor bat agoan pizturik jarraitzen eben, gizonezkoak ziralakoan lapurrik agertu ez ekioen, batzuetan jazo zan lez.

Ezkontza ta illetak kistar erara bakarrik egiten ziran. Ezkontzak eleizan goizetik egiten ziran ezetarik soñu ez laguntza barik, gero eztei-apari eder bat egiñaz. Gure egunetan ondiño banaka batzuk ezkon-burdi edo «arrioagaz» agertzen ziran, soñu jotzaille ta edergailluz apaindurik.

Illetan erri gutzia joaten zan Mezatarra, ta gero bazkai-tera, ardanegi edo tokirik egokienean. Bazkari amaieran «Otoilari» bat bertatik agertzen zan, il ziranen eta etziranen alde amai-bako otoiak egiñaz; bakotxari aurretiaz adierazte bat egiten eutsan, gero Aita gurea, Kredo, Salbe, Agur

Mari edo damu-otoia ezarriaz, bakoxtari otoi egokiena zana. Abade Jaunak alboko gela baten bazkaltzen eben, eta Otoi-lariari entzuteko ixilik adi-adi geratzen ziran, eurak baiño obeto egiten ebala-ta.

Onetarikoak ziran gure gaztaroan Bizkai ta Euskalerriko oitura, egite ta jazoera urtenenak, orain aiztuta geratzen di-reanak.

Igarlearen egunetan be erdi bardiña zan gitxi gora-bera, orduko biziera ta izaera.



«Profetaren» senidartekoak.

**GUDATE - EZAUPIDEAK**

**IRAGARKI - AGERTZEAK**

Mendatako Igarlearen aurrerakuntzako Iragarkiak ogeigarren mende asieraren inguruan agertzen asi ziran.

Dana batera agertu etzalako-edo, oraingo aurrerakuntzak ez eben errian ainbeste koskarik egiten, lenago baten suburdi edo trenak atara eben antzera. Oneik, euren ke baltz, txingar-txipriztin, zarata edo irrintzi zoliekaz eta, buztana antzera, atzetik ainbat kaiola-kutxa, tatarrez eta geldi egon eziñean eroanaz, suge-deabrua zala zirudin. Arrika, Naparroako Erretoreak bere eleiztarrai esaten eutsen: «Inpernuko txistuak entzutean, seme maiteok, belarriak itxi». Ta beste apaiz batek, «roketez» jantzita, isopo ur bedeinkatuz beterik urten ei eban, deabruzko tren orreri, latíñezko otoi ta erre-gu ak egiten. (*Arantzazuko Egutegitik*) Uztaila 11.

Lenengoko txirringulariak ikustean, gure baserritarrak esaten eben: «Auxe bai tramankulu jatorra! Bera bakarrik zutunik egon ezin, eta ondiño gizon bat daroa lepoan!».

Oraingo asmatzerik onuragarriena tximist-argia zan eta bulzkin edo motorra, edozetarako bultz-eragille izango zana.

Laterri aundi ta aurreratuenak laster beraganatu ebezan berrikuntza gustiak, landola ta lantegi barriak sortu-erazoaz. Langílleakaz ze-ikusi asko euki eben, lan-ordu ta lan-sariak antolatu edo zelan eraratu eziñean ibilirik. Aberatsak aberas-tuegi eta txiroak ez eukiago geratzen ziran.

Bilbo be orretan erdi bardiñean ibili zan, maketerritik etorritako langilleak, bertokoak baiño merkeagoak ziralata, euren lantegietara ekarriaz. Onetaitik geienak ez-jakin eta siñiste gitxikoak ziran eta «Sozialista» Bazkunan izentatzen ziran. Oneik be kistar bideratu bear ziranik, ez yakon iñori asmatzen, eta Gotzañaí eurai be, beste ardureakaz beterik,

arentzako Kapellau bat ipinterik ez yaken gogoratu. Bitartean Sozialistak euroen laguntasunagaz izugarrizko matxinadak egin ebezan. 1912 urtean, beste Langille-Bazkun barri bat sortu zan kistar eta eusko abertzaliena ta orrela zerbait bardindu zan langille-zaparradea.

Gudate Nagusi ostean (1914-18) Igarleak esaniko aurre-rakuntzak barriro asi ziran indarra artzen. «Zer ikusi bear ete dozue, zuek gazteok!» esaten euskuen zarrenetaikoak.

Peru'ko Jorge Chavez, Alpes mendiak egazkiñez igarota jatsikeran, Domosola-Italian il zan 1910'Irallaren 23'an. 1927 inguruan ospetsua egin zan Lindbergh, eta gero gure artean Franco, Rada, ta beste batzuk be bai, egazkin arazoa-kaitik, edo Igarleak esaten ebanez: «Aidezko txoriakaitik».

## ERKALDERRIA

Aro onean, Españañ jazoriko egiterik garrantzitsuena eta arduratsuen, 1931 urtean Jorrraillaren 14'an, Erkalderrri edo Errepublikoa agertzea izan zan.

Erri-agintariak izentatuteko bakarrik izan ziran orduko auteskundeak, baña Alfonso Erregeak ikusi eban bere aldekoak uts egiten eutsela, ta erkalderritarrak geiagotuten zirala.

Egun orretan irratiz itz egin eban, beragaitik odola ixurten ez ebala gura iñor ibilterik, eta Españañatik alde egiten ebala, Erriak berak esango eban arte.

Arratsalde orretan Alkala Zamora zuzen joan zan Espe-txetik Gobernu barria ezartera.

Olakorik susmatu ezta, arriturik artu eben danak Erkalderrria, batzuk gaberarte txaloka, gora-goraka ta zarataka, ta beste batzuk, batez be aberatsak, burua makurturik.

Aldakuntza onegaz gauza asko atonduko zireala uste izan eben batzuk, batez be langille ta Lur-lege barrí arazoetan. Bearrezkoa zan ori toki batzuetan, batez be Andaluzi aldean; baiña Jabe barriak, gertu bagarik egon ziralako-edo, ez eben ezer egin.



Gotzaiñak bai, euren «Ugazabak» alde egiñaz, goiago ta obeto begiratu bear izan eutson erriari. Idazki eder bat, Gutzain guztiak izanpetuta, argitaldu eben, egoera barri orretan erriak zelako bidean jarraitu bear eban erakusten eutsana.

Baiña Erkalderria laster asi zan uts egiten, Eleizak erretan eta gero erlejiño arazoetan, beste zer egiñik euki ezpa-lebelez. Eleiz erretzaille gorengoenak Andaluzitarrak ziran, erretan asi baiño len «Aitearen» egiten ebenak. Orretan igerri yaken, eurak gura ezta, erretan ebezala, norbaitek dirua emoten eutselako. Bietakoak ziran diru-emoileak: Sinisgeak, Eleizeari kalte egitearren, eta aberats edo sinistedunak, Erkalderrriaren izen ona galtzearren. Asikeran batez be lenengoak eta gerokoetan bigarrenak, Bilboko Eleiz-zaindari gazteak egiztatu ebenez, izan zirala dirudi.

Primo de Rivera, semeak «Alderdi» barria irasi eban, «Falange» izenekoa, gogorkeriz komunisten antzekoa ta eurekaz beti burrukan ibilten zana. Onetara ebiltzazan, txakur amurratu bi antzera, aurrez-aur ezkertar eta eskumekotar erztekoak, eta azkenian ortara ekarri eben anai arteko gudaketa.

Auteskundietan irabazita, bide on eta zuzenera ekarri nai izan eban Gil Robles, eskumetar agurgarriak, Erkalderria; baiña beste eskumetarrak ez eutsen lagundu. Erdi bardin jazo yakon Lerroux ezkertarrari be. Euroen alegiñak ezerezian geratu ziran.

Españarako erabakitze on bat izan al eikian Erkalderria, ta alegiña, alperrikoa izan zan eta kaltegarri.

## GUDATE - EZAUPIDEAK

Igarleak iragarritako anai arteko gudateak be, bere ezaupideak euki ebazala dirudi, aurretiaz agerturiko ezaugarri batzuk, ulertu etziranak.

Biblia liburuak diñausku: «Zeru-arpegiari antzemoten dautsozue ta etorkizunaren ezaugarriari ez». (Mt. 16, 3. *Itun berria*).

Ezaugarri orreik ez dira, ba, beti zerutikoak edo mirarizkoak izaten, gizaldiak be badaukoz berezko indar eta alizateak, jazoerak aurretiaz jakin edo ezagutzeko. Parapsikologitarak diñoenez, asko ta aundiak ei dira gizonak bere barruan daroazan almenak eta ezkutuzko indarrak, jazoten diran gertaki edo fenomenoak berez jakin eta adierazteko, ta gainera, osasundunak baiño geixoak, bere tentuan ez dagoanak, obeto ulertu ta agituten ei dauz «gertaki orreik».

Onetariko gertaki bat Ezkiogako Ama Birjiñaren Agerpena izan zala dirudí, baiña zerutikoa ala berezkoa zan jakin bagarik geratu gara, orretariko edo antzeko agerkerak gure urtietan sarritan izan dira-ta,

1931 urteko Bagilla inguruan izan zan agerpen ori, ta guk ikasleok, urrengo illean Ameriketara joateko agindua artu gendun, egun batzuetarako etxera agur egitera joateko baimena genduala.

Olako illuntze baten, nire ikaskide Zornotzako Espinosa eroan eben Ezkiogara. Bertaratu ziraneko, ikaragarrizko laguntza egoan Agurtza, Errosarioa esaten otoi beroan. Intzira ta negarzin batzuk baiño besterik ez ei zan entzuten. Bera be samurturik, erdi negarrez egoan. Antolatze ta erakunde jatorra ei zan Abade Jaun eta euren laguntzalleak erabillena. Ixiltasun orretan sasi-ikusle zan «Ramona» zeozer esaten asi zan eta Agurtzalleak «i-xi-llik» orroika esan ei eban, len baiño ixiltasun aundiagoan geratuaz. Gotzaiñak galazo eban Ezkiogan Otoi-Batzar orreik egitea.

Naigabez eta negarrez ikusten ei eben geienetan ikusleak Ama Birjiña, ta munduko lau alderdiak ezpata joten be norbaitek ikusi ei eban. Onetariko agerketa ta ikuste bakanak gitxitu orde, geitu egin ziran geroagoko egunetan, kirio-geixo antzera, batez be Gipuzkoa ta Nafarro erri batzuetan. Unanuako neskatilla batek gorpuiak erreskadan bidez-bide joaten ikusi ei ebazan eta besteren batek Mikel Deuna deabruagaz burrukan. Osagille ta sendagilleak be arduratu ei ziran «Neurosis colectiva» zalakoan. Guda agertzean, aitzu ziran ikuste oneik, egitezko jazoerak zatarragoak ziran eta.

Bitarte orretan neu be Mendatetik Gernikara joan nintzan Eusko-Aldunai agur egiteko Batzarra zalata. Gernikaratutean eta ozen-gailluz itzaldiak entzutean nire anaiak diño: «Au ete da gure Profetak esaten eban *gerra* aurretik Gernikan egingo zan Batzarra...?».

Onetarikoak ziran ba *gerra* aurretiko ezaupideak.

## GUDATE - AURRETIKOAK

Bake-egunetan ulertu eziñezkoak izan baziran len esandako «gudate-ezaupideak», orain 1936'an, auteskunde ta ge-roagoko egunetan, argiago agertzen ziran «ezaupide» orreik.

Itzez, egitez eta idazki bitartez izparringi ta egunkaritan egiten zirean zabalkundeak gorroto, amorru ta guzurkeriz betekoak izaten ziran. Onela, Karmeldar Mixiolari Indietan izaniko Juan Bizente, doatsu izateko danak, egunero irakurten eban «La Constancia» Integristen izparringia, asarez jaurti eban lurrera esanaz: «Ez ekarri geiago olako izparringirik gurera, gorrotoa baiño besterik ez dauko-ta».

Lenagoko urtien baten joan ei yakozan Jose Antonio Agirrerri Erkalderrria bein ondatzeko, bera ta bere Alderdi-koen laguntasuna eskatzen, eskumatar batzuk. Gogorkeriko egiterik berak ez ebala nai, erantzun eutsen Jose Antoniok, eta arrezkero Abertzalien aurka asi ziran zabalkundea egiten, «Erlejiñoa» baiño euren «Aberria» naiago ebela, «gorri» ta «komunistek» zirala, ta beste olakoak esaten, eta gero Auteskundietan, Abertzaleai autarkia emotea «pekatu» zala esaten be bai.

Eusko Aldunak konturatu ziran Erroma ta Batikanon ez eukiela barri-emoille benetakorik eta Eleiztar Agintariak siñestu egiten eutsiela Eskumatarrai, batez be olako Jauntxuen bat euskotarra bazan. Euzkadiren benetako ezagutza Aita Santuak euki egian, Eusko-Aldunak erabagi eben Aita Santuagana eurak Aldunak joatea ta joan be bai, 1936'ko Urte-Barriz, baña orduko Aita Santuaren ate guztiak itxita

aurkitu ebezan eta etxera etorri bear izan eben Aita Santua ikusi bagarik {*Euzkadi y el Vaticano* 19354936, Ildefonso Moriones).

Onetara asi zan Mendatako Igarlearen iragarki bat betetzen: «Aita Santua engañauko ebela».

Eskumatarrak gudaterako Naparroa gertatzen asi ziran, orretarako Karlatarrak eta Abade batzuk be eurekaz alkar-tuaz eta «Rekete» gazteak Mola Guda [buruaren bitartez gu-daterako eraratuten ebezan. Iratxe, leku santuan, eukazan Molak bere Batzarrak Lizarra, Estellan, eta bertako alkate jaun Fortunato Agirrek salatu eban, baiña Jaurbidekoak ez eutsen jaramonik egin, eta matxinadan jagi ziranean, lenen-go il ebena Fortunato Agirre izan zan.

Calvo Sotelo be ibili zan «España Rota» baiño «España Roja» naiago esaten. «Naparroa» berak irabazi ebala Espa-ñarentzat be, esaten eban. Oraingoan beintzat, eurentzako ondo iruzur-egin eta atzipetu eben Naparroa, Karlatarrak be orretan tolesgabe ta baldarrak izanik, euren eskubideak bes-te Alderdikoen eskuetan itxiaz.

Napartarrak lar siñiskor izanik, Erlejiñoa zaintzen ebe-lakoan, eta bakarrik be naiko ziralakoan, danak joan ziran gudara, ta euren euskerea ta gaztedia il eta galtzea baiño besterik ez eben lortu

## 8'garren Atala

### GUDATE TA IRAGARRITAKOAK

(«*Gerria agertuko zala. Bake ale-  
gin batzuk egongo zirala, baña ez,  
gerria beti agertuko zala*». Manuel  
Elorrieta, 29-10).

#### GUDATEA

Alkar anai arteko gudatea etzan «gerra» baten antzera agertu, matxinada antzera baño, ta lenengo illa orretaikoa izan zan.

Calvo Sotelo il ebelata, or, emen, Gudalburu batzuk matxinadan jagi ziran 1936 Garagarrillaren 18'an.

Uririk aundienetan eta itxasontzirik geienetan uts egin eben matxindarrak. Eta Komunista ta dana dalakoak, Agintari baga geraturik, izugarrizko triskantzak egiten ebezan, praille, abade, Gotzain, eleiztar eta osterantzeko gizonik agur-garrienak, il eta il egiten ibiliaz. Donostin emasabeleko andra bat agertu zan kalean deadarka, alkar arteko gudate zatarra asi egin zalata esaten. Ondiño olakorik, ez eban iñok susmatzen, eta, nundik ekian ba andra orrek matxinada orren ondorengoa guda zala?

Barri au irakurri ta jakitean, Mendatako Iragarle ta beste alako «profetaen» batek esanikoa izango zala uste izan neban nik, baiña ez; berezko indarren jazoera bat bakarrik etzan, onetariko andrak berez eta aurretiaz oartu al eikiena.

Komunisten antzera, eskumetar ertzekoak be era bardiñean egiten ebezan ilketak. Eurok be «Sozialista ta Erkalderritarrak» il eta il egiten ebezan. «Sustrairik be ez daitela geratu», esaten eben batzuk. Ilteko ziran moltzo artean agerzen ziran eusko abertzaleak be.

Geroagoko urtietan iñok jakin ezegian, beste tokietara eroanda, an il eta lurperataten ebezan. Onetara jazo zan Errioxa ta Naparro aldian ainbat millaka il egite. «Ez geiago iñor ilterik», deadar egin bear izan eban Iruñako Gotzaiñak geroagoko egunetan.

Ilketaz ganera, eriotz garratza emoteko ardurea artzen eben batzuk. Orretara Urbasako atxetik bera, Urederrera, jaurtitzen ebezan ilteko ziranak. Unanuako neskatillak ikusi ba ebazan aurretiaz gorpu-illak erreskadan ibilten, bide baztarretan, orain be bardin ikusten ziran, ez zutunik eta ibilten, baiña bai etzunda ta edozetara.

Kalahorran be, Erriojako uri baketsua izanarren, ainbat il ebezan. 16 urte inguruko emengo mutiko bat Eres-taldeko tanbor-jotzalle zan, Rioja ta Napar aldeko uri-erriak ondo ezagutzen ebazana. Udakoak lurperatzeko zulogille egin eben. Illobi egitez nekaturik, bera ez doala beste iñor lurperatzen, esan eutsan bere Nagusiari, baiña onek erantzun eutsan: «Gura ezpadozu, egizu azkenengo zulo orí zeuretzat». Eta zuloak egiten jarraitu bear izan eban azkenerarte. Gero andik berrogetaz urte barru, beronek izentatuten eutsiezan senitartekoai nor nun egoan lurperatuta, ta eskerrak beronen, Kalagorritar ta beste bertoko ta Napar aldeko errikoak etxeratu ebezan gorpu-illen azurrak.

Lenengotik irabazi ezta, Franco ta bere Gudalburu batzuk, bakea egiteko eztabaidan edo asmoan asi ziran, baiña Molak, bere Napartar bizitasunaz arroturik, eta Prantzira iges egiteko be erreztasun guztia eukirik, ezetz erantzun eban, bakarrik geratuarren be aurrera jarraituko ebala, esanda. Eskumatarrak be batzarra euki eben, Dagonillaren asikera, eta Musolini ta Hitler'en laguntasun aundiagoa eskatzea erabagi eben. Aprikatik Franco Españera ekarteko, Musolinik bialdu eutsan egazkiña.

Queipo de Llanok Sevilla uria maltzurkeriz beraganatu eban, bertan eukazan gudari apurrak asko ziralakoan agertzeko, beste maillako gudarien jantziakaz be jantzita erabili

ebazan kalerik-kale, ta orretara beste Gudari-taldekoak zirala uste izaten eben.

Gero «mitin» edo antzeko Batzar bat be euki eban enparantzan andimandiko itzaldiakaz, eta Gudalburu batek bere «Gora-gorak» iñoiz entzun ez dan «Gora» bategaz amaitu eban: «Viva la Muerteeeee» esanda.

Iruña ta Gazteizan beintzat, Gudalburu-Agintariak goizaro ilten ebezan norbaitzuek, «Gorriak» zirala ta espetxee-tatik atarata. Meza entzutera yoiazan andrazko batzuk, euren Meza-liburu ta buruko eleiz-zapiaz joaten ziran «gorriak» zelan ilten ebezan eta zelan ilten ziran ikustera. Asarre bizian begirutzen eutsen ilteko ziranak. «Ikusi al dozu? —esaten eben gero andrazkoak zelako begi ta arpegi itxusiaz begiratzten euskuen?» (Karmeldar-ikasle «Celestino» Domingo Garachena Salegui). Olan izatea etzan bape arrigarri, eurak be kistarrak ziran eta.

Bizkaian etzan egon olakorik ez ilketarik eta bertan babetu ta aterpetu ziran praille ta eleiz-gizonak, batez be Santander 'tik etorritakoak. Benetan zan atsedentoki bat, Gudalburu ta eskumetarrek siñestu gura ta alan izatea nai ez ebena. Crisógono, karmeldar jakitun agurgarriak eta, Lauzirikak berak be, emen gorde eben euren burua.

Gudalburuak Madrillen sartuko ziralakoan, eskumetarrek «Gure Jaun artze» aundi ta itzalgarrri bat egiteko asmoagaz gertatu ziran, baiña «Primer Año Triunfal» deadarka egiten ibilarren, ezin izan eben barrura sartu.

Molak, bere napartarrakaz Gipuzkoa azpiratu eban, Irun aldean gudari asko ilda itxita. Errietan sartzean, Gurutz aundi bat aurretik zala sartzen ziran, eleizako kanpaiak jo egiñaz. Uririk aundienetan, Musolinik egin ebala diñuenez, neskatillai burua moztuta, edaritzat berazkoa emonda, kalean ibili ezaoz, iseka ta barreka egiten eutsen abertzale-edo ziralako. Amasei inguru Abade il ebezan; agurgarri ta maitagarrien ziranak, ta beste olako txiskantzak, komunistek be egin ez ebezanak, Izuikaturik askok alde egin eben Bizkaira.

## GUDATEA BIZKAIAN

{«Gernikan Juntea edo Batzarra egin-go zala». M. Elorrieta, 28, 9).

Mendatako Iragarlearen iragarpenik arduratsuenak, gudate arazokoak beintzat, Bizkairako ziran, eta orregaitik zearoago ta sakonago esan eta aipatuko doguz.

Madrilkeko Lege-Batzarretan erdi on-arturik geratzen zan, Eusko-Estatuto edo Autonomi ori, eta bertako Jaurbideak, azken arduan, onartu eban eta Bizkaiari eskiñi, beste Alderdi biak, Araba ta Gipuzkoa, Gudalburuen menpean geratzen ziran-da.

Egite ori Bizkaian ontzat artu eben danak, eta Batzarrean Jose Antonio Agirre ta Lekube autatu eben Lendakari. Onek, Ministru edo Otseintzat bere Alderdikoak artu eban, baña beste Alderdi gustietaikoak be bai, Komunistea be itxi bagarik. Onetara Bizkaiko indar gustiak bat egiñik eta Agintariak gazte xamar izanik, Gudatean arerioari ordea emoteko gertatzen ziran.

1936 urtean, Urrillaren 7'an, Jaurbide ta Laguntza aundia zala, Gernikan, Jose Antonio Agirre ta Lekubek bere Euzkadiko Lendakaritza itz oneikaz zin egiñaz artu eban: «Jaungoikoaren aurrean apalik, Eusko lur ganian zutunik, Asabaen gomutaz, Gernikako Zuazpian, Neure-Agindua ondo betetzea, Zin-Dagit».

Danak bakea ta askatasuna euki dagien, lenengotik agindu eban Landakari barriak, eleizak zaindu ta eleiz-gizonai euren eleizkizunak egiten bakean izteko, esanaz. Eta alaxe izan zan.

Bilbo lako ainbat langilledun uri aundi baten eta «gorrien» artean, eleizak zabalik eta eleiz-gizonak, praille ta lekaiameak be betiko eran euren jantziekaz, kalean ibili eitekezenik, ezin eben siñestu kanpotarrak. Baiña alaxe zan eta etorri ziranak ikusi eben.



Aita Gabriel Garai, karmeldarra, aldi orretan Bilbon egonikoa, etorri yakun urrengo baten Arequipara (Perura) bertan gutziz ezaguna ta adizkide aundikoa zana. Arrera ona egin eutsen eta bereala asi yakozan itanduten, ia zelan igaro eban komuniste ta «gorri» artean, beste alako komunisten egite zatarrerri bat esango ebalakoan.

«Baña, nok esan dautsue zuei ainbeste guzurkeri? —erantzun eutsen—. Ni neu Bilbon egon naz eta an egunero esaten neban neure Mezea ta praille-jantzi onegaz ibili naz beti kalietan eta iñok ez daust ezer esan. Eleizak zabalik egon dira ta Aste Santuan eleizkizunetan iñoiz baño jendetza geiago egon da».

Bere adiskide ziran Josu-Lagundiko praille zartxu bik onetara iñotsen alkarri: «Ikustozu, ikustozu...? Gure Gabriel «rojo-separatista» eginda etorri yaku...!».

Eusko Jaurlearitzak urte onetan euki eban ezbearrik aundienetaikoa, Bilboko bonbaketa ta espetxeratuko batzuk iltea izan zan. Karmelokoak zaindu eben euren burua, baiña beste tokietakoak ez.

## NASTEA

{«*Emengoak bestiekaz nastau egingo zirala*». Iragarpenak 29, 12).

Gudatea asi zaneke, nastatze au eginda egoan. Erkalderria agertzean, polito alkarri lagundu eutsen Euskalerrian Karla-abertzaleak, baiña gero apurka-apurka banandu ziran, «besteakaz» nastauaz eta bakoak bere bidetik ziarduela. Karlatarek Españiko Eskumetarraz batu ziran eta oneik gorroto aundia eutsen Eusko-Abertzaleai, euren menpeko egiten etziralak. Erlejiñoiz iritxi batekoak ziran, baiña politika eskubidez, ez. Orretara azkenengoko Zezellaren Auteskundietan, Abertzaleak ez eben euki nogaz ezkondu, eskumetarraz ezin ebelako ta ezkertarraz ez ebelako nai.

Pildain, Aldun eta Kalonje agurgarriak eta Gazteizko Gotzain Mujikak, alege guztiak egin ebezan Karlatar ta abertzaleak Auteskundietan bat egiteko, baiña alperrik izan ziran euren ekiñaldiak. Eskumetarrak txartxat artu eben Gazteizko Gotzaiñaren egiña ta adieraztea; Guda agertu zanean, sendiz karlatarra izanarren, larri ibili zan Gotzaiña, erbesterau eben arte.

Eskumetarrak eurak bakarrik ziran, ba, «Katolikoak» eta beste iñor be ez, euren menpeko ezpazan.

Abertzaleak Erkalderraren alde agertzen ziran beti ta Gudate bitartean Ministru bat euki eben, Napartar Irujo zana.

Bein Autonomi artzean, geiago alkartu ziran Erkalderrigaz, eta guda laguntasuna bear zanez, al zan tokian billatu bear zan. Orretara aurretiaz, Eusko Jaurlaritzak bialdu ebazan Obiedora bere gudari batzuk, baiña angoakaz ez ziran adiskide mamin egin, Kapellau bat eta gudari batzuk il yakezan. Gero eurak, Asturitarrak eta Santandertarrak, etorri bear izan eben Bizkaira, baiña bertan okerkerik egin ez egien, zaindu egin bear izaten ziran,

Gudaketa Bizkaian amaitu zanian, Santandertar eta aindikoak ez eben nai euren artean euskaldunak ikusterik.

Bizkaian antzera, beste Alderdiko Gudalburuak be, ardua bardiña euki eben Italiar eta moroakaz, eta bertokoakaz nastau egin ebezan, gudroste bat alboan ipiña.

#### «KANPU - ERREÑUETATIK ETORRIKO ZIRALA GERRATAN LAGUNTZERA»

*(Iragarpenak, 29, 13).*

Ikusi dogunez, Kanpu-Erreñuetatik gudariak gerratan laguntzera Españera etortea, Españiko Gudalburu ta eskumetarren «eskaria» izan zan. Eurak nai izan eben besteko laguntasuna emon eutsen. Doixtar eta Italiarrak. Pozik etorri

ziran, ez bakarrik laguntzera, baita be bide batez, euren egazkin eta tramankulu barrien ikasketa ta «probak» egitera.

Erkalmenderriko beste aldera be etorri ziran, euren gudariz, kanpotar gudari batzuk, baiña danen artean gudaroste bat-edo bakarrik lortu eben egitea, beste gudari banaka batzuk bertokoakaz nastauaz.

Gudari geiagokorik Española etorri ez eiten, Inglaterrak eta Prantzik. «No intervención» Batzordea asmatu eben eta ontzat artu ta izenpetu be bai Alemani ta Italiak; baiña jaramonik egin ez be bai, lotsa bagarik gudari ta tramankuluak zenbat gura Españolaño bialduaz. Onetara kaltegarri izan yakon Erkalmenderriari olako Batzordea, guda-tramankuluak nun erosi euki ezta; Erruriakoak atzeratuak ziralako.

Guda Bizkaian agertu zanian, lenengotik etorri ziran bere aurka «Kanpu-Erreñukoak»: Moroak, Italiarrak, Doix-tarrak eta oneik, «Prusionuek», euren «adiezko txoriekaz».

1937 urtean Pazku-eguna Epaillaren 28'an izan zan, eta ilorretako 30'an asi eban Mola Gudalburuak Bizkaian bere gudaketa. Aurretiaz ondo gerturik, bere «reket» gudari ta aipatu doguzan beste Kanpu-erreñuko guda-tresna ta gudariz ondo lagundurik, asi eban, Bilbo bereala artuko ebalakoan. Baiña lenengo ekiñaldia garratza, ta uste gabeko izan yakon, eusko gudarien erantzuna oartuaz. Franco bera be laster agertu zan eusko gudarien zaine, lubaki ta ezkutu-zuloak ikus-tera, gero destaiña egiñaz.

## ZEMAKUNTZAK

Guda gogorkerizko bat Bizkaian egiñaz batera, zemakuntzak be Molak erabili zituan, Bizkaia illerri baten antzera itxiko ebala ta ortarako eskuartekoak ba eukozalata, esanaz. Egazkiñez eta ugarizko txartelen bidez zabaltzen ebazan zemaketa orreik.

Eusko gudariak, lendik mendigoixale izanik, mendi ton-torrek ondo zaintzen ebezan; baiña «prusianuen» egazkiñak

agertzen ziranian, ezkutatu baiño beste zeregiñik ez eben eukiten.

Eusko gudarien ekiñaldi sendo orrek amorrua sortu-erazoten eutsan Molari. Aurreko urtean Gipuzkoa azpiratzea errezagotzen izan eban eta Bilbo arin azpiratzeko itzaropena ia galduta eukan.

Goiz baten Durangon, eleiztar ugari Meza entzuten egozala, egazkiñez bonbaketa izugarritzko bat egin eban Molak, eta Andra Marin autortzen egoan Abade Jauna bertan ilda geratu zan, Santa Anan lekaike batzuk il ziran, eta urian beste triskantza batzuk eginda, agertzen ziran.

Urrengo baten Eibartik Durangora joan bearra euki eban, Napartar Korellako, Pascual Peralta, karmeldar batek, eta ango sarrasketak ikusiaz arriturik, esaten eban: «Durango osoa ez da izan ba beti «Karlatarra...?». Zelan itxi dausie ba Karlatarrak euren uri maitekorra onetara bonbaketaz ondatzen?

Molak napartar guda-indarrak erabili zituan, baiña Karlatarrai jaramon aundirik ez eutsen egiten.

Onetara ta apur-apurka eldu zan Bilbo ondoraño be, baiña berak be joan bear izan eban Burgos'era egazkiñez eta bide erdian ustegabeko egazkiñaren ezbearrean il zan beste batzuekaz batera,

Jazoera onegaz esamesa ta zurrumuru aundia sortu zan, norbaitek «bonba», lerkai bat ipiñi ete ebalakoa; baiña susmo ori ukatu eben, eta geiagokorik etzan jakin.

## KANPAIAK JOTEN

*{«Joko ebezala kanpaiak, baiña ez aren erlejiñoan kasurik egiteko, ze otso amorratuak izango zireala. Geurre gurasoen erlejiñoan jarraitzeko».*  
Naberenenak, 30, 13).

Bizkaian be Gipuzkoan egin eben antzera, Rakete-Gudariak menperatuko erri guztietan lenen-lenengo eleizako kanpaiak joten ebezan; baiña gero «otso amorratuak» edonor ilten ebenak eta gaiztakeri egille agertzen ziran. Gurutz aundi bat aurretik eroiela errietan sarrera egitea, alperrikoa zan, Baita, askok uste izan ebenez, komunisten aurka etozela esatea be, siñestu eziñezkoa zan, euroi zigorraldiak parkatu, gitxitu ta abertzale ta abadeai geitu egiten eutsiezalako. Orrela, Sagarna, abade gazte ta zintzoa, Bizkaian sartukeran il egin eben, eta Larruskain'en zugatzazpi ondoan lurperatu. Aize-bolada baten zugatza, sustraftik urtenda, lurrean jausita geratu zan. Baiña geroagoko baten, zugatz ori berez zutundu egin zan, eta «abadearen» mirari bat zalata, laguntza aundia etorren berau ikustera. Laster larritu ta arduratu ziran Agintari barriak, eta ara joaten iñori ez izteko, Guardizibillak ipiñi ebezan zaindari, badaezpada Santu-toki egin ez egien... Zelan izan leikean ba «Abade-gorri» bat «mirariak» egi-ten! ?...

Amorebietan be Aita Roman Karmeldarra, urte askotan Ikastetxeko Nagusi ta Artekari izan zana, Larrako orma ostean il eta lurperatu eben. Jose Domingo, musikari ospetsua, pralle-gaien Maixua, ta aita Rafael, bertako Nagusia be asmo bardiñagaz atxilotu ebezan; baiña ezkutatuta egon zan Begoñako Txaunburu, D. Bernardo ta beste batzuk, ez ilteko arduratu ziran.

Francotarrak eurak ilten ebezan eusko pralle-abadeak ixilik gordeta, komunistenak beti zabaltzen eta «propaganda» egiten ibiltzen zireala oarturik. Euzkadiko Lendakari, Jose A. Agirrek, irratiz egiñiko itzaldi baten itanduten eban:

—Eta zer diño ba Batikanok? Zergaitik dago ixilik...?

Batikanoren erantzunari itxaron barik, berak Gomak bereala erantzun eban, abadeok Frankok il baebazan «zeozergaitik» izango zala.

Erantzun ori lotsagarria zan edozein Nagusintzat be.

Etxean eta erbestean, kistar zintzoak lez euskaldunak agertzen ziran, eta egite orrek Francotarra amorru aundiagoa

sortu-erazoten eutsen, orretara euren «propaganda» guzurtu egiten ebelako.

Gudate amaieran, euskotar batzuk Meza izten asi ziran, baiña gero barrero asi ziran Mezatara joan eta, Naberanek iñoanez, «euren gurasoen Erlejiñoan» jarraitzen.

## MOROAK

*(«Moroak etorriko zirala eguzkia agertzen dan lekutik». 29, 14).*

Moroak Aprikako Maomatarrak dira, Kistarren arerio beti izan diranak. Zortzireun urte Españan egonarren, Bizkaira etziran iñoiz sartu ta mingarria zan «moroak» Bizkaira etorriko zirala esatea. Naparroako ta beste Españiko Kistar-Erregeak gudaketan eta alegiñetan ibiltzen ziran moroak Españatik uxatzeko.

Clabijo'ko eraso-alditik aurrerantz, Santiago agertzen da moroen aurka Kistarren Zaindari, ta eleizako aldaretan be Santiagoren zaldi zuriaren oinpean agertzen ziran moroak zapalduta.

Baiña oraingo gudan, Gudalburuak eta Españiko esku-metar katolikoak ekarri ebezan Españera, eurai laguntzeko.

Igarleak «eguzkia agertzen dan lekutik» edo Gipuzkoatik etorriko zirala moroak esaten eban. Bere loba Manuelen semeak itanduten eutson aitari, zelan etorri eitekezan moroak Gipuzkoatik edo ipar aldetik Afrika egoaldean egonda?

—Orixe ez dakit ba nik —erantzuten eban—, baiña Profetiak alaxe esaten eban. Eta itaunketa guztietan olantxe erantzuten eban beti. Moroan ardurea beti txantxetan artzen eben bere semeak, eta uda aldiko beroetan goizean goizetik. «Ea, mutillak, gozak solora eguzkiak urten yok-eta» —esaten eutsenian: «ikusi dozuz ba ikusi moroak etorten...?» erantzuten eutsen, eta udaldi guztietan bardin izaten zan.

Baiña gudaldiko egunen baten agertu ziran «moroak» Mendatan, eta Igarleak esan eutsanez, ikusi ebazan, zartxoa zala, bere loba Manuelek «moroak bere etxe aurretik patsatzen».

Moroak intzirika lez itz egiten eben, eta begirakada zoli ta zorrotzagaz bazterrak arakatuten ebezan, ollo ta ollaskorik ederrenak euren zorroan sartzen ebezala, ta iñori jaramonik egin bagarik.

Italiarrak berbalariagoak ziran eta bildurtiak. Ate ondolan txakur aundi eder bat eukan lotuta Manuelek, gogor ausika egiten ebana, ta italiarren aginduz, gorde izan bear eban kortan.

—Ni emen bizi banitza-esaten eban beste italiar batekberton daukozuezan bedar osasungarriakaz bakarrik «millionario» eginda nenguan. Bedarretan au baiño toki aberatsagorik ez da egongo munduan! Eta an ibili zan bedarrak bilatu ta Manuelen seme nagusiari, bedar bakoitza zetarako zan erakusten. Italiar orren esanak idtzita gorde ez ebalako damututa geratu zan geroagoko urtietan.

Mendaturira lenengo etorri ziran gudariak, Beitiko baserrian Faustok artu ebazan, alboko bizilekua utsik egoan-da.

Gero etorri ziran Napartar Injineru bi, ta Etxebarrin, Manuelen etxean geratu ziran. Onen alabeak, Gernikako Karmel-ikastetxean erderaz be ikasita, bereala itandu eutsen, ia egia zan euretaikoak neskatiñai ulea moztu, berazkoa emon, eta kalean barre-irriz erabilten ebezan ala ez. Alkarri kiñu eginda gero, erantzun eutsan batek:

—Baiña, egia da, alan egin dabela. Baiña ez ikaratu, orain ez dabe olakorik egiten. Ez euki bildurrik.

Onetariko injineru batek Bilborantz alde egin ebala dirudi, ta bestea bertan Mendaturi inguruan il eben, tiro edo dunbadadea ze lekutik etorri zan jakin ezin zala; alderdi bietako gudariak egun orretan erdi nastauta an inguruetan ebiltzazan.

Iru eusko-gudari be an galdu ziran Oizpe inguruan, eta bertako bateri itandu eutsoen nundik zan Bilborako bidea, ta arek oker esan eutsen. Euretaikoak ziralakoan, arerioagaz aurkitu ziran, eta bereala il ebezan errukitu barik, euren oñetako ta jantziekaz jabetuaz. Gero Etxebarrin agertu ziran, esaten ebela: «Begira begira ta ikusi zelako txapin eta oñetakoak darabilezan eusko gudariak», eta zelan jabetu ziran soiñeko eder orrekaz be adieraziaz.

Etorri ziran beste gudari barri batzuk be; baserrietako ondasun eta aukera ugaria ikusiaz, esaten eben: «Baña zuek emen danok zarie aberatsak ba ta! ».

Toki egokia zan Mendata gudaterako, baiña kaltegarri guda-tokia bertan Mendatan geratzea; Zarra ta beste mendatar Karlatar batzuk, etorri zirean gudari barriai aupada bat emon eutsien lenbaitlen aurrerantz egin egien Muxika ta Ajangiz aldera joateko. Orrela atzean geratu zan Mendata, Bizkargi ta Lemoaitx alderañoeko guda-eraso-aldiak ikusteko.

Azkenengoko egunean, betiko agindua zanez, baserritarrak euren abelgorri ta eskuartekoakaz Bilborantz urten bear izan eben. Etxebarrikoak be, euren aita ta ama geixo ta zartxoak itxita, illuntze edo erdi gaba zala, urten eben. Baiña gero illunean, troka batetik bestera, itz egiten ibilita, barriro etxera joateko erabagia artu eben, eta alaxe etxeratu ziran auzotegiko beste batzuekaz batera.

Eusko-gudariak, eurak be geienak baserritarrak izanik, ez eutsen jaramonik egin, eta erdeldunak, ezer aitu ez ebenez, etziran arduratu. Orretara nasai etorri ziran mendaturitarrak barriro etxera, iñor eurekaz arduratu baga,

## GERNIKA ERRETAN

*(«Aidezko txoriek Gernika erreko ebela, lau alderditik sua emonda. Prusianuek izango zirala». 29, 15).*



Astelen arratsalde baten, 1937'ko Jorrallaren 26an, Gernika, lagunez bete-beterik egoala, Prusianuen «aidezko txoriek» zeatz erraustu ta kiskaldu eben.

Irune edo laune aldizka ta jarraian etozan egazkiñak euren bonba ta su-bonbak urira botatzen, iru ta erdi orduan geratu barik Gernika birrindu ta erretan itxi eben arte. Illuntze ta gau guztian su-txingarrez beterik geratu zan Gernika.

Eurak bakarrik ziranez egazkin-jabeak, bidean ez eben ezetariko eragozpenik aurkitzen, eta bide batez, an inguruetan eta baztarretan, sagutxoak lez, ezkutatzera joaten ziranak, metralleta izkilluz ilten ebezan, ezetariko erruki barik.

Perutik etorritako Aita Lauzirika Pantziskotarra be arratsalde orretan Gernikara joan zan, baiña agertu ziran lenengozko egazkiñak susmo txarra emon eutsen eta barriro etxerantz egin eban bere Lekaidetxe Forura; baiña etxeratu orduko, beste askok lez, bere burua ezkutaturik gorde bear izan eban.

Bolibarko Txaunburu zan D. Franzisko be, Gernikatik-urrun etorren beste bere lagun bategaz etxerantza, ta olako egazkin bat ikusi eben ker-ker eta zuzen-zuzen eurekana etorrela. Badaezpadan alboko areitz ostean ezkutatu ziran eta zugatz ori zuloz beterik itxi eben. Eskerrak areitzari ta barriro bideratu ziraneko, bira bat eginda, bigarrenez etorri yaken egazkin ori metrallekada bardiña egiñaz. Bigarrenez be zugatz lodikote ostean ezkutatu ziran. «Baiña; zelako amorrua yauskuek ba guri orreik!» —esaten eban Abade Jaunak.

Beste askok ere bardiñean zaindu eben euren burua, zugatz baten ostean ezkutatuta, egazkiñak ba euren azpian edo inguruan ikusten ebezan guztiai bialtzen eutsezan «metralletaren» eskupekoak. Orretara il ebezan arratsalde orretan Munitibarren be, «Errota» deritxon Intxaustiren seme ta bere lengusiña, Mendatako Igarlearen anai izan zanaren ondorengoak. Munitibar bera be gogorrez bonbakatu eben eta metralletakaz il, Gernikan egin eben antzera.

Mendatako Etxebarrin arratsalde orretan Gernikara joateko asmotan ibili ziran, baiña egazkiñen bat-edo ikusiaz gogoratu ziran aitzak ainbeste bider esaten ebanaz: «Gernika erreko ebela», ta iñor ez joateko erabagia artu eben. Alan eta guzti be, alaba gazteena bere lagunakaz Gernakara joateko asmoaz ebillan, kaskallu egiñaz, eta jantzi barriak be ipiñiaz. Baiña bere nebeak matrailleko bi eder-ederrak emon eutsazan, oge gañean negar zotinka itxiaz.

Andik ordu gitxi barru, asi zan Gernikako bonbaketa, ta danak joan ziran etxe osteko arte aundi baten ondora, andik ederto ikusten zan ba zelan erretan eben Gernika. Matralleko bi eder ta «bedeinkatuak» artu ebazana be, an egoan pozik eta negarrez, bere lagunakaz errukiturik. Euroen etxekoneko edo alboko ama, Maria Zubiarrek, «Ener ene! neure umeak! » —esaten eban negarrez—. «Karmengo Ama, jabon egizuz». Gero jakin eben, bere alaba batek errekarra bota gura izan ebala bere burua, erdi zoraturik, eta beste bere lagunak zaindu ebela,

Sugar artean Purgatorioko arimakaz Karmengo Ama ikusten zan irudia, etxe guztietan egoan aldi atan; eta orrela Gernika erretan egoala, gogoratzen eben ikuslariak Karmengo Amaren irudi ori.

Ainbat il ziran Gernikan erreta ta kiskalduta; uritik iges ezin egin izan eben guztiak. An erre zan Bruno, ogi-saltzallea, Mendatara lenago baten bere zaldi-burdi baten joaten zana. Baita Txiro-etxean egoan Badajozko lekaime bat. Bardin il zan erreta, nigaz Perun bizi zan karmeldar Romualdo Zuñigaren anai bat, Mendatako Berrekondo baserrikoa ta Gernikan bizi zana. Neure osaba Leandro Zenigaonaindia Artabillekoa be, Gernikan iltzat artu eben, baiña geroago, andik iru edo lau illabetera, agertu zan bizirik Mendatan! , iñok ezer jakin bagarik, eta beste mundutik etorralakoan, latz-ikara aundia atara eban. Berak be ez eban jakin nundik ibili zan.

Aipatu dogun Arbazegiko «Errota» Intxaustíren lengusu

zan, Omaetxebarria, Gernikako Abade Jaunaren ama be, anxe il zan erreta.

Urrengo egunean-edo, laster beintzat, sartu ziran Frankotar-gudariak Munitibar'en, eta Agintari barriak galazo eben bertako illak erriko Obitegira eroatea, ta bonbaketan egazkiñak egiñiko zuloetan gorpu-illak lurperatzeko agindua emon eben. Onetara eurak egiñiko gaiztakerien ezaupideak galtzen ziran, edo galdu nai ebezan.

## ZARRASTADEA

Gernika erretze orrek zarrastada aundia atara eban mundu guztian, eta gau ortan bertan itz egin eban irratic J. A. Agirre Lendakariak, mindu ta sumindurik, onetara:

—«Egunen baten epaitu bear gauzan Jaungoikoa Ziñaldari dogula, ta geure egiten ta itzak agirian ipiñiko dauzan Edestian begira nozuela dirautsuet: Doixtarren egazkiñak iru ordu ta erdian, gaurdaño entzunbako gogorkeriz, ezetariko zaingarririk ez eukan Gernika uri ospetsua zeatz erre ta lautu artean bonbardeau dabela, egi-egia da. Latz-ikara zoratuenan iges egien andrazko ta umetan izugarria erail dabe euren izkillu-azkarrez atzetik erauzika ziardutsela. Une onetan dantzustan gizadi gizatuari itandu dagitsat nik ia bere azkatasun alde baizen Gernikak eta onen Zugatz urtetsuak ainbeste gizalditan adierazoten izan daben erkalmenaren alde yokatzea gogokoen eta aintzagarrien izan dauan Erria, onenbestean sakaildu ta triskau dagienik yasango dauan» (*De Gernika a N. York*). Gerenabarrenak euskeratuan, 27).

Laster konturatu zan Franco bera be, beretarrak egin eben basatikeriaz, eta zelan urritu ta garbitu jakin ezaz, euskaldunai eurai errua emotea baiño besterik ez yakon bururatu. Ta urrengo egunean, lotsa barik esaten eban bere itzaldian: «Agirre mente» ta euskaldunak eurak erre ebela Gernika, beretarrai alan zabaltzeko aginduaz.

Buenos Aires'en bere Ordezkarri zan Lojendiori be etorri yakon olako agindua, Gernika erre ebenak etzirala izan Doixtar egazkiñak, esaten eutsana, Limako izparringietan ikusi gendunez. Baiña ango egunkari edo izparringi egunerokoak, emetik bost ordu atzerago bizi direanez, astelen arratsaldean bertan, letra aundiekaz, lenengoko orrialdean ipiñi eben «Alemandarren egazkiñak Gernika erraustu ebela», ta urren-go egunean ezin izan eben esanikoa guzurtu, Frankok esanikoa guzur-irain lar aundiegia zan eta.

Ondo diño ba Steer Jaunak, *The Tree of Gernika* idaztian: «Gernikako uriaren erraustea etzan bakarrik ikaragarriko ikuskaria izan. Iñoiz kistarrek entzun dauzan guzurrik zitalen eta biurrikeri dongeenen bide be bai izan zan (Id. Gerenabarrena, 28).

Neu be astelen arratsalde ortan Liman nengoan eta ango laurak inguruan urten nintzan neure lagun bategaz urira ta tximist-burdian sartu giñan eta aurreko aldiaren jazarri, nire laguna atean zutunik geratuaz. Uneda ortan agertu ziran arratsaldeko «Comercio» izparringi saltzalleak «Gernika erretan! Gernika erretan» zarataka esaten ebenak. Biotzikara bat sortu yatan eta nire lagunk bereala erosi eban izparringia. Urrengo geltokian Españaatar Abade bat jatsi zan, eta neure ondolik igarotzean, laztankiro diñaust:

—Zer egin dautsue ba, zer egin Gernikagaz?, erre dautsue zeuoen Jaungoiko-aizun ori? Zer deritxazu?

—Ez daukiela Jaungoikoaren parkamenik —erantzun neutsan erdi esarrez eta danak entzuteko eran,

Olako erantzunik uste izan ezta, zeozer geiago esan nai eban, baiña txartel-zulotzailleak astirik ez egoalata, ez eutsan itxi.

Francotarrak bereala asi ziran Gernikako guzur-irain **ori** egiztuteko egiñalak egiten, ziñaldari billa be ibilirik.

Mendatako neskatiilla bat eroan eben Gernikara aitorle edo ziñaldari izatera, bildurragaitik-edo eurak gura ebena esango ebalakoan. Eta Epailleak itandu eutsan:

—Ikusi zendun zuk Gernika erretan?

—Bai Jauna, bai, Neu be antxe egon nintzan-da, ikusi neban Gernika erretan, eta zeatz erretan.

—Esaiguzu orain argi ta garbi: Nok erre eban Gernika...?

—Suak, Jauna, suak erre eban Gernika. Zer bestek erreko eban ba...! —erantzun eban neskatillak, epaille ta danak muturruts itxirik.

Mendata ikastolako Andereñoa napartarra zan eta guda-riak Mendatetik igarota gero, bere senar D. Juan Pedrogaz Iruñara joateko erabagia artu eben, bertan geratzeko asmoz, Mendata'rak agurturik.

Lenengotik, «deklaraziñoak» egitera joan bear izana euki eben. Andra-gizon biak joan ziran eta gizona bakarrik idazkolan sartu zan bere lagun eta ezagunakaz. Bitartean andrea geratu zan ango areto edo gelan izparringi ta egunkariak irakurten. Gernika errausteagaitik izparringiak iñoanakaz izu-ikaraturik gelditu zan andrea!

—«Ene, ene! —iñoan beragan—. Nire senarrak ez daki guzurrik esaten eta alemandar egazkiñak zelan erraustu daben Gernika argiro ta garbi esango dau, ta gero zer egingo dauskue guri...?

Larritasunezko sasi-itxura ta miñ-aldi «plantak» egitea gogoratu yakon, eta ederto egin be!

Laster agertu ziran bere gizona ta beste batzuk, zer jazo egin yakon jakin gurarik.

—Txarto nago ta guazen etxera-esaten eban-Biar etorriko zara barriro. Ta etxera joan ziran, baiña biaramonian arin joan ziran barriro Mendatara. Laster ulertu eben Mendatarak zergaitik izango zan euren etortze barri ori.

Azkoitiko Estanislao Larramendi karmeldar Anaiak, Mendatako «Oleta» baserritik, ederto ikusi eban Gernika erretan, baita be egazkiñak egiñiko joan-etorri ta ilketak.

Bere errira joanda bere lagun eta ezagunai egite zatar orí azaltzen egoala, andra batek leiotik esan eutson:

—Bai, bai. Ibili olakoak esaten eta ikusiko dozu zeuri be zer egiten dautsuen.

—Neuk neure begiekaz ikusitakoa ezin ete neike ba esan...?— erantzun eutsan, eta badaezpada arin alde egin eban andik, egia esateagaitik zigortu egiten ebela jakiñik. Frankoren aurka zalata, bere jarratzaileak egi ori ixiltzeko alegin guztiak egin ebezan.

Euskaldunen aurka berak Frankok asmatu, esan eta zabalduko guzur eta irain-baltz ori, ez eban iñoiz ukatu, eze-reztu edo parkamenik eskatu, ta zor orregaz joan zan beste mundura. Irain-baltz orren zabaltzaile izan ziran beste askok be, batzuk eleiz-gizonak izanarren, era bardiñean jokatu eben. Gudatean edozer esan eta egin eitekela uste izaten dabe batzuek. Baiña guda ondorean eta bake-aldian jarduera bardiñean ibiltea, benetako gaízkiye izatea da, ta Bizkaian orixe jazo zan.

Anai arteko gudaketan gorroto aundiagoa egoten dala dirudi, ta salatzaileak be geiago, isilpe ta ezkutuan geratzen diralakooan.

## TXIPRIZTIÑAK

Mundu guztia arduratu zan Españiko Gudateagaz eta bere txipriztiñak urrin zabaldu ziran, batez be Europa ta Ameriketean,

Zergaitik eta zelako asmoakaz jagi ziran Gudalburuak ez ekiala, iñoan Kardinal Gomak, baiña egitan eta bere ustez asmo gorengoenak izango zirala (*El Caso de España*, 7).

Lenengotan uts eginda gero, eleiztarren laguntasuna ta Erlejiñoaren alde «Cruzada» izatea ontzat artu eben Gudalburuak, naita Hitler eta batez be moroak euretaikoak izan ez. Euskaldunak be, kistar zintzoak izanik, eureka bat egin-

da ez egotea, eragozpena zan «cruzada» siñeste orretarako, baiña ziralata, ezerezean geratuko ziralakoan, Bizkaian geratzen ziran apur-ondakiñakaitik ez eben jaramonik egin. Baiña gero axe izan yaken, eurak bakarrik zirala kistarrak esateko eragozpenik aundiena, eztabaida gogorrak sortu-erazoaz.

Bolibiako Gotzain batek bere eleiz-gizon Irakasleekaz batar bat euki eban. Laterri guztietakoak ziran Irakasle orreik, batez be «La Salle»koak. Bazkal orduan egozala, Españiko gudaketa zalata, izugarrizko eztabaida, zarata ta asarre sortu zan, bera Gotzaiña be, ikaratuta geraturik. Alako matrakea ixildu eragiñik, onela iñotsen:

—Zuok, eleiz-gizon eta Irakasle zareanok eta alkar-maitasuna beti erakusten zabilzanok, Españatik ain urrin egonda onelako asarrean bazabiltzaz, zer ete da bertan Españan...? Oraintxe konturatzen naz obeto ango gogorkeri ta ilketa guztiakaz.

Neu be alakoen baten Liman bedeinkapen bat egitera joan nintzan etxe batera, ta ikasle ziran neskatilla asko batu ziran bertan etxean. Gitxien uste nebanian, neskatilla talde txo bat urreratu yatan itaun onegaz:

—Zer deritxazu zuri Españiko gerra edo gudate ori?

—Tamalgarria dala —erantzun neutsen nasai ta bake-tsu—, anaiak anai artean alkar ilten ibiltea. Bertan olakorik iñoiz agertu ez ikusi ez daiten, erregutu egiozue Ama Birjiñari.

Bereala ta alde egiñaz batera, asi ziran euren artean danak zarataka ta barreka, bakotxak bere irakasleak esandakoak barriz esaten. Gerotxoago barriro etorri yatazan «Parkatu, Jauna» esanda, itaun ori zergaitik egin eustien azaltzera. Ta euren Irakasle direan. Españatar eleiz-gizon eta lekaime guztiak, Españiko «gerra» ori aipatu ta entzunaz bakarrik, asten zirala asarre-aldi bizi-bizian iñundiko dongakeriak esaten. Eta nik esaniko erantzun baketsu ta zentzunezko bat, lenengoz entzuten ebela, ta orregaitik zorio-

nak emoten eustezala. —Eleiztar Aldizkariak be orretariko dongakeri ta guzurkeriak ekarten ebezan, batez be Texas'ko «Revista Católica, S. J.» zanak. Alako baten, ez dakit nun-go ta noizko argazki bat ekarren, eleiz-edontzi ta jantziekaz barreka ta iseka egiten, eta Bizkaiko Yurren jazorikoa zala, eta orretara beste guzurkeri asko esaten ebazan.

## GOGORRENA

(«Oka aldetik Bermeora izango zala gerraterik gogorrena») 29, 26).

Oka aldetik Bermeora esaten eban Igarleak izango zala Bizkaian gudaterik gogorrena. Oka alde ori Bizkargi ta Lemoaitx izan ziran, mendi-tontor biak, egunez egazkin bitartez irabazten ebezanak eta gabaz euskaldunak berrero jabetuten ziranak tontortxu bi orrekaz, eta orretara luzerotxoan.

Bermeo aldian be okerrekoen bat euki eben Italiarrak. Limako «Prensa» izparringian izki aundiekaz lenengo orrialdean agertu zan egun baten, «Bermeoko andrak leiotik bera, itxasora, botaten dabez italiar gudariak», esaten ebala.

Olakorik ez eben susmatu antza Frankotarrak Ibarruri ta Zornotzaraño eldu ziranean. Ibarrurin pozik ebiltzazan alkar-izketan, eta eurokaz Alkate izateko zan bertako Sakristau. «Iru egun barru-edo, Bilbon gagoz» esan eban bateg. —Iru egun barru? Iru illa ezpadira gero...?— erantzun eban Sakristauak. Eta an asi ziran izketa matrakan. Saltzaile edo «traidor» zalata, beste barik il egin eben Sakristau gixajoa, ta lurperatu be, saltzaileak lurperatzen ebezan antzera, lurperatu eben orretarako ezaugarri bat ipiñita,

Zornotzara eldu ziranak be, Aita Roman agurgarria, neu-re ta beste karmeldar ikasleen urte askotan Zuzendari izan zana, iñolako azterketarik egin barik il eben Larrako baratz-orma ondoan.



Aita Roman, Leon Urriaga Elezburu zan, Zaldibar Bizkaikoa. Il ebenien 49 urte eukazan, Zzellaren 20'an urte orretan eginda.

Politika arazoan ez eban ezer iñoiz esaten eta zetariko ete zanik ez ekian iñok. Orregaitik ikera bidean eroiela, esan eta itanduten ei eban: «Baiña zergaitik il bear nozue ba...?». Eta barriro be: «Esaidezue zer dalata il bear nozuen...?». Eta erantzunik ez eban iñoiz artu. Baliteke eurak gudariak be ezer ez jakitea.

Etxanora etorritako gudariak «Oriamendi» Gudaroztekoak ziran, Gudalburu Nagusia Genaro La Lastra zala ta bere urrengokoak, Tolosatar Serapio Altuna ta beste Armen-dariz bat, eta euroen Kapellaua Luis Intxaurraundieta.

Aita Roman Altzoko Karmeldarretan Irakasle urte batzuetan egon zan lez, ezagunak ziran beretzat ango erri-aldekoak. Beste egun batzuetan joaten zan lez, egun orretan be ezetariko bildur barik joan zan bere makillagaz Etxanora. La Lastrak nor zan jakiñaz bakarrik su-izkilluz praille ori iltea agindu eban, eta il bear izan eben gudari taldekoak Legorretako guda-mutillak izan ziran. Oneik gudakin edo «trofeo» antzera gorde eben prallearen makilla ta gero txandaka jai ta egun aundietan arro-arro erabilten eben makilla ori.

Baiña geroko gazteak barreka ta iseka egiten ei eutsen gudate guztian makilladun pralle zartxo bat il baiño besterik ez ebela eginda esanaz. Arrezkero ainbeste bider eta arrokeriz ez yakezala ikusten, esan euskun Legorretako gazte batek, Altzon euki gendun batzar batean.

Aita Roman il eben egunean, Larrako Lekaidetxean, kuru ondolik sotilki doan kiribil-zurubian ezkutatuta egon ziran Aita Rafael etxeko nagusia ta gazteen Aita-Maixu Jose Domingo Musikagile ospetsua.

Ate guztiak zabalik itxita, pralle biok ezkutaturik egozala, norbait sartu zan korura ta dei egin be bai «padres» edo olako bat esanda. Oiñ-otsetan gudarien bat zala ezagutzen zan. Erantzunik artu ez ebanian, joan zan barriro etorri zan lekutik.

Andik gitxi barru, zunpaketa-bolada bat entzun eben pralle biok, eta: «Ene! norbait il yuek ba!», asi ziran izukaraturik alkarrri esaten. Emen ez da iñor geratuta, nor ilgo ete eben ba? Eta nor izan zeiteken ezin eben susmatu.

Geroago jakin eben, il ebena Aita Roman izan zala, ta korura etorri zan gudaria, «Aramayo» Aita Romanen ikasle izanikoa ta beretzako laguntasun billa etorriko zana. Au gero Benezuelara joan zan eta bere barririk etzan jakin.

Aita Rafael eta Jose Domingo, ezkutatuta egonda gero, ezer kaltegarrikerik eukiko ez ebelakoan, poziker agertu ziran. Baiña ara: gitxien uste izan ebenian, biok atxiloturiker eta ilteko asmoagaz eroiazan, Gudalburuak baietza bereala emongo ebalakoan. Baiña bitartekotasun batzuekaz, esan dogunez, lagunduriker, Durangoko Epailleagana bialdu ebezan.

Auzitegian Epaigillea agerturiker, zetarako dakarzuez pralle bi oneiker, itandu eban, eurokaz zer egiteko asmoz? Eta pralle bi orren atzean egoan zaindari batek, eskua samatik igaro eban, ezer esan bariker, ilteko zireala esan guraz. Baiña Aita Rafaeleker bere begi bizkorragaz ikusi eban zaindariaker egiñikoa, ta orduintxe bai, galdu ei yakon bere adore guztia.

—Ez ete dozue Gudalburu artean iñor ezagutzen?— itandu eutsen Epailleak. Eta erantzun eban bereala Jose Domingok: «Auxe ta bestea ezagutu dodaz Gazteizen». Eta ara bialdu ebezan. Baiña emen ez eben laguntasuniker aurkitu ta espeteraturiker geratu ziran (*Aita Rafaelen esanetatik*).

Gerotxoago baten, bera Genaro La Lastra Alsasua inguruan ez-bear baten il zan.

## BILBO ONEAN

{«Bilbo, onean konpontzen ezpazan, erreka moduen eroango ebela kaleak odola», 29, 17}.

Eusko gudariak ondo baiño obeto egiten eben gudaketan, baiña arerioaren ainbat egazkiñakaz ezin eben ezer areratu.

Eusko Jaurlaritzak ez eukon egazkiñik eta nun lortu be ez. Orretara ezin eban Bilbo ondo zaindu; ta, kalterik gixienekaz, dana ondo konpontzea erabagi eban, batez be bizitza arazoan.

Lenengo Bilbotar umeak izan ziran egazkiñakandik urruneratu bear ziranak. Ogei milla inguru ume joan ziran Inglaterra, Belgika, Prantzi ta Rusiara be bai gura izan ebenak, baiña danak euren gurasoak izenpetuz.

Zelako bildurra ta ardurea eutsen umeak egazkiñai Inglaterrako andereñoak egiztatu eben. Eurak entzuten ez eben egazkin durundadea urrundik entzunda bakarrik, bereala ezkutatzen ziran, sagutxoak lez, eta eurak ezin ziran konturatu zergaitik zan ori. Gero egiztatu eben egazkiñen durundadeagaitik zala, ta areik etzerala Bilboko egazkiñak siñestaziten ibili bear izan eben.

Negargarria izan bayaken Bilboko umeai erbestera joatea, mingarriago izan yaken geienai geroko urtietan etxera etortea, buru argiago ikusirik, euren guraso ta anai edo nebak espetxeratu, erbesterratu edo su-izkilluz il ebezala jakiñaz (*Deia*, 11, 7, 82, Dorothy Legarreta, «*La Generación de Gernika*»).

Abertzale, euskaltzale ta beste askori be, Prantzira naiz erbestera joateko igarobide ta erreztasun guztiak emoten eutsezan, eta sarritan eurak aurretiaz iragarri ta jakiñ-eraziaz. Bilboko Karmelora be baten baiño geiagotan deitu eben urrutizkiñez ia praillerik baegoan erbestera joan gura ebanik.

Euzkadiko Jaurlaritzak ondo susmatu eban, ba, eurak alde egitean, Bilbon zer jazoko zan, eta orregaitik arduratzen ziran.

«Lauaxeta», Mungiko eusko olerkari ospetsua, berak bape uste ez ebala, Gernikan atxilotu eben eta Gazteizko espetxera eroan, An ezagutu eban Aita Sabino Alonsok, Le-

rin'go napartar karmeldarrak, eta laster su-izkilluz ilteko zala jakin ebanian, alegin guztiak egin ebazan bere alde Nagusien artean, Lauaxeta gazte ori «Aingeru» bat zala esanda, baiña alperrik izan zan bere ekiñaldi guztia. Ilda gero be barriro esan eutsien: «Jakin egizue, ba, Aingeru bat il dozuela ta ori Jaungoikoaren aurrean erantzun bearko dozue».

Zelakoa zan Lauaxeta ori jakiteko, azken orduan idatzi eban Azkenaia eda testamentua irakurtzea baño besterik ez dago.

Gero Aita Sabino Chilera joan zan eta itxasontzia Callao-Liman geratzean, ango karmeldarregana joan zan bazkaltzera, ta an esan ebazan Lauaxeta ta beste alakoan jazo erak eta Francotarren egitadak. Eta «Cruzada» ta olako esateak guzkeriak baiño etzirala.

Erbestera joateko ezbaian luzero egoniko Karmelo-Bilboko iru pralleak be, azken orduan urten eben andik Prantzira, baiña emen ez eben aurkitu lekurik eurentzako. Orduan Prantziko Jaurbideak, Sozialista izanarren, ordaindu eutsen Beljikara joateko bidea, Flandes'en Karmeldarrak daukoen Ikastetxeraño. Esker onez gogoratzen eben eurekaz Prantziko Nagusik egiñikoa, Irutatik bata. Karmengo eskal-aldizkariaren Zuzendaria, Pio Aba zan. Eta beste biak, Plazido Astobiza ta Urbano Mansizidor, irakasleak. Irurak bata bestea baiño otzan eta bigunagoak.

Geroago baten Mansizidorren anaia zan Kermeilda Limako Nagusiak Peruko Agintariekaz lortu eban irurak Ameriketara joatea. Agur egitean, Flandesko Nagusiak emon eutsen ordurarte gordeta euki eban Burgosko Gongotzaiñaren «Exkomunio-parkaziñoa». Arriturik artu ta ikusi eben alako txartel barregarria, iñoiz susmatu be ezin ebena! Ordu onean alde egin eben Bilbotik!

Euskadiko Jaurlaritzak ezin ebazan ezkertarrak egiten ebezan okerkeri guztiak zaindu. Larrako Ikastetxe-Jauregia erre egin eben andik urtekeran. Gatikatik alde egitean, eleiz-

dorre eder ta polita asturitarrak apurtu eben, eta orretara beste apurtze ugari. Bilboko zubi batzuk be ondatu ebezan eta geiago egin ezpaeben, astirik euki ez ebelako izango zan.

Espetxeratukoakaz be etziran aiztu Euskadi Jaurlaritzakoak eta iñok ezer ez ekiala ta lubakiak egitera ioiazalakoan, beste alderdiraño bialdu ebezan bizirik.

Gero eusko gudari talde bat Bilbo zaintzeko itxita, alde egin eben danak andik. Onetara konpondu eben «Bilbo onian». Baiña beste alderditik etorri ziran barriak, ez eben olako begirune ta kutuntasunik iñogaz euki, ta bertan Bilbon geratu ziran gudari taldekoakaz be ez,

Gero eusko gudariakaz Jaurtaritzak euki eban ardurea.

Manzini Italiar Gudalburuagaz ituna eginda gero, Santoña urian menperatu zan Eusko Gudarostea, emendik itxasontzietan Prantzira joateko asmoaz. Baiña ez dakit noren erruz, oker urten eutsen asmo ta erabagi orrek. Falanje ta españarrak be nastau ziran eta beste toki batera eusko gudariak eroateko atxakiaz, bertan bidean bat itxi barik danak ilteko asmoa ta erabagia euki eben. Lortu eben olakorik ez egitea, baiña gero espetxetan era bardiñean ibili ziran egunero norbaitzuek ilten. Ori obeto jakiteko, irakurri zeinke Kapitan Ramón de Galarzak bere ordezko izenagaz idatzi eban liburua (*Historia de un condenado a muerte*, Rafael de Garate).

Bilbo onian itxiarren, erdi bardiñean isurten zan euskal-odola, baiña ez bioena lengo antzera.

## 9'garren Atala

### TRISKANTZAK

#### ETXEAN GERATUNEAK

(«Berrogei urtean ez gendula entzungo txorien kantu baiño beste kantarik». *Naberenenak*, 31, 20).

Bilbo menperatu zanian, askok esango eben «gureak egin yot», eurentzako guda amaitu zalakoan. Baiña ez. Gudaketa zatarrago ta mingarriagoa orduantxe asten zan, izkillo ta zainpe barik iraun bearko zan. Gudari izanikoak eta beste gizon gazte askok ibili bear izan eben ara ta onera espetxeetan, langille-taldeetan eta beste olako moltzoetan, zer jan eta nun lo egin ez eukela, ta beste batzuk Teruel eta Ebroko guda oinetara joan bear izan ebela.

Gorozikako neure ezkon-senide bat izan zan Bizkaitik lenen urten ebenen taldekoa, ta erritxu baten lagunpillo aundia ei egoan bidean, eurak ikusteko asmoaz. Andik igarotzean, umetxu batek esan ei eban: «—Amatxo, ez daukie ba adarrik...! ». Eta beste batek:— Buztanik ez daukie bata...! ». Eta urrengo batek: —«Orreik be gu lakoak dira...! ». Ta olaxe aldendu giñan arte. «Zelako amorrua ta gorrotoa ete yauskuek ba guri orretariko gauzak umetxoai erakusteko?» esaten eban— eta gero «separatistek» gareala! Nor ez olako gauzak entzun bear izan ezkeru? Neure gudaldi guztian, erritxu ortan baiño biotz-min aundiagorik, eneban artu».

Pasiotar Aita Patxik eta beretarrak be Gazteiztik S. Pedro de Cardeñara joakeran, itz bardiñak eta antzekoak entzun bear izan ebezan: « [Pero si no tienen cuernos! » bertan Gazteizen, Mirandan eta, batez be Burgos'en. Emen Cardeñara joateko itxaron bear izan ebenez, laguntza aundiagoa etorten zan eurok ikustera, «Gorriekaz» pralletxu bat egoala otoi egiten eta euretaikoa zala jakiñaz arriturik!, axe bera be urkatu bear zala esanik (*Aita Patxi-Testimonio*, 122).

Aita Patxi, Zamudio aldian Dañobeiti baserrian egonda bereala, menperatu eben bere lagun batzuekatz eta euren izkilluak eskatu eutsiezan. Aita Patxik bere eleiz-liburu, gurutza ta agurtza erakutsirik, «onexek dira nire izkilluak», esan eutsan, «Kapellau naz-da». Besteak, neu be Kapellau naz-da badaroadaz izkilluak esanda, matrailleko bi ederrak emon eutsazan. Kristoren ordezeko batek ori egitea... Siñestu be eziñezkoa! » (id. 99). Onetariko ta beste jakingarri asko ikusten dira liburu orretan, baita espetxietan euki ebezan gose, nun lo-egiñik ez, eta beste estu-larria be.

Santanderko D, Serafin, Pontones'ko Abade Jauna be gudate asieratik Bilbon babestu zan, eta andik urtekeran, espetxeratuakatz batera joan bear izan eban. Espetxean ez ei egoan danentzako lekurik ez jatekorik, eta Giputz morrosko bi ederrak ikusi ebazala gosearen gosez komunetik naranja azalak atarata jaten, esaten eban.

Gero be Agintari barriak era bardiñean jarraitu eben, zazpireuntzako bakarrik zirean espetxeetan 2.437 gizon espetxeraturik lurrean edo ol gañean etzunda egoteko lekurik be euki ezaz, aipaturiko «Diario de un condenado a muerte» liburuak diñoanez. Ia egunero eroaten baebezan espetxeratuok iltera, beste ainbeste gizon barri espetxeratuten ebezan.

Zigorraldiak be ikaragarriak izaten ziran: «tortura» «garrote vil» eta beste olako oñaze ta zigorrak. Urkatuak be egon ziran. Onetara jarraitu eben urrengo urtean be. Gabon inguruan Bilboko «Gazetak» agertu ebazan espetxetik txandaka iltera eroaten ebezanen izenak, baña gero ixildu zan.

Espetxeratuok eta urrunetara joanikoak ain txarto ta larritasunetan ibili baziran, etxean geraturikoak etziran obeto ibili.

«Kamioi» edo zama-burdietan gizonez beterik eroiezan intzirika ta deadarrez «iltera garoiez» esaten ebela. Ta ori egun batean eta bestean eta urrengoan, igaroten ebezan auzotegi ta erri guztiak izuikaratz itxirik.

Bilboko sendietan edozein ordutan sartzen zan Polizia, bertako gizona ikera edo espetxera eroatek. Bere emazte ta umeak, aitaren praka-besoetatik dindilizka ta negarrez dea-darka, tatarrez-tatarrez, eroiazan ateraño, ta an gogorkeriz sartzen eben gizona euren burdian eta erobatan eben, sendi guztia negar-zotiñean geraturik.

Ori ikusiaz bakarrik, edonori etorkion negarra begira; eta eurak, Poliziakoak be, biotz gogorrek izan bear orretarako. Olako negargarrizko egiterik, ez ezartearren, Leon edo Salamankako «Polizia» batek, geixoaren atxakiz, eskatu ta lortu eban Bilbo tik eta Bizkaitik alde egitea, beraren adiskide batek esan eustanez.

Derio'ko Obitegi ondoan bizi ziranak, gau-ta egun eta lorik be egin eziñaz, ainbat ilketa, dundaba, intzira, ta negar-deadarrak entzuteaz zoratuko ete ziralakoan, alde egin bear izan eben andik eta beste toki batera biziten joan.

Polizi-Agintariak edonoren salakuntzak egitzat artzen ebezan eta naikoa zan abertzale zala esatea ilteko edo espetxeratuteko. Bearrezkoa zan «karnet» edo igarobide bat aldean aukitea, ta ori lortu ezin ebenak Udaletxeko edo Eleiz-Nagusi baten «Agerbidea», naikoa izaten zan azke ta ardura barik ibilteko. Bestela espetxeraturik geratzen zan bat, eta il zorian. Guzti ori ondo jakiñarren, praille Nagusi batzuk «Certificado» emoterik ez eben nai izaten, euroen ongille izanda be. Ori jazo yakon Juan Tomás Aperribai karmeldar baten lobeari, Bilbon Lekaretxe bat erre ez egien gau guztietan zaintzen egonda gero, «Agerbide» ori ez emotearren, urte batzuk espetxean egon bear izan eban gazte orrek, eta orretara beste askok. Esker onik ez agertzeko, oba izan ete yaken, ba, pralleai euren lekaretxe edo eleizak erre egitea...? Ala zeozarren bildurra euld ete eben? Bestela, siñestu be eziñezkoa!

Egia da Frankotarrak asieratik agertu zirala eusko aberzaleak eta euren laguntzaleak ilten eta gogorkeriz zigortuten. Komunistai, erbestean «propaganda» egiteko ezpazan, jaramon aundirik ez eutsen egiten. Euren eidñaldi, asmo ta



ardura guztia, «eusko-izaera» sustraitik galdu-erazotea besterik etzan. Orregaitik galazoten eben eusko-lurrun edo usaingarrizko edozer gauza: eusko abesti, dantza, kirol, joñas-keta, ikurrin eta abar, eta euskeraz itz egitea be bai. Abade bateri Mezan azkenengo iru Agur Mariak euskeraz esan ebalazako, diru-zigorra emon eutsoen. Iñok erderarik jakin ezta be, Mezako itzaldi erdia gitxienez, erderaz egin bear izaten eben Abadeak, naita aurrean euken Alkate Jauna lotan egon.

Bildur-ikara ta gogorkeri oneik etziran bakarrik izan lengo egun edo urteetakoak, geroagoko urteetan be bardin jarraitu eben ixillago, baña «tortur» oñazez eta Polizi bidez, Franco il zan arte ta zerbait geiago.

Polizi-Agintari gaiztoenak, Manzanos antzera, Euskalerrira bialtzen ebazan Madrilleko Jaurlaritzak, euren okerkeri ta barregarritzko guztiak ixildu ta santuaz. Irrati ta gero telebista osoa eurena bakarrik zan lez, Españiko errietan ez urietan, ez eben Euskadin jazoten zana ezer jakiten, bertoko gauza txarrak eta gorrotodunak ezipaziran. Onetara ipinten eben Espain erria be Euzkadiren aurka, ta emengo goraberrak siñestu eziñean, geratu ziran.

Jakin izan bagendu jakin nortzuk eta zelakoak ziran etorri yakuzan «otso amorratu» oneik, zer-edo-zer geiago egingo genduan, esaten eustan Bilbotar batek. «Ez aitzu ba urrengorako» erantzun neutsan, eurok ezipadira, antzeko batzuk agertuko yatzueza-da.

Nabereanek esaten eban Igarlearen iragarpena: «Berrogei urtean ez gendula entzungo txorien kantu baño beste kantarik», guztiz garbi, oso-osorik eta larregian jazo ta bete zan.

Guzti ori egia dala ezin leiteke ukatu.

Euskalerrriak, Euskalerrri danetik ona, ez dau onelako triskantzarik iñoiz ezagutu!

## ABADEAK

Emen esan dogun «triskantza» orretan, osterantzeko gizonak beste, Abade Jaunak be iraun eta jasan bear izan eben.

Gipuzkoan beste Abaderik, Bizkaian ez eben il, baiña al ebezan guztiak baztertu edo espetxeratu ebezan.

Euskal-zale izaniko batzuek, susmo txarra artuta, aurretiaz alde egin eben, baiña geienak, politika arazoan iñoiz etziralala nastau ta berton geratu ziran.

Gudaritza aldiko «kinta»-ko praille abade gazteak Bizkaian Eusko-gudari Kapillautzat artu ebezan, Aita Patxi anzera, ta Bilbo menperatzean, bertan geratu ziran, espetxe ez beste ezetariko susmo txar barik, eta Frankotar Agintariak Arriaga antzekian danak batu egiteko agindua emon eutsen, eta antxe geratu ziran atxilotuta giltzapetuak.

Epaiketa bat egiteko asmoaz nor zer zan jakiteko, lekai-detxetan be salatari billa ibili ziran, Bizkaian be ondiño Frankotar-zale asko egozalata. «Fiskala» bera be Bizkai errietan ibili zan espetxeratukoan apaikuntzarako euroen zikin-keri ta ziztrinkerri billa, euren arerio ta adiskide artean be, zer-esan asko ta saleketa ugari artuko ebalakoan.

Epaikuntzan: —Zer esaten zenduen zuek zeuen sermoietan?— itandu eutsen Epaileak,

—Kristau-ikasbideak, Mandamentu ta Sakramentuak, Pekatuen parkamenak, Zerua ta Inpernua, —erantzun eban batek.

—Bai orixe! —esan eban Epaileak—. Zuok barriketa asko «pekatu» ez diranetan, eta «pekaturik aundiena dan «Separatista» izateari, jaramonik be ez!

Beste bateri itandu eutson ia maite baeban ala ez España.

—«De internis non iudicat Ecclesia»— erantzun eutsan. Barrukorik ez dau epaitzen Eleizeak be, ta maitasuna norberen barru-barruko zerbait da.

Beste batek bera errubakoa zala erantzun eutsan, eta etzala iñoiz politika arazoetan nastau ta azaldu.

—Zeure anai-praileak salatu zaitue, ta zer diñauskuzu guri...?— esan eutsan. Lekaide artean be egon ziran ba «salatariak».

Agertu zan «Fiskala» edo Salatari Nagusia, ta onek esan eban: «Ni neu ibili naz erririk-erri eleiztar-gizon onein okerkeri, zikinkeri edo olako zerbait billatzen euren arerio ta ezagunen artean, eta «Desgraciadamente» «zoritxarrez» ezin izan dot ezer aurkitu».

«Desgraciadamente» esate orrek zaust egin eutson Aita Rafael karmeldarrari, bere biotzean. Zer gura ete eban orrek gu izatea, zikin eta okerrak...? Baiña berak Fiskalak baiño obeto, ta gura ezta, nok egin eikean olako gorespen aundi, eder eta goragariagorik eusko Abadeen alde? Onela errurik-eza egiztatuaz, Epailea bera bai agertzen zan errudun, olako Ziñaldari ta Aitorle bateri jaramonik be egin barik, ezetariko errubakoak orretara espetxeratuz.

Gero espetxetik espetxera erabili ebezan. Bilboko Karmelo, ondorean Nanclares de Oca'ra joan ziran. Emen Sestaoko Abade bat il yaken *La Huerta* abizinekoa. Santa Agedara eroan ondoren.

Urrillaren 16 inguruan eroan ebezan Dueños'era, «Trapa» eremutar lekaideak euki eben ollotegira ta tresnak eta tramankuluak gordetan ebezan lekura. Konpondu bear izana euki eban toki arek, baiña zeozer bakarrik konpondu eben, ondiño tellatutik izarrak gabaz ikusten zirala. Emen be beste Abade bat il yaken, Elorrioko txauburu izaniko Juan Izurategi Jauna, 75 urtegaz.

Emen igaro eben negu guztia, Europako Guda agertu zan inguruetaraño, ta emendik Carmona-Sevilla'ra bialdu ebezan, antxiñako karmeldarren lekeratxea izanikoa ta Mendizabal jabetu zanetik, utsik geratu zana.

Janarirako 1,15 emoten ei eutsen asikeran eta gero 1,50, ta 2,50. Neskatiilla bat etorten ei yaken itzaldiak egitera ta an barruan egon ordez «apostolado» egin bear ebela esatera, Andaluzian euren bear-izan aundia egoalata. Orretarako alegin batzuk be egin ebazan, baiña Agintariagandik ez eban asko lortu. Neskatiilla au orduan Espetxeetako kapellau orokorra zan gasteizatar Zulueta jaunagaz etorri zan, itxura danez.

Nor zan bera itanduten eutsoenian, «Señorita Cero» erantzuten eban.

Besteiro, Centeno ta beste olako politikuen bat izan ezik, beste guztiak eliz-gizonak ziran eta geienak euskaldunak, Burgos, Santander edo olakoen bat ezpazan. Mendatako Abade zan Fernando Markuerkiaga be an egon zan eurekaz.

Abadeen baten urrezko-ezteguak ziralata, gomutakitzat argazki bat eskatu eutsoen euren Zaindari ta Nagusiari, ta bera erdian jezarririk irurogeta ainbat lagunen artean, atara eben argazki ospetsu ori, gero bakotxak beretzako ta adiskideai emoteko erosi, ta zabaldu ziran mundu guztian argazki orreik, Frankok espetxeraturik eukozala praile-abadeak ondiño ikusirik, eta egiztatuaz. Bereala kendu ta zigortu eben espetxeko Zaindari ta Nagusi ori, espetxean Abadeak egotea guzurrezkoa balitza lez.

Kardenal Segura bakarrik izan zan espetxeratu oneikaz errukitu ta arduratzen zana, «Santu» batzuk zirala esanaz. Gero beragaz eta Andaluzian geratu ziran abade banaka batzuk.

Oneik baño beste lekaide ta abade batzuk txartoago ibili bear izan eben. Meñakatar Tomas Oleaga Abadea zoratu egin zan egiten eutsezan lotsabakokeriakaz. «Santa Agedan» ikusi nebanian, bertako gaixoak esan eusten, abade orreri, billosik ipiñita, «baila, baila, Cura rojo» esanda, dantzan eragin eta beste olakoak egin eutsezala. Aita Leon Aranguren, karmeldarra, iru bider eriopetu eben, baiña gogo oneko ta alaia izanik, siñisgogor asko beraganatu ta Jaungoikoratu ebazan; bizirik geratu zan, eta gaur be bizirik daukazu Markiñan.

## DOTRIÑA ERAKUSTEN

(«Abarkadunen semeak joango ziralata, eurak gura ezta, beste lekuetara dotriña erakusten» 29, 19).

Erri baten dotriña erakustea Abadien ardurea da, eta orretan zintzotasun osokoak izan dira beti Euskal Abadeak.

Danak bertokoak zireanez, euren erriagaz bat eginda bizi ziran, kistar-ikasbide ona emon eta siñesmen eta kistar-jakintzak garbi ta zintzo erakutsirik. Autortu ta itzaldietarako praile agurgarrienak ekarten ebezan errira, batez be Garizuma ta Jai aundienetan, eta noizik bein «mixioak» be emoteko.

Onetara baztar guztietan sortzen ziran Mixiolari ta elizgizon agurgarriak, eta Guda agertzean, gorengo maillan egoan «Eleizea ta Siñesmena» Euskalerrian.

Gero Frankok euskaldun abadeak 100 km. urrunago bialtzea, agindu eban, eta orretan lagun izan yakozan Lauzirika Gotzaina ta Eleiz-agintari batzuk. Orretara Hueska ta Andaluziraño joan bear izan eben Abadeak, Aita Martin karmeldar sermolari ospetsuak joan bear izan ebanaren antzera.

Baiña dotriña erakuste orreik etziran bakarrik Abadienak. Beste osterantzeko euskaldunak be era bardiñean erakusten eben, itzez ezpazan, egitez bai beintzat, eta edonungo tokitan.

Espetxeetan, euskaldunak geienak izanik, sinisgeak Kistarbidera ekarteko arduratzen ziran batzuk. Espetxetik ikera eroaten ebezanak be ikasbide ederra emoten eben, negarrik ez bildur barik Aberri ta Jaungoikoaren alde, euren odola gogoz isuri ta eskinduten ebela erakutsirik, eta «Zerurarte» agur egiñaz.

Erbestera ta urriñera joan bearra eukita be, euren Kistar oiturak ez ebezan galtzen, eta euren bide zuzenean jarraitzen eben.

Zornotzako Ambrosia Arizmendiarrietak, aurdun egonarren, Karrantzaraño alde egin bear izan eban, eta emen danentzako lekuri ez egoalata, S. Migel ermitatxoa artu eban etxetzat, eta bertan jaio yakon umea. An inguruan aurkitu eban Abade batek bereala bateatu eban S. Jose Obitegi eleizatxoan. Toki-santu onein gomutakitzat «Jose-Migel»

izena ezarri eutson eta Jaungoikoari eskiñi bere umea. Orain Mixiolari da Txilen ume ori.

Eusko gaztedi talde bat Quimper urira, Prantziko Bretañara, bialdu eben. Aurreko igandean bertako Txaunburuak, Españatik etorriko zireala «komunista» gazte batzuk iragarri eban, eta kontuz ibilteko, batez be neskatiillak.

Urrengo igandean, Mezaren asikeran, gazte aldra bat geratu zan korupean. Nortzuk ziran areik jakiteko, neskatiillak ezarian eta bestela baitakoan, atzerantz begiratuten eben, eta otoi ta Meza goraberak ondo egiten ebezela ikusirik, Komuniste susmoa joan yaken. Gero abots ederrakaz abesturik eta Gure Jauna artzera urreraturik, «Oneik *Orfeón* batekoak-edo ezpadira, lekaide edo *Seminaristak* dira», esaten eben euren artean.

Arriturik geratu ziran gero, alako mutil eder eta katolikoai «komunista» guzur-baltz ori ezarri eutsela jakin ebengan. Onetariko neskatiilla bat, talde orretako Iñaki Larrazabal, Peña Bilboko gazteagaz ezkondu zan eta Plufigan erri txoan bizi ziran. Bertan egoan Adolfo Larrañaga olerkaria be, ta Juan Jose Bardesi, Zornotzako nire ikaskide zan Espinosaren adiskide aundia zana. 1948'ko udazkenian joan giñan ara, ta arrera guztiz ona egin euskuen eurak eta bertako Abade Jaun eta lekaime edo monjak. Onetariko batek esan eustan ixillean: «Monsieur Bardesi santu aundia da ta Jaungoikoak bialdu dauskun Aingeru bat. Txiro ta eleiztarrai beti laguntzen dabil, beretzako ezer gorde barik».

Normandiatik alemandarrak atzerantz egitean, Agintari izaniko Gudalburu bat etorri yakon aterpea eskatzen. Euskadiko Gudatean Alemanak bere arerioak izanarren eta eurakaitik egoala bera be an erbestertuta gogoratuarren, Jaungoikoagaitik eta errukiturik artu ta gorde eban gizon ori isilik eta jan-edena emonaz bere etxean. Baiña gero norbaitek jakin eta salatu eban, eta atxiloturik eroan eben Paris'era Epaileagana.

Ango Fiskalak aztertu ta jakin eban, nor, nungoa ta zelako Kistar zintzoa zan «Monsieur Bardesi» ta Epaikuntzan

onetara esan ei eban: «Arerio bateri parkatu ezeze, norberen etxean onartu, gorde ta jaten emotea, Kistar goi-maitasunaren miragarritzko egite zoragarri bat da, gaurko egunean iñun ikusten ez dana. Onetariko gizon bat zigortu ordez saritu egin bear da».

Epaileak, zorionak emonaz, bereala azkatu ta bialdu eban bere etxera, ta gero danak goraldtu eben Fiskalaren ekiñaldia.

Beste olako bat Jose Mandaluniz Galdakaotarra izan zan, aldi onetan L'Orient uri aundiko jokalarien «Entrenador» zana ta Polixene Trabudua, izlari ospetsuagaz, ezkondua. Bilboko Athletin jokalaria zan eta orretan Gazteizera egoala, bere anai Balentin be il egin ebelata, arrapaladan urten bear izan eban Prantzira. Napar erri-mugakoak ondo laguntzen eben orretan.

Onaindia Kalonje berak, gaberdian ogetik jagita, arrapaladan iges egin bear izan eban, senitarteko batzuen ardurez, eta orretara beste askok, salaketak eta ilketak ugari ziralako.

Erbestera ta Ameriketara joan ziran «abarkadunen seme» guzti oneik, Abadeen antzera-edo, Kistar «dotriña» erakutsi eben.

Orretan bera, Lendakaria, Jose A. Agirre izan zan lengoa; ta onetara bete zan Profetak iragarritakoa.

## GITXI - BIZIRIK

(29, 18)

Igarlearen iragarpen onek, zaplastada baten euli moltzoaren antzera, ainbat ilgo zirala esan nai badau, bonbaketaren edo beste olako ilketa aundien bategaitik esan zeitekela dirudi. Baiña baliteke gudaldi osoan ilgo ziranagaitik be esatea.

Dana dala, ilketa aundiak izango zirala esan nai eban. Eta, Españiko gudaketa zatar onek, alkarren artean bata beste ilteko zorakeria baiño besterik ez eban ekarri.

Erremuskada, amorrualdi baten ainbat iltea ta Kistar ez direanak orrenbeste egitea, txarto dago. Baiña «Katoliku» direanak eta ganera «Nagusí-Agintariak» sakonago ta astiroago gogoratu ta azaldurik, bardin egitea, txarto baiño txar-toago dago; ta, «Komunistak» baiño errudun aundiagoak dira.

Bilbogaz jabetu ziranean, «paseos» eta beste aurreko ilketak gogoratu barik, Urrillaren Tan asita urrengo urte 1938 Epaillaren 12'raño, espetxeetatik-eta atarakoak, 659 gizon izan ziran il ebezanak, Gaztetiz eta Iruñan ilten ebezan an-tzera.

Espstxeratukoak azkatu ta ilketak gitxituteko, alderdi bietakoak alkar trukatu egitea baiño beste gauza obarik ez egoan. Orretara egin eben «Cruz Roja» Bazkunaren bitartez, eusko espetxeratukoak Bartzelonako Francotar espetxeratu-koakaz, 1938'ko Urtarrillan, Endaia, Prantzi-mugan trukatzeko ori egiteko asmoaz.

Baiña eusko 41 espetxeratukoak arriturik jakin eben, eurak lurperatzeko beste ainbeste zulo eginda egozala San Marzial'en. Baiña zorionez, Endaiaraño eroan ebezan eta an-txe egin zan trukatzeko ori. Zer jazo zan...?

Napartar Irujok, gizon zur eta azeritxoa izanik, aurretiaz iragarri eban irrartiz, Francotar trukatuak biaramon goi-zean trenbidez joango zirala Bartzelonatik Portbou'raño ta gero andik Endaiara. Urten eban Barzelonatik tren orrek, eta bidean doala, zeatz triskatu eben Francotarrak tren ori euren egazkiñakaz...! Baiña bitartean Autobus baten bialdu ebazan Irujok bere trukatuok Endaiara, muturruts eginda geraturik Francotar Agintariak eta euroen asmo zatarrak eta ilketak agirian agerturik. (*Un Gudari Navarro en los frentes de Euzkadi, Asturias, Cataluña*, 245-251, Jose Estornes Lasa).

Liburu au idatzi eban Jose Estornes Lasa bera be, 41 artean trukatu bat izan zan.

Dakusgunez, beste alderdikoak iltearren, norberenak be ilteko beste adore ta amorrua euki baeben, il-zorakeri larre-gia euki bear izan eben.



## AITA - SANTUA

(«Aita Santua engañauko ebela», 28, 8).

Igarleak Aita Santua engañauko ebela esan ebanian, Gudearen gorabera bat besterik ezin zeitekean izan. Alaxe izan zala dirudi.

Aita Santua, 54 orrialdean esan danez, Euzkadiko politika arazoan, ez jakiñean egoan «gera aurretik ». Ori oarturik, Eusko Aldun abertzaleak Erromara joan eta Aita Santuagaz itz egitea erabagi eben, eta joan be joan ziran Erromara, baiña ezin izan eben Aita Santua ikusi. Ordurako eskumetarrok ondo itxita eukezan Batikanoko atea, eurak gura ebena baiño beste euskotar izparrik, iñok an sartu ez egian. Gero gudaldian euren marrokeriz len baiño jakinbide okerragoan eta ez-jakiñagoan euki eben Aita Santua gordeta, euroen izparrak baiño besterik jakin ezin ebazala.

Ori egitea, Igarleak esan ebanez, norbait atzipetu, «engañatzea» dala esan bearko da, ta ondo esanda dagoala dirudi.

Guda asi zanian, baztar guztietan asi ziran ilketak, batez be eleiz-gizonenak Erkalderri menpean geratu ziran tokietan. Bizkai alboan, Santander'en ainbat il ebezan eta euren artean neure Aita Maixu izan zan Atanasio Aginagalde, Errexil'go Karmeldar santu ta agurgarria, lagun izan yakon beste karmeldar Anai bategaz. Al izan eben guztiak Bilbo ta Bizkaira etorri ziran, eta berton atsedentokia aurkitu ebela esaten eben, eleizak be zabalik eta pralle-abadeak «kalietan» euren jantziakaz bake giroan ikusi eta arriturik.

Olakorik ez eban jakin Aita Santuak, ezta Gipuzkoan Frankotarrak il ebezan Abade agurgarrienik be, ezta gero Gernika nok erre eban be, euren guzur-iraiña baño.

Olakoak jakin balitu, jakin izan bear eban orduan Aita Santuak, badakigu Pio XI etzala ixilik egotekoa.

Ez-jakin onetan kaltegarriidunenak eusko-abadeak izan ziran, euren Eleiz-Nagusi ta Agintarien artean ez ebelako aur-

kitu babesik ez zainperik, ez zuribiderik, ez ezetariko ardurarik. Mujika, euren Gotzain zana, erbesterau eben, eta besteok ixilik geratu ziran, prakadunen eskuetan dana itxita.

Bizkaiko Abade batzuk euren eleiz bete-bearrak ondoen eginda, uste on-onean egoazala, «Exkomunioa» euki ebela jakiten ebenian, barre ala negar egin ez eben jakiten. Ganera eleiz gizonak prakadun Agintarien eskuetan iztea, Eleiz-agintarien erru andia zan.

Zetarako zan Eleiz Legedi ta «Derecho Canónico» ori, bear zanean jaramonik ez egiteko...?

Baiña Eusko Abadeak etziran ixilik geratu. Juan Iturralde, Iñaki Azpiazu, Alberto Onaindia ta beste batzuk, argibide guztiekaz idatzi eben; gero berak, Mujikak be bai.

## PORTU ALDEKOA

*(«Gurako ebela il Portu aldeko gizontxua, iru umeen aita, Gernikako Juntatan juramentu egingo ebana, baiña ez ebela lortuko, Aingeruak jabongo ebelata». Naberan, 31, 16).*

Gizon agurgarri bat nai izan eben il Frankotarrak: Igarleak emen esaten dauana, ta Gernikako Batzarrean Lendakari izateko juramentu egin ebana: Jose Antonio Agirre ta Lekube.

Josu-Iagundikoen Ikaslea izan zan, gizon argi ta burutsua, zuzena ta kistar zintzoa beti agertzen zana.

Getxotarra zan bera, ta ondiño gazte xamar zala egin eben bertako Alkate Jaun.

Erkalderria agertzen eta lenengo auteskundietan Aldun-Abertzale urten eban. Gero Madrilleko Lege Batzarretan Eleizaren alde itzaldi bero ta sutsuak egin ebazan. «El Debate» egunkariak asko goraldu ta azaltzen ebazan bere Itzaldiak,

eta egun baten onetara amaitzen eban bere goratzarre ori: «Lástima que sea separatista». Beste okerrekorik ez eukan.

Euskotarrak alkarren artean batzeko, Eusko-Araudi edo Autonomía lortzeko zeregiñetan ibili zan, Karlatarrak be orretarako arduratuaz, baiña gero oneik Gudaldian «eskumatarraz» batu ziran.

Ondiño 32 urte baiño ez eukozala, Gudaldian Euzkadiko Lendakari egin eben eta 1936'ko Urrillaren Gernikan zingñaz artu eban bere Lendakaritza, ta gazte tantai aundi ta luzeenak ipiñi ebazan Eusko-Ertzaintzat.

Prantziko Izparkari bat agertu zan Lendakariagaz itz-egin gura ebalata. Alako Ertzaín morrosko aundi ta ederrai betik goraño arriturik begiratuta, Lendakari lan-gelan sartu zan «Monsieur Prèsident» itandu az. Besteak «Neu nozu» erantzutean, siñestu eziñez, durduraturik, «Parkatu, baña bere Idazkaritzat artu zaitut» esan eutzon. Nok use alako gazte bat Lendakari izan zeitekenik?

Arrezkero ekiñaldi ta ardura aundietan ibili zan Gudaldi ta gudate ondorean, zelan geiago lagundu ez ekiala. 150.000 inguru igeslari izan ziran erbesteratukoak, geienak Prantzirantz urten ebenak eta bertako Jaurbide ta Eleiztar Agintaria!, euskaldunakaz egiñikoa ederretsi ta goraldiaz batera, euskotar gustien izenean, bere esker ona emoten eutsen.

Gero berari be etorri yakon etortekoa, estualdi ta larritasuna. Prantzia Alemandarrak 1940'an bereala menperatu eben eta berak be naste orretan iges egin bear izan eban, baiña atzerantz egin orde zurrerantz eginda, Beljikaraño joan zan, Inglaterrara joateko asmoaz; ezin joan izan zan. Berak diñauskuz obeto bere larritasun eta barregarritzkoak «De Gernika a N. York pasando por Berlín» liburuan. Bere adiskide ta Katalandarren Lendakaria Companys il eben, baiña bera benetan, Aingeruak jabon eben.

IGARLEAREN ONDORENGOENAK

EZ-EZAGUNAK

Gaurko egunetan lorak ipinten dautsiez illobietan, ez ezagun, izan diran gudariak be, gomutakitzat. Ondo eginda dagoala ori uste dogu, eurotaiko batzuk beste askoren gizuren edo egite aundikoen jabe edo antzekoak izan diralako euren bizitzan, euren izena aitzuta geratuarren.

Bizkaiko gudaldi ta gudate ondorean orretariko gizonak, ugari izan ziran, ez bakarrik gudarien artean, baita gudari etziranetan be. Baina ezin dira danak Edesti ta liburuetan agertu, moltzoan ezpadira, ta orregaitik geratzen dira asko izen bagarik eta aitzuta; jazoerak be aitzuta edo gitxituta.

Bizkaiko erri ta sendi ta urietan, olako jazoera negargarri eta atsekabekoak larregi izan zirala dirudi, ta orain iñok ez dakizala geratzen direanak. Zetarikoa ta norañokoa izan zan jazarpen ori zearo ta obetoago jakiteko, Igarlearen ondorengo senitartekoen goraberak emen ezarten dira, bes-teenak be antzekoak edo erdi bardiñezkoak izan zirala jakin dagiezan.

Ozta-ozta geratzen zan ba Bizkaian sendirik, alako edo onelako nekealdia ta larritasunak, euki ez ebanik.

Inpernuko deabru guztiak etorri zirala orretarako dirudi, baiña, esanda dagoanez, euskotarrak be zintzo eta gogo onez emon eben euren odola; etxean eta erbestean euren eusko izaera ta kistar izatearen onena autormenik eta ederrena, mundu guztian ospetsuak egiñaz.

Esanda daukogu 24 orrialdean nortzuk izan ziran Igarlearen nebarrebak, eta orain zarrenetatik asita, bere seme Jose Enrike ondorengoaren arte, euroen nekealdi ta goraberak gogoratuko doguz.

Bide batez agertuko dira euroen guraso ta aurretikoen jakingarriak be.

## ARBAZEGI

(Pablo Intxaustik esanetik)

Jose Julian Intxausti Gomeztegi Igarlearen anai zarrena zan. 1840-Zezellaren 15'an Arbazegira ezkondu zan Franziska Ibaibarriaga Zarragoikoetxeagaz, jaiotzez Ziurtzakoa, ta eleizaz Gerrikaitzekoa zanagaz. Abade ezkongilea Juan Jose Soloaga izan eben.

Euren etxea «Olazarra» eben, baña gero etxebarri edo errotea egitean «Errota» izenagaz geratu zan, eta gero «Estanco, Bar, Almazen, Carnicería» be izan ziran.

Euren seme nagusia Jose Maria Intxausti Ibaibarriaga, 26 urteagaz 1867'Irallaren 7'an San Bixente eleizan ezkondu zan Juana Maria Martitegi Gandarias 21 urteko neskatilleagaz. Bere gurasoak Antonio Martitegi ta Albiz-Mendatako Maria Antonia Gandarias ziran (*Ezkon-Liburua*, 155 orrialdean).

Beronen egunetan ipiñi eben bertan etxean «Estankoa» 1887 urtean, Bizkaian lenengoetaikoa izan zana.

Jose Mari ta Juana Mariren seme nagusia, Juan Jose Intxausti Martitegi, Gregoria Aboitiz Agirregaz ezkondu zan, eta beronek bai, nekealdí ta zer-ikusi aundia euki eban guldaldian.

Bere etxea lenago Zergaritzza, Ardandegi, Bildegi ta Arategi izan bazan, 1913'tik aurrerantz Batzokia be bazan, ta bertako Maiburu bera Juan Jose zan eta etxe-sarigaitik iru illa betean 1,30 pta. bakarrik artzen ebazan.

Bakean eta nasai bizi zan Juan Jose Intxausti Arbazegin, bere erri maitagarrian, bertan eta inguruetan ospe onekoa ta zintzoa beti agertzen zala. Diru-etxe ta gizarte maillan, batez be txiro ta maiztarren arean, maitagarriago agertzen zan, beti euren alde egiten ebalako. Onei euren tresnak etxetik atara-erazota ibiltan ziran euren ugazabak gudaldíko aro baten. Baña Gernikatik gudari batzuk ekarrita, gabaz etxe

barrura sartzen ebezan tresna ta eskuarteko guztiak, gudariok Juan Joseren etxean geratuaz.

Agintariak gero ugazabaen alde egin ebenian, maizter bat, naigabeturik, etorri yakon berak ezin ebala etxea ordaindu ta alde egin bear ebala esatera. Bereala emon eutsan Juan Josek, etxea ordaintzeko bear izan beste.

Bere seme Pablo gudaritzan egoan, eta Gernika erraustu ebenen egunian zelan il ebezan bere seme Pedro ta Barakaldoko lobatxua Maria Intxausti be, esanda dago (65 orrialdean).

Juan Jose Intxaustik berak, alde egin bear izan eban Barakaldora, etxea utsik, baiña giltzaz ondo itxirik.

Gudari artean galazota egoan «Moroak» etxe baten sartzea, ta bertan lo egitea. Ortarako eroiazan aldiari oialtxabola, kaparrak.

Baiña Arbazegiko Alkate ta Nagusi barriak Juan Joseren etxea edegita, «Moroak» sartu ebazan bertan egon eta lo egiteko.

Lenago etxe orretan neskame izaniko Dorotea Armaolea, guztiz mindurik, joaten zan bitarteetan etxe ori zaindu ta garbitasunak egitera. Pitxi-lorazko pitxarrak eta beste ola-koen pitxi-zaleak ei ziran moroak.

Alako baten asarrez etorri yakon Gudaburu-Agintaria, bera etxe-ko-andrea zalakoan, eta gogor agiraka egin eutson «Moroak» etxe orretan sartu ebazalako.

—Zer diñostazu niri? —erantzun eutson—. Asarre egiezu zeuen adiskide direan Alkate ta Agintari barriai. Eurok zabaldu dautsiez atea moroai, etxea ondo itxita egonda-ta, bestela etziran etorriko moroak iñungo etxera. Ganera ni enaiz etxe-ko-andrea, lenago baten bertoko neskamea izanikoa baiño ta etxeagaz errukiturik etorri naz zerbait garbitu ta zaintzera.

Alan eta guzti be, moroak antxe geratu ziran alde egin bear izan eben arte, ta gero Guardizibillek sartu ebezan bertan, orretara etxea kendu ta ostu egiñaz bere jabeari.

Onetariko ezer susmatu bagarik agertu zan barriro Arbazegin Juan Jose, ta igandea zanez, lenengo Mezara yoiala, arrapatu eben eta atxiloturik eroan eben, 1937'ko Garagarri-llaren 4'an, Markiñako espetxera, Alkate barri zan Iturrion-  
dok salatu ta aginduta.

Errian danoi on-egiten ibili zan gizon bateri ori egiteak guztiz atsekabeturik eta sumindurik, negar besterik ez eban egiten Juan Josek; baiña iñoren gorrotoa artu barik. Bekai-tza ta ikusi-eziña be baliteke izatea, baiña Batzokia euki ebalako ta Abertzale zalako izango zan bere erru guztia, beste tokietan be alan izan zan lez.

Buru argidun eta gizon aurreratua zanez Juan Jose, isi-lean idatzi ta gorde ebazan bere, joan-etorri, gorabera ta jakingarririk geienak. Onela diño zelan egon zan espetxera-turik Markiñan 13 egun, eta gero Larrinagan 87 egun. Bi-tarte onetan birritan epaituta geratu zan: lenengoan, amar urte ta egun baterako espetxe-zigorra emon eutsoen; eta bi-garreanean, eriotz-epaia. Baiña gero eriotz-epaiaren ordez, 30 urterako espetxea emon eutsoen.

Larrinagatik Upomendi itxasontzira aldatu eben eta emen 40 egun egin ebazan. Emendik Iruñako San Kristobal espe-txera, eta emen 13 illabete ta 21 egun egon zan. Bi-tarte onetan izan zan espetxeratukoak iges egitea, baiña berak, errubakoak ez eukela zetan iges egin bearrik, aska-tuak izatea baño, esanik, ez eban nai urten izan espetxetik.

Emendik gero San Simon ugarteko Redondela, Galiziako espetxera bialdu eben, eta emen 16 illabete ta 12 egun egon zan. Emendik 1940'ko Garagarrillean bere etxera bialdu eben, 70 urtetik gorako gizon zar eginda, baiña bizirik.

1937'ko Garagarrillatik asita urrengo 1940'ko Garagarri-llararte, iru urte onetan, guztiz 32 illabete ta 89 egun zen-batu ebazan espetxeratukoak, eta alde batetik bestera ibili-takoak,

Bere seme Pablo gudaritzatik etorri zanean, arriturik ikusi eban bere etxea ondatuta ta bertara sartu eziñik. Etxe-

jaun orde, maizterra balitza lez artu bear izan eban barriro bere etxea, urtero 1.750 pta. ordaindu bearragaz.

Al eban ondoen etxea barriztu ta, bertara ezkondu zan Maria Isabel Rekaldegaz.

Onexek izan ziran ba Jose Julian, Igarlearen anai zarrenaren Arbazegiko ondorengoan atsekabeak eta mingarrik agirienak: Illak, bi; «moroak» bere etxean gorde egitea; etxe-jauntza galdu ta etxea ostu egitea; eriotz epaia, bat; espetxetik espetxera ibilita, espetxe-xigorra iru urtekoa, 70 urteko agure zarra zalarik.

Sendi batentzako ainbeste atsekabe, ez dira gitxi.

## KORTEZUBI

*(Segundo Urberuagak esanetik)*

Jose Julian'en urengokoa Maria Josefa Leona izan zan, Igarlea baiño urte bi zarragoa ta berak geien maite izan ebana.

Gautegiz Arteagako Bartolome Ozamiz'egaz ezkondu zan, Martin Ozanzv eta Maria Josefa Aniz'en semea zanagaz.

Bartolome Ozamiz Arteagan aundikietaikoa zan, idietan eta abelgorrietan salerosle ta tratulari zana, Gazteizen eta beste merkatuetan diru moltzoa egiten ebana. Bere ezkontzarako Salbiden baserri-etxe ederra antolatu eban.

Gizon agurgarria zanez, Erriko Alkate-Jauna, edo Endorea be, egin eben; eta bitarte orretan jazo yakon elemelezkoko gertaera, edo barregarritzko ustegabeko bat. Santiago jaietarako zapata barriak, neurriz eta beste apaingarriakaz ondo arduraturik, agindu ebazan Gernikan. Santiago jai-aurre illuntzean poz-pezik etorren Gernika'tik bere zapata barri ederakaz, eta bere etxe ostean lapur batek: «Ekarri zapatok edo ilgo aut» esan eutsan, eta emon egin bear bere zapata maitegarriok! Eta «iñori ezer esaten badautsok, bardin ilgo aut» ganeratu eutsan ondiño, ta ixilik geratu bear...!



Berak ondo ezagutzen eban lapur ori, baiña kaltegarritz-koagoak uxatzearren, parkatu egin eutsan ta isilean geratu.

Biaramonian, Santiagotan, zapata barriakaz ibili zan lapurra ta bera, Alkate Jauna, zapata zarrakaz!

Mendatako Eulalio Intxausti be urtero joaten zan Santiagotan bere arrebatxuarengana Salbidera, ta berak be, bere ezkon-anaiaren antzera, ustegabeko bat euki eban geroko beste urte baten, bere Igarletza izango zana.

Salbideko andra-gizon barriak alkar ondo ta zindo maite eben beti euren bizitza guztian, eta il be alkarren ondoan. Maria Josefa, 1883'ko Bagillaren 19'an 66 urtegez il zan, eta Bartolo Ozamiz urrengo urtearen 1884 koan, Orrillaren 21'an il zan 67 urtegez. Eurok ilda gero etxea utsik geratu zan.

Iru seme-alaba euki ebezan eta irurak ezkondu yakezan, «kanpora», Salbiden iñor geratu barik.

Martin, lenengoa, mariñeru joan zan eta Liverpool'en bertako neskatilla bategaz ezkondu zan eta geiago etzan agertu Bizkaian. Idazkiak bai, bialtzen ebazan etxera, ta bere seme bat be bai etorri zan, gazte zala, etxera, bere aititak, lengusu ta senitartekoak ikustera, ta ezagutzera.

Fernanda, bigarrena be, Liverpool'era joan zan, baiña jostunetan asko ikasita gero barriro etorri zan etxera ta Foruko Martin Antonio Obíetagaz ezkondu zan, baiña se-merik ez eben euki.

Agustina, irugarrena, Ugaldera ezkondu zan Jose María Ikazuriagaz, eta onek bai, bederatzi ume euki ebazan, sei mutil eta iru neska. Onetaítik bi lekaima egin ziran eta irugarrena Urberuagaz ezkondu zan iru mutil eukirik. Onetaítik bi, Daniel eta Santiago, Trinitariotar pralle egin ziran; lenengoak Erroman bere Meza barria esanda Kubara joan bear izan eban, Cardenas, ango uriko Ikastetxean Zuzendari izateko. Amaika urte an egonda, barriro joan zan Erromara ta orain antxe dago. Santiago be Cardenasko Ikastetxera joan zan Irakasle; Fidel Castro agertzean, andik Texas'era joan zan eta orain Algortan dago. Euroen ama Angela zan.

Irugarren mutilla, Segundo Urberuaga, mutil zar geratu zan eta orain bera da etxeke ta senitartekoetan jakitun eta mutil jatorra dana, ta antxiñako arazoetan eta garbitasunetan lenengoa dana, Agustinaren seme nagusiena, Jose Benito Ikazuriaga Ozamiz, Ugaldeko etxaguntzan geratu zan bertarako ezkontuta.



**Kortezubi'tarrak.**

Lenago baten Mendatarrak Salbidera joaten baziran Santiago jaietan, gero Ugaldera joaten ziran Jose Benitogana.

Gudaldia agertu baiño zerbait lentxoago Kortezubiko «Jueza», Epalle egin eben Jose Benito, baiña ezer erabagiteko astirik ez arazorik ez eban euki.

Frankotar gudariak andik igarotzean, bere etxe barruan ixilik egon zan, baiña gero solora urte eban bedarretan bere 9 urte eukazan semetxoagaz.

Beste Frankotar agintari edo polizi antzekoak agertu ziran an, eta soloan egoan axe gizona «jueza» zala jakin ebenian, bertara joanda, atxilotu eben, eta etxera joaten be itxi barik, bertan egoan ara ta tankeran abarka ta praka zarrakaz, mutikoa negarrez itxita, Burgos'ko Cardaña espetxera, eroan eben, eta an gogor porrokatu ta zigortu eben, espetxeratuokoa esan ebenez. Oñazez eta il zorian ikusi ebenian Geixotegira eroan eben; baiña alperrikoak izan yakozan sendaki ta ardura guztiak eta egun gitxi barru 64 urte eginda eukozala, bertan il zan.

Ango Abade Jaunak Argibidetzat bialdu eban etxera idazki bat, «biotzekoagaz» il zala, esaten ebana; baiña jakiña da, ezer ez esateko «biotzekoagaz» il dala esatea, danak ilten dira orretarata.

Euskal baserritar gizajo bateri olako basatikeriak egiteko, ta nor eta zelakoa dan jakin barik, orrela amorruz zigortu ta il egiteko zartxoak izanik, nok eta zek biztu ta eragiten eta eutsoen gaizkile orrei gorroto zatar ori?

Pralle zan norbaitek erantzun eustan berezko «odio de raza», enda-gorrotoa zala ori ta «complejo de inferioridad». Azpiratukoa norbera baño goragokoa edo argiagoo bada, berez sortzen yako «norbera» orreri arrokeria, bekaitza ta gorroto baltz ori. Eta euskaldunak etziran besteak lakoak, ta Jose Benito Ikazuriaga be, zarra izan eta jantzi zarrakaz soloan bed'arretan ibiliarren, etzan beste askoren eta euren antzekoa.

Bere alaba bat be, andrazkoa izanarren, ez dakit zergaitik espetxeraturik egon zan, eta bere beste neba bi be bai, euren

lengusu zan Segundo Urberuagaz. Luzeroan ibili ziran «Katigu-lanetan» eta Biltze-tokietan. Dana dala, atsekabe, mingarri ta negargarrietan!

Olakoak ikusirik, berak Igarleak be negar egingo eban...!

## MENDATA - ETXEBARRI

Igarlearen arrebarik gazteena Feliziana zan, bertara Etxebarrira, ezkondu zana Jose Antonio Elordietagaz. Onek «amaseiko» ta «ogeiko» ugari eukazan eta eleizarako be emon ebazan, ordez solotxu bategaz eleizaldean geraturik.

Josetxo, lenengo umetxua il egin yaken, eta seme-alaba bakarrakaz geratu ziran: Juana ta Manuel Santos. Juana seme barik alargun geratu zan eta Manuelek sei ume euki ebazan.

Erromeri ta dantzari-zalea zan Manuel, eta orretarako Santiagotan Kortezubira joateko asmoagaz egoala, Durangora joan bearra euki eban aitak salduko zezena eroatera. Goizean goiz-goizetik zezena eroanda, ordezko 40 ogerleko dindinlariak oso-osorik aitari emotearren, ezer jan ez edan barik etorri zan etxeraño ta jantzi barriak ipiñita, bereala joan zan Kortezubiraño, an be arratsalde guztian dantzan egitera, ta gabaz barriro Mendatara.

Ainbeste kilometro onez ibili ta ondiño be arratsalde osoan dantzan egiteko, zaletasuna ezeze gazte-bizkortásuna be bear zan, eta orduko gazteak ori ta geiago eukiten eben.

Ikusirik bere lengusu ta Kortezubiko gazteak mariñeru joaten zireala, bera be 17-18 urte inguru eukozala, mariñeru joan zan bere lagunakaz. Lenengoz Liverpoorera joakeran uria ikustera urten eben, eta isilean neskatilla batzuk atzetik etorrita, buruko txapela berari ta besteen batzuri kendurik, barreka ta ariñeketan joiazan aurrerantz. Eurok be ariñeketan asi ziran, baña Nagusienak «Geldi!» esan eutsien—. Doiazala ta bakean itxi, ta gero urrengoko saltokian, txapel barriak erosi». Ta alaxe egin eben.

Gero, zarra zanean, bere alabeak itanduten eutsan: —«Baña, aita, nortzuk ziran ba areik neskatillak?— «Putiek» —erantzuten eban, itanduten eutsan bakotxean. Ordurarte ez eban jakingo zer esan nai eban itz orrek.

Karlatar gudate ondorean Bizkairako amaitu ziran Foru-ondakiñak, eta aurreko gazteak joan ezarren, berak Manuelk Gudaritzara joan bear izan eban, zozketan 40 zenbakiak urten-da.

Adur onekoa izan zan bere gudaritzan eta Lopategi Gualburuak morroi antzera artu eban beretzako ta alkar adiskide aundiak egin ziran. Arrezkero Gabonetan zorionak eta gabon-sariak alkarri bialtzen eutsezan. Mendatetik, sagar, gaztaña, intxaur eta beste baserri-emoitzak, antxiñako kaxa aundietan Valladolid'era bialtzen ebazan, eta andik Lopategik ziriko oial, zapi ta gozokiak umientzat bialtzen eutsazan.

Gudaritzan beste Elorrieta bat-edo ei egoan eta berari be Elordieta ordez Elorrieta esaten ei eutsoen. Ontzat artu eban aldakuntza ori ta arrezkero berak be bardin ipinten eban bere izena ta abizena, seme-alabak be orretara bateaturik.

Igarlearen lobaetatik Manuel zan gazteena ta begikoena, ta beti izan zan bere kolkokoa. Siñestu be dana siñesten eutsan bere «osaba Profetiari» bere iragarpen guztiak txikitatik buruz ikasi arte, batez be «moroak etorri ta Gernika erreko ebela» esandakoak, eta gero beti esaten ibiliko ebazanek. Gero berak bere begiekaz ikusi ebazan Gernika erretan, eta moroak bere etxe ondolik pasatzen, berak Igarleak esan eutsan antzera, ta etzala ilgo 80 urtetik gorarte. 84'gaz il zan. Baiña ori isilik euki eban, eta 60 urte eukozala, txarto geixorik ibili zan eta bere alaba gazteena arduraturik—. «Ez, ume, ez arduratu nigaitik, enaz ilgota. Profetiak esan eustan, larogei urterarte enitzala ilgo». Ta etzan il, osatu baño.

Manuel Elorrieta 1899'an ezkondu zan Mendata-Zarrako Segunda Zeinkaonaindiagaz. Beronen aita Bolibarko Zeinkotarra zan, ez-izenez «Santson» esaten eutsoena.

Neska bi ta lau mutil euki ebezan. Oneitatik gazte biak, abade ta pralle izan ziran. Praillea, ondiño ikasle zala Ameriketara bialdu eben eta Abadea, gudadia agertu zanean, Aju--asen, Ibar-uriko baserrian, egon zan.

## BESTE ANAI BIAK

*(«Amazortzi-berrogei urtekoak be joango zirala gerrara») 29, 11).*

Abadea bera baiño zarragoak zirean bere anai biak be, ze ikusi batzuk euki ebezan, baiña danetatik ondo urten eben.

Gudari-Nagusia ta Agintari barriak koipetutearren, Mendatako Alkate izan nai ebanak, bialtzen ebazan Lemoatx aldera beste zar-gazte batzuk, gerratan gaxo-illak andik-ona aldatzen, eta laguntzen.

Gazteenari esan eutson, baiña onek, «Joadi eu ta neu pareukonok Alkate» erantzun eutson.

Zarrena barriz joan egin zan 37 urtegaz Lemoatxera, baiña adur onekoa izan zan.

Ikusirik sukaldaria napar-euskalduna zala, bereala egin zan bere adiskide ta jarduntsu, lagunduaz berari al eban guztietan.

Onetara bigunago izan yakon gudate artean ibiltea.

Galazota egoan Mendatan, beste olako errietan lez, gabeko bederatzietatik aurrerantz gizon talderik iñun egotea.

Eleizaldeko «Eskolene» arandegian, goiko aldean, jokoan ebiltzan Fernando Elorrieta bere lagunakaz, eta ordua zala jakiñik etxera joateko, jatsi ziran danak andik. Baiña beko-aldean be jokoan egozan Mendatako Agintari barriak, eta an geratu ziran jokoan begira.

Urrengo egunean, norbaitek salatuta, Gernikara joan bear izan eben gazteok Poliziagana, ta autormenak eginda gero bertan geratzen ziran, zelako zigorra edo. espetxea emoten ete eutsen itxaroten.

Baiña Fernando, asarez eta kikildu barik, Paliziari agireka egiten asi zan, «justicia» egiten ezpaekian, alperrikoa zala esanez, «Jokoan ikustearren gu pekatari bagara, jokoan ibilitakoak, nun ziran?» itanduten ebala, Salataria bera be, bakarrik etzala egon, eta talde orretan egon bazan, besteak aiñen errudun zala, ta ia nun egoan itanduten eban.

Onelako «gazte lotsabakoari» zigorraldi gogor bat emoteko asmoaz, bera Polizi-Nagusia joan zan Mendatara, Alkateagaz itz egitera, baiña onek gaztearen alde urten eban, egia zala iñoana-ta. .

Eskerrak alicate Jaunari, danak azke geratu ziran; baiña egia da edozelango salakuntzakaz ainbat errubako il eta espetxeratuten ebezala, emen ikusi dogun antzera.

Beste olako salatari bat, Bilboko Gaxotegira joan zan, eta Mendatako gaxo bi egozan bertan. Bata, ate ondoan, eta bestea, egalean, Urrutxukua zana. Ate ondokoak, gizon ori ikusiaz batera, bere burua izareaz estali eban, lo-zorroan balego lez, baiña zer esaten eban entzuteko adi-adi egoala. Sartukeran Urrutxukoak, bere erritarra zalata, agurtu eban, eta besteak agurrari erantzunaz batera, esan eban bere artean, besteak be entzuteko eran: «Bizi az ondiño? Biar etzaz biziko ba». Ta biaramonian il eben.

Onetariko egiteak etziran gitxi izan Bizkaian, eta luzerotox ta zeroago emen esan badira, beste askoren atsekabe ta ilteak, zelakoak izan ziran jakiteagaitik baiña ez dira izan.

Abadearenak be bardin izan dira. Berak Gatican D. Julian, Abade Jauna, atxiloturik ez eroatea Poliziagandik lortu eban lez, Eliz-Agintariak bardin egin balebe, ainbeste bigabekeririk etzan egongo abade ta praile arazoetan.

Etxebarriko Igarle-lobearen ondorengoak be arrisku aundietan ibili ziran, baiña zorionez eta eskerrak Jaungoikoari, azkenaldian, danak osasunaz eta iñor espetxeratu ta il barik geratu ziran, Profetaren esate ta iragarkiak zelan bete ziran ikusi ebezala.

## IGARLE - SEMEARENAK

. Mendatako Igarleak seme-alaba bi bakarrik euki ebazan. Nagusienak Maria Dominga eukan izena ta bigarrenak, Jose Enrike. Mari-Dominga Intxaustf Gorriño 1849-Dagonillaren 4'an jaio, eta ezkongeraturik, beti izan zan bere bizitza guztian, kistar zintzo, eleiztarra ta Jaungoiko-zaletasun aundikoa. Mendatan il zan 1923'ko Abenduaren 26'an (1. 11, 68).

Jose Enrike 1851 Garagarrillaren 14'an jaio eta 1888'an Kortezubiko Katalina Abaitua Gogenoleagaz ezkondu zan. Semetxo bi bakarrik itxita, 1895 Epaillaren 5'an alborengo gaxoaz il zan (L. 6, 177).

Katalina Abaitua Mendaturin alargun geratu zanean, Arganeko bere koñetu, Bixente Berrojalbiz be, alargun geratuta egoan eta orduan biok ezkondu ziran Arganera, Segundo, semerik txikiena, Manuel Elorrietaren ardurean itxirik, eta bestea, Tomás, morroitzat Ajangizko Mendieta baserrira bialdurik.

Onetara Etxebarriko Igarlearen bizitza utsik geratu zan eta alboko Kristobal, Etxe-txikikoa, bere emazte Joxepa ta seme-alaba, Maria ta Pako Laspiur'egaz, aldatu zan Igarlearen bizitzra. Berau Pako izan zan Mendatan «motorra» lenengoz erabilten asi zana, ta bere ama Joxepa, «kontu-zarrak», abesti nabarmenak eta ugariak abestuten ibiltzen zana.

Bere alaba María Paulo Baztarretxeagaz ezkondu zan eta orain bere seme bat, Kristobal izenduna berau be, bertan ezkondu ta, bizi da.



Segundo Intxausti Abaitua, Igarlearen billoba, 1819'ko Azillaren 9'an ezkondu zan Berriñondora Florentina Jaiogaz (L. 4, 120).

Gudaldia agertu zanean, Mendatako Alkate Jauna zan Segundo Intxausti, ta iñogaz asarratu barik, al izan eban ondoen bete eban bere Agintaritzza, danetakoai lagunduz. Baiña geroago agertu ziran Agintari barriak etziran bardiñak izan, eta «gaizkile» orrein ondoren eta ondatzak be, beste askok lez, bardin iraun bear izan ebazan.

Zazpi urte izan zan Mendatako Alkate Jaun eta iru urte ta erdi egon zan giltzapean; eta il ezpaeben, danakaz ona izan zalako izango zan.

«Katigu-lanetan» be erabili eben eta azkenengo aldian Astorgan egon zan espetxeraturik, «Adoratrices» lekaimeen ardurapean. Euroen bearkizun guztietan lagundurik, adiskide aundia egin zan eurakaz. Beragaz batera egon ziran espetxeraturik, «Jose Kurtzia», Mendatako Marmiz-Kurutzeko arotza, ta «Jose Zubizarreta», Gernika-Errenderiko Bidazti edo Bideazpikoa zana.

Segundo Intxausti 76 urte eukozala il zan, eta arrezke-ro Berrekondo baserria geienetan utsik itxita ibili dira bere seme-alabak.

Bere alaba Bitoria Intxausti, Durangon, Urkiolako bidean, bizi da, ta onek esan eustazan bere aitaren jakingarrienak.

Eskerrik asko beronen.

## AJANGIZ - MENDIETA

Esan dogunez, Jose Enrike'ren anai nagusia Tomas zan, eta Mendieta Ajangizera, ango morroi izatera bialdu eben.

Aldi atan, morroiak seme ordezkokoak lez, izaten ziran sendietan, batez be gizionezkoarik ez egoan etxetan, Mendietan izan zan lez. Emengo Aboitz jaunak eta bere andreak alaba bakarra euki eben, eta ezkontza aroa eldu yakonian, «nun aurkituko dogu geure alabarentzat Tomas baño gizon obeagorik?», esaten eben andra-gizon biok euren artean.

Eta olaxe ezkondu zan Tomas Intxausti Florenzia. Aboitz'egaz, euren morroi zana, euren seme ta etxejaun egiñaz.

Gernikako erraustea izan ezpazan, Tomas Intxaustik ez eban euki berarizko estualdirik.

Gernikatik Mendieta baserri bitartean landa-soloak baiño ez dagoz, eta «Aidezko txoriek» Gernika erretzean, bildurra be emongo eben, baña Tomasek bere aititaren esanak eta iragarritakoak iñok baiño obeto ta urrago ikusi bear izan ebazan.

Gudaldian ezer jakingarrizkoarik euki ezarren, andik ia berrogei urte barru, eta gitxien uste izan ebenian, bere seme Balentin eta Franziska Badiola emazteari, espetxe ta beste estualdi batzuk agertu yakezan eta egoarriz eroan bear izan ebezan. Ondiño gudate ta jazarpenak jarraitzen eben Euzkadin, gudaldian antzera.

Zer jazo zan Mendietan?

Gaba baten, Mondragon, Arrasateko mutil gazte bat, 18 urte ingurukua bera, agertu zan Mendietan, zauriturik errenka ta odola eriola... Franziskak, errukiturik, al eban ondoen osatu eban eta inora joan eziñean egoan lez, lo egiteko bertan geratu zan.

Biaramon goizean etorri zan, beti lez, Balentin Intxausti, gaba guztian Gernikan lan eginda gero. Lo egiteko ogera joatean, txakurrak asi ziran ausika ta Polizi aldra bat ikusi eban bere etxerantza etorten. Ez-jakin egiteko asmoaz ogera joan zan.

Ezetariko errukirik ez itaun barik, bereala il eben suizkilluz, mutiko ori, negarrez eta erreguka bidean esaten

ebala: «Eneizue ba il, baiña eneizue il». Pantzeskari be negarrak urten eutson!

Gero asi zan Polizia andra-gizon bion aurka, Etako bat etxean gorde egiteak eriotz-zigorra eukalata.

—Etakoa izan danez, Polizi edo zuetaikoa izan balitz, bardin ilgo ninduzuen? —itandu eutsen Pantzeskak.

—Ez orixe! —erantzun eban Poliziak— Saritu egingo ginduzun.

—Mutil orí Etakoa ala zuetaikoa izan danik, nik ez dot ba jakin. Eta Kistar-Ikasbideak diñausku urko-lagunari on egitea ta arerio izanda be, maite izatea, edo maite izan bearra.

Erantzun onegaz asko makurtu zan Polizia; baiña dana dala, atxiloturik eroan ebezan andra-gizonak, eta goizeko bederazietatik gabako amaikatarte, zutunik ormara begira ta eskuak loturik, egon bear izan eben. Gizonari illa beteko espetxea emon eutsoen eta andreari illa bikoa.

Baiña zergaitik zan egunokaz Poliziak euki eban asarrea? Marrokerietan be ibiltan zan eta olakoen batek txarto urten eutsan Gernikan gaba orretan, nik jakin nebenez, alboko batek esanda.

Gernikako «Estanco» etxe baten andra-gizonak bakarrik bizi ziran eta gaberako Etako gazte bi sartu ei ziran bertan.

Poliziak jakiñik, alkarren artean ondo.aitu barik-edo., ta ez dakit zelako asmoaz, Polizi talde bat etxe orreri tiroka asi zan, eta bertako gizonak urten eban. Agertu zaneko, bertan itxi eben su-izkilluz ilda. Orduan bere andreak urten eban balkoira «Socorro! Socorro! » esaten ziarduela, ta. axe be bertan il eben.

Sartu ziran etxe barruan, eta norbait ikusiaz batera il eben gizon ori be. Etakoa zalakoan, ostikoka ta dongakeriak esaten ziarduela, tatarrez atara eben kaleraño eta ara:

—« ¡Pero... si este hombre es nuestro Comandante...! »  
—esaten eben arriturik eta kaleko argitasunagaz obeto ikusita.

Onetara ikusi ta entzun eben etxe albokoak.

Mendietako andra-gizonak espetxean egozala, Mendatako Abade, Luis Amiano ta Ibarruriko Txomin Artetxe be espetxeratu ebezan, oñaze ikaragarriak emonda gero. Andik urten ebanean, neuk be itandu neutsan Mendetako Abadeari: —Eta, zelan joan yatsu ba espetxean?— Espetxean? —erantzun eustan— Espetxea zerua da, Polizi-etxe ondoan! Auxe bai inpernua! Alako torturak baiño ilda gertzea, naiago dau batek! »

Zelan emoten diran «torturak» ondo ikasita dauko ba Españiko Poliziak!

## 11' garren Atala

### BESTE IRAGARKI BATZUK

#### LEGE BARRIAK

*(«Abarkadunen semeak joango zireala Madrillera agintzen. Lege-barriak emongo ebezala», 29, 20).*

Alderdi bietakoak izan ziran Igarleak diñoazan «Abarkadunen seme» orreik. Batzuk «dotriña erakusten», eurak gura ezta, joan bearko ebenak. Eta beste batzuk, euren gurariz, Lege barriak emoten Madrillera joango zireanak. Oneik Frankotarrak ziran, gogo guztiz bere alde egin ebenak, aundigure ta aberatsenak; eta Igarleak berak be Bizkaiko gaitz guztien errua, onetariko aberatsen zalekeri larregiari emoten eutsan.

Lege-Batzarren Maiburu Esteban Bilbao izan zan luze-roan, eta beste euskaldun asko Otsein edo Ministru ta Frankoren Ordezkarri ta Laguntzale zintzo ta egizkoak.

Bearrezkoa zan Lege barriak emotea, baiña langilleentzat baiña aberatsentzat onuragarriagoak ziran. Ondiño gogoratzen ziran langilleak, zortzi ordu lanagaz, diru naiko eukiten ebela eurentzako ta euren sendirako. Baiña orain, beretzako bakarrik be etzan naiko izaten. Zortzi ordez amalau ordu lan egin bear izaten eben, ba, guztiz nasai geratzeko. Zortzi ordutik gorako lana obeto ordainduarren, aberatsak berak be obeto irabazten eban, eta onuragarriagoa zan aberats eta Jaurlariarentzat.

Onetara gudaldian galdukoa, orain berez geituten yaken.

Guda irabazteko, iru adiskide edo languntzalle euki ebazan Frankok: Aberatsena, Eleizearena ta Erbestekoa edo «Kanpu-Erreñutakoa». Eta irurena izan zan laguntasun osokoa.

Lenengoa, esan dogun lez, aberatsena; iñoiz atzerantz egin barik, March eta beste aberats aundikien antzera, dana emon ebenena,

Bigarrena, Eleizearena; asikeratik ezpazan, geroago beintzat, bere aldizkari, itzaldi, egiñaldi ta beste zabalkunde bidez, bere alde toki guztietan egiten ebana,

«Ez dakigu zelan eta zelako asmoz asi ziran Gudalburuak matxiñadea egiten —diño Goma Jaunak—, baña goigoitikoak deritxaguz— «los suponemos levantadísimos». (*El caso de España*, 7). Baiña etzan bardin izan, Ezkertarren erantzuna. Eleizaren aurka egitearren eta eleizgizonak be langille semeak eta euren ongilleak zireala konturatu barik, ainbat eleiz-gizon il ebezan, danak ikaratu ziran arte.

Onetakoai, parkatu bai, baiña euren adiskide ezin eban izan Eleizeak. Beste Alderdikoen alde egin edo adiskide izateko be, ez eban euki Españiko Eleizeak bera eskubideak Frankori zetan saldu bearrik, eleiz-gizon guztiak bere menpeko geraturik betiko.

Askok esaten ebenez, «Frankok egin badau, ondo egin da dago» esateak, ori ta geiago esan nai dau: bere eskuetan geratzen zala dana. «Jaungoiko» barri bat egiñik.

Bilboko Poliziak, Tasío Erkizia Abadea, oñazez beterik il zorian itxi eban, eta Geixotegira eroan bear izan eben. Olakorik Espain erri guztian ez eban iñok jakin eta Gozain eta Eleiz-Agintariak be ixilik geratu ziran. Bakarrik Pablo VI Aita Santuak, Erromatik, geixoari pozgarri apur bat emotearren, irratiz itz egin eutson.

Pablo VI Aita Santuak España ez ebala maite, ta Kolonbiara ta alboko Portugalera joanarren, Española ez ebala etorri nai, ta alditxo baten edo amabost urtean, marmarka ta asarez itz egiten zan erri guztian, izparringi ta Gobernuak be orretan lagunduz.

Baiña etzan izan Pablo XI'k Española etorri gura ez ebalako, Frankok gura ez ebalako baiño. Geroago jakin zan, Batikanon Españiko Ordezkarri zan Antonio Garriguesek esanda, Aita Santuak Española etorteko gurari aundiak agertu ebazala, batez be Konpostelara Urte Santuan eta Castiella, Frankoren Otsein edo Ministruak alegin guztiak egin

ebazala Frankori baietza atarateko, baiña alperrik izan zala. (J. L. Martín Descalzo, *Deia*, 30, XI, 78, 2 orrian).

Bera ta beretarrak ziran lez emen Nagusi ta Agintari gogor eta bakarrik, guzurak be siñestu bear izaten ziran, ta, danak ixilik!

Oraintsu ondiño, bere Jaurleriak, Abadeak Mezatan egiten ebezan Ebanjelio-itzaldiakaitik, ainbat diru-zigor emoten eutsezan, bera bakarrik balitz lez Eleiz-Barrutiko ta Gotzaiñen buru. Bilboko Añoveros ta olako Gotzaiñen bat izan ezik, beste guztiak isilik geratzen ziran. Onetara Gudatean bere bigarren adiskide aundia izan zan Eleiza ori, geroko bake aldian be bere menpeko eginda geratzen zan.

Baiña irugaren adiskidea, erbesteko laguntasuna euki ez paleu, guda irabazteko txarto ibiliko zan. Eskerrak ba Musoliniri, ta batez be Hitler'en, bere «aidezko txori» ta guda-tresna barriekaz Frankok gura izan eban beste, lagundu eutsala. Hitler'ek bere asmoa ta erabagia artuta eukan beste gudaketa bat egiteko, ta ondo etorri yakon Españiko guda, bere gudari ta tramankulu barriekaz bertan ikasketa ta sartuera bat egiteko.

Franko, Gudalburuetan gazteenetaikoa izanik, guda-tean Buruzagi egin ebenian, Cabanellas, Gudalburu zarrenetaikoa esan eban: «Luzerako dogu agintaritzta ori; iñok gogorrez kentzen ezpadau, il arteraño egongo da Agintari». Il zanian, Londres'ko BBC'ek irratiz esan eta zabaldu eban Cabanellasen iragarki ori. Ondo ezagutzen eban.

Iru adizkide oneik lar ondo lagundu eutsoen eta bere jarratzaileak be lar zurikatu ta koipeztu, eurak gura ebena lorturik.

Erriaren eta Eleizearen eskubide guztiak, eta oso-osokoak, azkenerarte gogor bereganaturik, «Dana lotuta ta ondo lotuta» izten ebalakoan il zan, izparringiak-eta esan ebenez, Jaungoikoaren besoetan, danai parkatu ta park-eske egiñaz.

## GOSEARENAK

*{«Gosea etorriko zala, ta zer janik ezaz, larritasunetan ibiliko zireala», 29, 21}.*

Guda ostean gosea agertzea ez da bape arrigarri, baiña erria goseak ilten itxi ta arrokerietan ibiltea, bai da gaitzesgarri, ta danontzako kaltegarri.

Frankotarrak España atsegin-toki, Paradisu bat zala, siñest-erazo nai eben, eta ortarako gosea ez da zoriongarri dan eskuartekoa. Orregaitik ez eben izten iñor erbestera joaten, gosea egoalata, eurekaitik be txarto esan ez egien.

Argentinatik Peronek garia ta jateko ugari bialdu ebazan España, baiña gero emendik Prantzira saltzen ebezan kamioetan, idazkun bat alboan ipiñita: «Lo que sobre en España», «Españan gañezka, dagoana...!».

—«Neuk neure begiekaz ikusi ta irakurri nebazan idazkun eta kamioi orreik» aurreko bide onetatik igarotzean esaten euskun, asarrez eta amorruz Valladolid'ko geltokian, bertako gizon batek, an 1948'an egon giñanean. «Gosez ibili ta ondiño iseka egiten euskuen!» esaten eban berak. Baiña bertan baiño Andaluzi aldiñan askoz geiago ei ziran gosez ildakoak. Osagilleak be lotsa ei ziran ainbat «Gosez ildako» euren eriotz-argibideetan ipinteko, ta alkar aituta, erderaz «gosea» ipiñi orde, hebreo edo griegotik itz barri bat billatu ei eben «gosea» bardin esaten dauna. Eta ori egiztatu gura bagendun, Motril eta olako uri auditxoetan Andaluziko Udaletxetan ikusi al geinkela, esaten euskun España ondo ezagutzen eban Karmeldar Nagusi batek.

Etzan ba «gose ori» iseka ta txantxetan ibiltekoa. Ta España, España dan artean, olako goseterik, ez ainbat gosez ildakorik, ez dau iñoiz ezagutu.

Italia bera be, gudate ondorean, goseak-illik geratu zan, baiña Jaurbidean aldakuntza apur bat egiñaz bakarrik, be-reala euki eban bere arerio izanikoaren laguntza.



Frankok be, Erregea ipiñi edo beste olako aldakuntza labur bat egiñaz bakarrik, gosea kentzeko Laterri askok lagunduko eutsoela, esaten eben batzuk, baiña ain arro-arro España Paradisuan agertu nai izan eban lez, ez eutsan inok lagundu.

Gauza askotan izan zan Franko «Lenengoa» eta gose-aldi onetan be, bera izan zan «lenengoa» ta errudun, erria gosek-illik eukiteko eta ainbat gosez ildakoak lurperatzeko.

Frankotar zaleak ez leuke au ain arin aitzu bear.

Lenengotik-edo, ipiñi eben «Abastos» Batzordea jan-edanak zuzenki banantzeko ezeukien artean, baiña eukenai kentzeko bizkor ibiltzen ziran; beartsuenai saldu edo emoteko, ez ainbeste.

Urte onetan ondiño «ogi zuria» gozoki antzera saltzen zan eta su-burdi, tren-bideetan, geltokia baiño zerbait lentxoago, leiotik bera botaten ebezan euren zorotxuak, poliziak ikusi ez egiezan, eta euren senitartekoak isilean artzen ebezanak.

Bilboko Lantegi ta Burdin-olak, gudaldian, ondo zainduta, zutunik geratu ziran eta gero bake aldian, euren jabe ta aberats gizonak, barrero asi ziran euren lanetan.

Jaurlearitzak, langilleak erbestera joaten ondiño izten ez eban lez, zenbat gura etorten ziran Bilbora. Granadan entzun gendun «Bilboko diruagaz ordainduko dautzut» andera bateri esaten. Zelakoa ete zan diru ori jakin naiaz itandurik, bere gizonak edo bere semeak Bilbon lan egiten eballa, ta arek bialduko diruagaz, illaren azkenean edo urrengo lenengoan, ordainduko eutsela, esatea zala ori, erantzun euskuen.

Nire lagun, Zornotzako Espinosa, «sermolari» ona zan; eta trenean goazala, Badajoz'ko andra aundiki batek bereala ezagutu eban, eta ondo ordainduak izango garealata, bere errira «Mixiñoak» emoten joateko eskatu euskun.

—Berton daukozuz sermolari ospetsuak-erantzun eutsan nire lagunak, eta ganera, laster barrero Ameriketara joan

bearra daukat. Eta andreak naigabeturik esan eban: «Bai egia da, Mixiolari ospetsuak daukoguzala, baiña eleiz gizonak politikan nastau zirean lez, orain ez dautsie jaramonik egiten; zuori, amerikanuori, ez bakarrik entzun, siñestu be zuori siñestuko dautsue, ta barriro esaten eban mesedez joateko.

Geure eleizak ikustearren geratzen giñan urietan be, «Jauna, —esaten euskuen—, morroi izateko baiño ezpada be, eroan nagizu mesedez Ameriketara»,

Ontiveros, S. Juan de la Cruz'en erritxoan, Perutik etorritakoak giñala jakin ebanian, «neu be Perura noa, «bitarteko» bateri dirua aurreratuta daukot-eta», esan euskun gizon gazte batek.

Nire lagunak erantzun eutsan: «Bitarteko» orrek ostu egin dautsula, ez ete da egia...? Liman bizi naz ni, ta ori egia izatekotan, neuk be jakingo neban». «Baliteke, —esan eban— beti atzeratu egin dauala ara joatea, esaten daust-eta». Ta alaxe izan zan, betiko atzeratuta, geratzea! Trenean gatzozala, arriturik geratzen giñan, Franko ta bere Jaurbidearen aurka, zelan bildur barik gogor itz egiten ebena, ta etorren Polizi-taldeak, lo besterik ez ebela egiten, ikusirik. Azkenaldian esan euskun gizon batek: «Emen zarataka entzun dozuena, Españiko toki guztietan isilean esaten da. Eta Frankoren ardura guztia, ez da etxe barrukoa, ondo lotuta gagoz-da, erbesteko bere izen ona baiño; ta Euskalerrian gogorkeria, ondo lotu barik-edo geratu dalako».

Orretara zala arriturik ikusi genduan, bein Mirandara eldu giñanean. Emen danak bizkortu ziran Euskalerrira sartzean. Polizia asi zan bakotxari bere karneta, txartel-agiriak eskatzen. Txiroak be asi ziran euren «santutxuekaz» eskean bertan trenean, Santutxuari mun-egin erazoaz. Gero erririk-erri ibiltzen ziran eskean, eta pralle ta lekaimeak be bai ugari.

Geu be, geure adiskide zan Gautegiz Arteagako Agustin Oruetaren etxean, eskekotzat artu ginduzan bere amak. Etxeko atea itxita egozala ikusiarren, jo egin neban sendo atea

badaezpada, ta iñok ez eban erantzun. Baiña nire lagunak bere begikera bizkorragaz norbait egoala goiko gelan ikusi eban. Orduan nik berak entzuteko eran, esan neutsan neure lagunari: «Perura goazanean, bere etxeko atearak itxita aurkitu ginduzala, esango dautsogu Agustiñeri». Bere semearen izena entzuteaz batera edegi eban leioa, ta «Parkatu Jau-nak, parkatu —iñauskun—. Ainbeste eskeko datozen lez, zeuok be eskekotzat artu zaituedaz; parkatu—, Ta sartu giñan etxean,

Edonungo trenetan be, Santutxuekak ibiltan ziran eskekoak; errietan besteko ugari izaten ziran, eta ori egun guztietan.

Orregaitik iñoiz egizkoa izan bada bertsolari onek diñauskun «jazorikoa», aldi onetan jazorikoa dala esan bearko da. Onela diño:

«Polizi sekreta zan-da  
eta trenean zijuan  
bizkar gañean baserritarra  
ukuitu zuan orduan.  
Ta ark eskua an sartu zuen  
txamarrako poltzikuan,  
iru errial eman zizkion,  
eskalia zalakuan.  
Ta Poliziak ipiñi zion  
zenbat asarreko zeta,  
bera begira jarri zitzaion  
zitaltasunez beteta.  
Gero zer gauza gerta zitzaion  
«Txapatxua» azaldueta...?  
Muñ eman zion baserritarrak  
Santua zala usteta».

(Laskao-txiki, *Auspoa*, 43).

Aldi onetan au jazotzea, etzan bape arrigarri, ez Polizi artean, eta gitxiago baserritar artean.

Jan edarrietan be, Abastos eta Poliziaren ardurea gitxitu zan, eta erosle ta ekarleen marrokeria geitu.

Euskalerrian egon zan gosea batez be urietan, ikastetxetan, ta laguntza aundiko tokietan, baiña baserrietan ez ainbeste. Orregaitik etorten ziran ainbeste eskean; eta guldian igaro ziran erdeldun gudariak esaten eben: «Emen danok zarie aberatsak ba-ta...!».

Azkenengo gudatean «Santa Cruzada» esaten eutsoen lez, Axola karmeldar Anaiak Ikastetxerako kamiokada bat janari ekartean, antxiñako Aragi-barauko. «Santa Cruzada» txartela erakutsi eutsan Poliziari ta bereala emon eutsan eroateko igarobidea.

Beste batek, txarri eder bat ilda, eroian kamioi gañean, atsotxu baten antzera, polito jantzita, begietan antiparrakaz eta guzti, Badaezpada illuntzean eroan eban, eta Poliziak, erdi makal egoan atsotxuagaitik, bereala emon eutsan igaro baimena.

Gero bere lagunari iñotsan: «Atso bat txarri-arpegi antza aundíagokorik ez yoat neure bizitza guztian ikusi! ». «Ez ba, txarria bera zan-da...!». Onetariko esaera ta goraberak alperrikoak direala dirudi, baiña aldi atako Españiko bizitza ondo argituten dabe.

Onexek dira, ba, «Gosearenak».

## KARLISTADEA

(«*Karlistadea amaituko zala ta pareuko zala bear dana*». Naberan, (Germana Esturo) 30, 11).

Esanda daukogunez, (20-22) Karlistada gudaketak, «Fue-ro» Eusko-azkatasun Lege zarrak zaintzeko asmoaz sortu ziran, Karlos Españiko Errege izan nai ebanak, bere aurreko Erregeak lez, Fuegoak ontzat artuko ebazalakoan.

Lenengoko Karlatarrak zoli eta zintzo egin eben iru urte, gudaketan, eta azkenian marrokeriz eta saldukeriz lortu eben eurekaz bakea egitea; geienak etziran ortaratu, beste guda bat egiteko asmoz geraturik,

Karlista izatea, beste Alderdi barri bat balitza lez geratu zan, baiña Eusko-Buruzagi egokirik ez eben iñoiz euki, ta euki ebezanak, beste alako Españakoakaz nastau ziran; eta «Fuero» mamiña zer ete zan be jakin barik, erria poztuteko, fueroai gora-goraka egiten, ibilten ziran beti.

Edestiak diñoan lez, jakiña da, euskotarrak Erri-Agintaritzakoak izan zirala beti, ta euren Lege-Batzarretan Errialde bakotzak bere goraberek konpontzen ebezala. Bakea ta Legezarrak obeto zaintzeko, Erregeen bat artzen eben Jauntzar edo Agintari ta Bizkaiko Jauna aspalditik zan Kastillako Erregea, Gernikako Lege-Batzarrera zin-egiten etorten zana.

Españiko Erregiña izan zan Isabel «Católica» be, 1483' garren urtean, Irailleko 19 ta 20 egun bian Durangon egon zan eta Tabirako azkatasun, oitura ta ekanduak gorde-erazo egiteko. Ebanjelio liburuan eskua ipiñita zin-egin eban, guzti ori ondoen zaintzeko (*En las Fiestas de S. Antonio*, 55, Durango, Juan Olazaran).

Igarle ta bere lagunak, baita baseritarrak be, Karlista zintzoak ziran; baiña bigarren gudatea be galdurik, «fuero» oskolakaz bakarrik geratu ziran, eta Igarleak iragarri eban Karlistak nastau egingo zirala, Karlistadea amaitu ta aitzu egingo zala.

Baiña euskaldunak, berez buru-gogorrek direan lez, euren karlistada zaletasunean jarraitu eben, «fueroai» gora-gorakada bat egiten eutsan edozeñeri jarraituaz, eta olaxe jarraitu eben, azkenengo gudaketa, Igarleak esan ebana, etorri arte, eta gudan euskaldunak eurak be, bata bestearen aurka ipiñi ebezan arte.

Lotsagarria ta negargarria izan zan azkenengo egite ori. Eta egite onegaz galdu zan betiko karlistada ori, guda ostean.

Zetarako dira, ba, «Eusko-Fueroak» euroen giltzak la-

purren eskuetan, Madrilleko Agintaritzapean geratzen badira?

Norberen etxea norberak baño obeto ez dau iñok zaintzen.

Norbaitek oartu dabenez, Napartar Fuero «Amejoramiento» itz barri orrek «(a)MEJOR(a)MIENTO», guzurra obeto diñot, ez ete dau esaten? Eurak gura ezta, egia esaten ete dabe ba...?

## ABADEAK EURAK

*{«Abadeak galduko ebela asko Fedea, ze egingo zizala liburu nasaie-tan». Naberarenak, 30, 8).*

Igarlearen iragarpen au leku guztietarako esanikoa dala dirudi, baiña Euskalerrian koska-gune aundiagoa egin eban, orduko egunetan siñestu be eziñezkoa zalako.

Euskalerriko Abadeak guztiz zintzo ta Jainko-zaleak ziran, ospe ta entzute onekoak, erriaren alde beti egiten ebanak, erriagaz bat eginda bizi ziranak.

Gero Gudaldian be, aurretik eta geroztik, bide zuzen ori ez eben galdu; gizonaren «Giza-eskubideak» aitzu barik, langille ta erriaren alde euren arpegia ta bularra agertu eben, eurekaz zigoraldi bardiñak onez eta egoarriz eroanaz.

Geroagoko urte baten, Suizan «meeting» edo Batzar aundi bat egon zan «Pasionaria» entzutetsuak itzaldi sutsu bat euki ebana.

Onek esaten eban zelan Eusko-Abadeak ainbat zigorraldi,espetze, oñaze ta «tortura» gogorkeriak eroan ebezan, beste langille askoren antzera, Erriaren alde beti agerturik; benetako Abade Katolikuak orrexek zireala esaten eban, bu-rua iñori makurtzen ibili barik, euren Eleiz-Agindu, Giza-eskubide ta beste goi-maitasunezko eginbearrak, zintzotasun guztiz bete ta gorde ebezanak.

Siñesge, komuniste, protestante ta ango lagunen artean, txalokada luze sendoa sortu ei zan eta entzule askoren begietan, negar-arpuluak ikusten; niri ori esan eustan entzuleak be negar ugari egin ei eban, gogoratuaz bakarrik, negarrak urteten eutsan. Berau be abade izanikoa zan eta baimen guztiekaz Suizatar andereño bategaz ezkondata egoan.

Espetxean egoteak ez ei dau iñor obeagotuten. Alan esaten eben «Carmonan» espetxeraturik egoniko Abadeak, eta «Lutek» be, espetxeetan urte askotan ibilita gero, bardin esaten eban.

Carmonakoak, giltzapeturik egonarren, Iekaidetxe baten antzera, euren alkar-maitasunean bizi izan ziran; baita batzuk otoietan be; orretara, euren artean etzan egon Abadeztan uko-egin eutsonik, gerokoai jazo yaken lez. Espetxetik urtenda gero eleiz-gizon agurgarriagoak izan ziran, Agintarritza ta beste eleiz-lanbide guztietan lenengoak izanik.

Gerokoak barriz, Txomin Artetxe ta beste olakoen bat izan ezik, beste guztiak itxi eben euren Abadetza, lenagotik on-onak izanarren, eta geroztik be batzuk kistar on izanik jarraituarren.

Zer jazo ete yakien ba? Iñok ez daki.

Alde batetik, Españiko Poliziak oñazez burua garbitzen ta beste «tortura» barriak ikasita eukazan; bestetik, euren ardurarik Gotzaiñetan ez eben ikusten. Euren lagun eta adiskideai eurekaz itz egiten be ez eutsoen izten, eta espetxe lagunak siñesgeak ziran geienak, beti zirikatzen ibiliko ziranak, eta gero, Batikano-Batzar ondorean, ainbat Abade agertu ziran okerreko irakaste ta bizibideak erakusten.

Ienago baten Lutero asi zan antzera, mundu guztian asi ziran eleiz-gizon, pralle, lekaime ta Gotzaiñen bat be ezkondu ta errietan gaizbide, «eskandalu» aundiak emoten, erlejiñoko ekanduak eta egintza garbiak oinperatzen.

Pablo VI Aita Santuak, Satanas'en kei-arnasa sartu zala Eleizearen barruan, esan eban, eta negar egin.

Ameriketean nengoala irakurri neban izpar barregarri bat, jaramon aundirik emon ez neutsana: «Eleizea zapaldu ta azpiratzeko, Masoi Izpiritulari ta inpernutar guztiak, batzar aundi bat euki ebela, ta asmo ori betetzeko, orainñarte «kanpotik» bakarrik egin yakola guda Eleizeari, ta aurrerantzean Eleiza beraren barru-barru tik «gerra» egin bear yakola, isil-misilka siñisgogorrekoak euren artean nastau ta ezarririk».

Arriturik ikusi neban gero «Inpernutarren» ekiñaldia zala guzti ori, ta agertzen ziran «eskandalu» gutziaz zabal-kunde izugarria egiten eutsiela, toki guztietan.

Onetariko eskandalu ta jausbideak etziran gitxi izan Euskalerrian be, ta lenago kistar utsa zan erria, Abade ta beste eleiztarren gaizbideak ikusi ta egiztaturik, bere betiko siñesmenean guztiz otzituta geratu da.

Eleizearen izen ona ta santutasuna, emen eta erbestean, toki askotan galdu da.

Ondo iragarrita dago, ba, Igarleak esaten ebana:

«Abadeak eurak galduko ebela erlejiñoa».

## SIÑISMENA

*(«Fedea galdu egingo zala, baiña beste leku batzuetan geitu». Iragarpenak, 29 27).*

*(«Eleizeak atarako zituela deboziño asko, baiña jendea geroago ta otzago». Naberanetak, 30, 6).*

Kristau-erri ta bere siñesmenean, Euskalerrri guztia egoan oso-osorik lenengo maillan, gorenengoan. Ainbat Mixiolari, eleiz-gizon agurgarri ta beste, edozelako ta edozen-bat andragizon, agertzen ziran, benetako «santuak» zireanak!, eta Eleizearen alde egiteko beti gerturik egoten zireanak. Sarritan sendi bakotxean, iru edo lau nebarreba izaten ziran,



euren etxea itxita, lekaidetxe edo Eleiz-barrutian Jaungoikoaganatuten ziranak.

Gudaldian asita geroko urtietan, Inpernuko deabru guztiak etorri zirala Euskalerrira dirudi, beroneri «Fede-lapurretan» egitera, ta danetariko asperkeriak sortu-erazotera, ta zigorkadak emotera. Esandakoakaz naiko egiztuta dagoala guzti ori, uste dogu.

Elgetako P. Aranzeta, karmeldar pralle bat, Peruko Trujillon nasai-nasai yoian bere bidean, eta atzetik gizontxu batek diñautso:

—Zu?, Euskalduna el zera? Arpegikeran ezagutzen yakona, bera, etzala euskalduna, ta arriturik erantzun eutsan:

—Bai, euskalduna naiz, zer ba?

—Bai-esan eutsan gizontxuak; Euskalerra ori Ama Birjiñaren erria izan da beti, eta oso-osorik izan be. Baiña orain «deabrua» sartu da bertan, eta ezkerretik, eskumetik, alderdi ta alde guztietatik, triskantza izugarriak egiten dabil.

Len baiño geiago arriturik, nundik agertu ete da «Sorgin» jakitun au, esaten eban bere artean Elgetako pralleak. Onek, Euskalerra nun dagoan be ez dau jakingo, ta bertako erlejiño arazoak nik baiño obeto dakiz, eta beste tokietakoak be bai, era bardiñean, iñoan pralleak.

Onetariko jakitun batzuk lurralde onetan agertzen dira, baiña nundik eta zelan dakiezan, ez dautsoe iñori esaten, eta euroen esanak egizkoak izaten dira beti. Zelan ete da ori?

Lenago baten, irakaste txarrak zabaldu edo jakin-erazo egitea baserri baten gatx izaten zan; baiña orain, telebistaz, irratiz eta beste era askotara sartzen dira etxe barrura lapurrak, kristau-ekandu ta oitura garbiak ostu egiten dabezanak, eta erbesteko pentsakerakaz Euskalerra be bardindu egiten dabezanak.

Sorgin-jakitun orrek esan ebanez, «Deabru» diran eta ez diran Euzkadiko arerioak, bere eusko-enda ta izakera osoa, guztiz eta sustraitik, ondatu ta ezereztu nai dabe; «droga» ta beste kaltegarritzakoakaz, baita, seme-alabarik euki nai eza

be, Euskalerrian zabaldurik; orrela eusko bizitasuna gitxiturik, lortu nai dabe euren asmoa.

Seme-alabak ezi ta zaintzea irabazi egitea da. Eta eurok baiño mosutxu maitagarriagorik iñok ez dautsu emongo, ta asko ta onak direan bitartean arerioak ezin dau bete bere asmoa.

Beste aberasketa guztiak geienetan guzurkeriak baiño ez dira izaten, burdi-iraulketa baten ilda geratzeko, astero azkenaldiko egunetan jazoten direanez.

Ezkonduek euren atsegin eta zoriontasun osoa euren sendietan billatu bear dabe, euren opari ta nekealdi guztiak orretarakoxe pozik eroanez.

Bere erria endekatzea, galtzea nai ezpadau, Euskalerrriak barrero be lengo bidera urten bearoko dau; «Ama Birjiñaren erria» izan bada, beragana jo, lengo ta betiko oitura, izketa ta izateak, al dan bestean gorde ta zaindurik, betiko «siñesmenean» jarraitzeko.

Siñesmenak, beste iñok ez ezek emoten ez daben indarra emoten dau; ta galdu dana, barriz, irabazi bearoko da.

## GERRA TXIKI BAT

*(«Egongo zala 48 orduko gerra txiki bat». Naberan 31, 15).*

Onetariko iragarki bakan bat «guerra nuclear» edo, olakoren bat ezpada, gatxa da siñestea.

Igarlearen loba zan Manuel Elorrietak olakorik ez eban esaten; jakin be ez, ori esan ebanik.

Baliteke Naberaneri be, Igarleari egin eutsoena, egitea: Berak ez esaniko edo oker adituko iragarkiak, berari ezarri egitea.

Baiña iñok ondo jakin baebazan Igarlearen esanak, bera Naberan izan zan, Igarlearen adiskide ta bere iragarpenak

zabaltzen lagundu eutsalako. Manuel Elorrieta ondiño mutil gaztea zan eta baliteke, berak etxean ez entzuniko iragarkien baten bat Naberanek jakitea.

Igarlearen iragarki guztiak jazo badira be, ez dakigu ondiño.

Elorrieta ta Naberan'en erdi-bardiñezko iragarkiak, zelan bete ziran adierazirik, aipatu doguz, eta besteok esan bear aundirik ez daukie, batez be ondorio mingarri aundikoak ez direanak, eta berez be errez aituten diranak.

Ganera, ikusita daukogunez, iragarrien azaltzaleak, erriari obeto adierazteko, itxurapen, antzeko ta bardinkuntzak erabilten ebezan, eta idatzita geratzen ez direan gauzak, erriak era askoara aitu, azaldu edo bereganatuten dauz.

{«*Etorriko zala aize aundi bat gizona zutunik ezin egongo zana*», 30, 9). Bonbaketa batek be olako aizea atara ta zabaltzen dau, baiña ez dakigu beste berebiziko aizea dan ala ez,

Dana dala, Igarlearen egunetatik ona, aldakuntza aundia dago, ta iragarrien ezaugarri orreik len baiño argiago ikusten dira.

Arrigarria da, ba, onetariko jazokizunak ainbat urte aurretiaz jakin eta zearo esatea.

## JAKITURIA

(«*Jakitura jakituri gañean etorriko zala ta orduan txarto ibiliko zala mundua*», 29, 29).

Igarlearen iragarpen artean, auxe dala azkenengokoa dirudi, edo azkenen jazoko zana.

Gizonak berak lortuko eban jakituri barria, bere kalterako ta mundua txarto ibilteko izango zala, diño iragarki onek.

Lenengoko aurrerakuntzetan asita geroko urteetan gizonak jaretsi dabezan jakiturizko gaitasun, taiu ta trebetasunak, bizitzarako onuragarriak dira; baiña teknika ta esku- aire guzti orreik, mundua obeagotu ordez, mingarriagotu egiten dabe, alkarren arteko ustebidea ta itxaropena galdue- ragoza.

Laterri aundienak be, bakotxak bere etxean, triskantzara- rako oartu ta oar ikasi dabezan tramankulu ta eskuarteko ikaragarriekaz, eta eurakandik nun eskutatu be euki ezaz, mundu osoa dauko bildurretan, larritasunetan.

Orregaitik diño ba Igarleak, «Orduan mundua txarto ibiliko zala». Jakituria gañezka eukiarren, ez dau emoten ez daukona.

Idazteun edo Bibliak be badiño: «Izan be, jakituri geia- go ta buru-auste geiago; jakituria geiturik, miña be geitu egiten da». (*Eclesiastés*, 1, 18, Kerexeta).

Esate onek ez diño jakituria txarra edo mingarria berez danik, gizonak txartorako erabilten dabela baiño.

Gaizkille edo lapur bat jakituna bada, zeregin aundiagoa emoten dau, ta jakituriaz bakarrik ez dira obeagotuten.

Jakituria argia lez da, gizonari bere burua argitu eta bidezidor barriak erakusten dautsozana.

Jakituriak gizonari bere berezko gaitasunak eta indarrak bizkortu eragiten dautsoz; lagundu be bai, ekiñaldi guzti- etan.

Jakintza orregaz asmatu ditu gizonak bere miragarritzko aurrerakuntza guztiak, Igarleak diñozanak eta ez diñozanak.

Benetako Jakituria Jaungoikoagandik dator, esku zaba- lez emoten dana, berton eta geroko bizitzan, maitasunaren bidez «Zoriontasuna» jaretsi dagigun.

Jakiturizko aldi onetan, iñoiz baiño obetoago bizi al iza- narren, artegatasun aundiagotan bizi gara, «Mundua txarto dabillelako».

Euren menpekoai ikastoletan «jakituria» emoteko, La- terri guztiak arduratzen dira; baiña erlejiñoaren eskabide

bat-edo dalakoan, batzuk bear dan besteko biotz-eziketarik ez dabe emoten, eta zorionean eta alkarren maitasunean bizi nai bada, burua beste ezi bear da biotza be.

Gañezko «jakituri» orrek ez dakar, ba, bear dan besteko bakea ta zoriontasuna mundura, ta bai larritasuna, arrokeria ta beste kaltegarri asko.

## 12'garren Atala

### AZKENALDIKOAK

#### JAKINTZA BARRIA

Aspaldion agertu zan jakintza barri bat, sorgin eta beste alakoen jakituri ta gertaerak nundikoak izan leitekezan azaltzen dakiana, ta aurretiaz jakiñiko jazokizunak be zetarikoak diran diñoana.

Jakintza barri ori Parapsikolojia da, Eleizeak be ardu-raz artu dauana, ta ezkutuzko gertakizun, fenomenoak aztertu, egiztatu, ta euroen al-izan eta indarrak norañoakoak direan argiztu ta erakusten dauana.

Onetariko jazoera mirarizko bat zerutikoa ezpazan, Igarlearen egunetan, sorgiñena edo inpernukoa zan. Baiña jakintza barri onek diñausku norberaren barru-barruan dagozala berezko almen eta al-izateak, lotan lez, eta norbena konturatu barik, daukoguzanak.

Orregaitik diñausie ez dakigun toki orreri «Inconsciente» edo «Oarkabezkoa», eta zerbaitek zirikatu edo itxartuten dabezanian, bizkortu ta azalera agertzen dira, geienetan lo-aldi, geixo, sukarraldi, lilluratze ta beste gogo-aldaeratan.

Gizonak berak asmaturiko tximist-argi, radio, antena, pelikula ta beste olako tramankuluak baiño, gizonak berak soñean eta aldean daroazanak, askoz zoli ta obeagoak ei dira.

Orretara batzuk begizit batean urrunekoak ikusi egiten dabez, iñoren barruan irakurri, ez dakiaren izkuntzan itz egin, etorkizun eta gerokoak aurretiaz iragarri, asmogoketa ta beste jakingarriak ezagutu, ezkutuzko egite ta jazoerak jakin eta argiratu, ta abar, egiten ditue, batzuk besteak baiño gaitasun eta egokitasun obeagaz.

Egite guzti oneik ez dira «mirariak» ez « sorgiñarenak» ez «inpernukuak», gizona beraren berezko alak eta indarrak baiño.

Onetariko egite batzuk dakarz «*El Rostro oculto de la Mente*» deritxon Oscar G. Quevedo'ren liburuak. Alan diño 92 orrialdean:

Ama batek amaika urteko semetxo bat eukala, ikastolan gitxi ikasten ebana, ta bera asi yakon etxean erakusten. Bereala konturatu zan umeak amak ekian beste ekiala, ta berez aurreratzen zala, gogoratu bakarrik egin ebana esaten. Baiña amaren ondotik alde eginda, ez ekian ezer, eta irakurri egiteko beste norbaitek liburuak agirian euki bear izaten eban bere ondoan, bestela ez ekian irakurten.

Arriturik egiztatu eben, liburuan barik, umeak amaren gogamenean irakurten ebala.

Iñoiz egon etzan toki batera joan zan gazte bat, eta arriturik ikusi eban lendik be, ango bazterrak ikusita eukazala. Gero jakin eban, ondiño ume besoetakoa zala, eroan ebala bere amak toki orretara (Id. 105).

San Juan Bosko berak be, ikastolako mutikoa zala, bere Irakasleak emon bear eutsan ikaslana, gabaz emesetan ikusi eban, eta bereala itxarturik, ogetik jagi ta idatzi egin eban. Latiñeraz zan lez, badaezpada Abade bateri eroan eutsan ondo ala txarto egoan jakiteko, ta orretara pozik joan zan ikastolara. Baiña beste baten be bardin jazo yakon, eta oraingoan Irakasleak, astirik ez eukalata, idazlanaren erdia baiño ez eban emon idazteko.

Ikasleen idazlanak batzean, arriturik ikusi eban Irakasleak Boskorenean oso-osorik egoala idatzita, ta asarrez geratu zan, baiña mutiko on-ona zan lez, ezin eban siñestu ostu eutsanik. Badaezpada itandu egin eutsan, eta zintzoz eta apalik erantzun eutsan, amesetan ikusi ta idatzi ebala (Id, 336).

Neskatotxo bat bere liburutxua irakurten bidez-bide yaiala, bat-batean illundu yakon alboera guztia, ta argi-argi ikusi eban bere ama zotarraineko gelan jausita, bere josiana be alboan jausita eukala. Negar-zotinka ta estu ta larri arin-arin joan zan Osagilleagana ta onek ez eutsan siñestu nai izan, baiña errukiturik joan zan beragaz etxeraño.

Andratxu onek gogoketa maitagarrien bat eukiko eban paladea ikusirik, zer jazoten da ba arin eta larri ibilteko? itanduten eban, baina erantzunik emon barik sartu ziran gela orretan, ta antxe ikusi eben andrea etzunda, neskato-txoak esan eban era bardiñean, ondiño bizirik. Osagillea berandutxuago etorri izan balitz ilda aurkituko eban (Id. 325).

Andratxu onek gogoketa maitagarrien bat eukiko eban bere alabatxoarentzat jauskera, miñaldi orretan, eta onek be, egokitasun ezko arrera ona eukirik, bereala erantzun eutsan amaren deiari.

Onetariko argi-izpi ta jazoerak, il zorian aurkitzen diranena, ugari ta indartsuagoak izaten ei dira; bein il ezker, ez ei dago eurekaz ezetariko artu-emonik, ez erantzunik.

Iñoren barruan ikusi naiz ikasi al dabenak be, ildakoe-tan ez dabe ezer zarrak edo umeak izan, euroen biritza guztiko goraberak ikusten ei dabez. Orretara iragarri egiten dabez urte askotariko barri ta jazoerak, aldi berean bizi izan diranena.

Gizonaren berezko indar eta almenak be euren neurri ta mugaldia daukoe; egizkoak direan ala ez jakiteko, azertu egin bear dira, guzurrezko ta maltzurkerizkoak be ugari diralako, batez be «espiritista» ta sorgiñetan.

Orregaitik Eleizeak arduraz artzen dau jakintza barri ori, ta eleiz-gizon batzuk badira orretan jakitun goragarri direanak.

Mendatako Igarleak ez eban olako gaitasunik iñoiz agertu, baiña jakintza barri onen eretxiz, berari bidean iragarri eutsazan andrea onetariko bat izan zeitekeala, ezin leiteke ukatu.

Dana dala, gaiñezko nai berezko indarrez izan, Mendatako Igarlearenak, danak dira egizkok eta benetakoak,



## BESTE PROFETAK

Antxiñako «profetak» alde batean itxita, geroagokoak be etziran zaletasun gitxiagogaz ibili ezkutuko bazterrak eta jazokizunak ikusi ta iragarritzen.

Lengo gizaldietan be, izarren bidez, mistiku edo gogabidez, eta baliteke, orduan ezer jakin ezarren, parapsikoloji bidez be iragarri egitea olako «profeta» izenagaz ebiltzananak.

Bilblian argiro esanda egonarren, orretaiko batzuk munduaren azken eguna be izentatuten eben, eta noizbaten Kistarrak be siñesturik, egun orreri itxaroten egon be bai. Orretan Protestante Alderdiko batzuk izan dira aurretikoak, beste euretaiko batek aurretiaz esanda igarri ez ebala jakinaren, beste egun bat izentatuaz, aurera jarraitu izan dabe euren mundu azkenaren egunerako gertatzen, eta beste atsekabe ta nekealdiak iragarten.

Malakias eta Nostradamus be entzute aundiko «profetak dira». («*El Rostro oculto de la mente*», 300, 306, O. G. Quevedo).

Euskalerrian, beste tokietan lez, egon ziran «profeta» ta Igarleak; baiña ez ain ospetsuak erbesterako, bertorako baiño,

Juan Olazaran idazleak badiño, 1877 urte inguruan, Karlista gudaldi ondorean, erri-ospe aundiko profetak agertu zirala Bergara, Mendata ta Durangon, eta beste bitarteko batzuk eurekanatuaz, itaunketai erantzuteko, irurak alkarren artean aituten zirala, jardukitzan. {«*En las Fiestas de S. Antonio* 100» Juan Olazaran, Pbro.).

Bergarako profeta ez dakit zetarikoa izan zan, baiña Durangoko «Manzanero» ori Eusko Folkloren be agertzen da, beste bere antzekoakaz bat eginda. Baiña irurok alkarren artean aitu ta artuemonak euki ebezala esatea, guzur aundi ta biribilla da, Mendatakoak ez ebazan ezagutu be egin eta gitxiago artuemonak euki. Alan izan balitz, bere

etxean eta gurean jakingo zan, eta olakorik ez daki iñok ezer.

Mendatako «profeta» onek igarlagintza baiño, Igarleen baten Mezularitza artu ebala dirudi, beste batek esanak bakarrik zabaltzen ebazalako. Ortarako bere lagun eta adiskideak euki ebazan Kortezubin, Busturin eta Bermeon; baiña oneik biok ez dakit nortzuk izan ziran, ezta zigur nungoak zirean,

Portu aldeko itsas-gizonak, mariñel eta erbestekoakaz geiago ibilirik, jakitunagoak egiten ziran, eta berarizko agerpen bat Mendatako Igarleak euki ebala ezagutu ebenean, beste tokietan be olakoak jazoten ziralata, bereala lagundu eutsoen.

Bera baiño beste gizon goragokorik, eleiz-gizonik ez agintaririk, ez eban euki Mendatako Igarleak, bere aolkuarzte edo isilpeko bat eukiteko. Beti bere tentuan eta ezaqueran kistar zintzo bizirik, baserritar batek egin al ebana baiño geiagokorik ezin eban egin, ez esan.

Norbaitzuek txotxotzat be artu eben; eta bera ilda gero, dana isilik geratzean, alan itxi eben.

Onetara Mendatako Igarlearen izen on garbia galdu egin zan, bere iragarpen eta esanak be okertu, beste antzeko batzuekaz; berak esan bakoakaz naspildurik, sorgin bat izan balitz lez ipiñi eben.

Mendatako «Profetagaz» egin ebenez, erri edo Aberrian agertzen dan edozelango gizon bat, Edestian, ain aldatuta ipinteko eskubiderlk, iñok ez dauko. Bakotxak bera izan zan eran eta tankeran agertu bear dau, ezer kendu ez geiagotu barik, Edesti ona ta garbia izateko. Eta orretarako jakin egin bear da zelako gizona izan zan.

Emen, liburu onetan esandakoakaz, Mendatako profeta ori, Edestirako bere jarlekuan, izan zanez, ondo jezarrita geratzen dala uste dogu, ta toki orretatik iñok ez dauala kendo.

Arrokeririk ez aundigurarik ez eban iñoiz euki; ta bere siñeste ta ekintzan, gizon zintzo, jator izan bazan beti, zergaitik kendu bear yako bere izen on goragarrikoa?

Berak ondo bete eban bere mezularitza ta Iragarlaritza; zerutikoa balitza lez artu eban agindua, «andra» arek esana.

Berari bakarrik esanikoak ziran andra aren iragarkiak, baiña ez beretzako bakarrik. Orregaitik Bizkaian danak jakin egien arduratu zan eta il arte jarduera orretan jarraitu eban.

Gizon bat Edestian, agurgarri izateko, aundiki edo jakitun izan bearrik ez dago. Bere bizitzako egite ta ekiñaldietan zuzen eta zintzo jokatzen bada, edonor egiten da goragarri ta onuragarri.

Orrela egin zan, ba, Bizkaian baserritar bat, «Profeta» ospetsua.

## NORBERE ABERRIA

Norbere Aberria maite izatea, berezko maitasuna da, gure aurretiko ta gurasoi dagokioena.

Bere Aberria iñok ez dau aurretiaz aukeratu ez erosi, Jaungoikoak, baktxari emonikoa da-ta. Neuk ez dot ba autatu nungotarra izateko lurraldia. Berton jaio nazanez, bardin jaio nintekean edonungo toki zatar baten; eta zuria nazanez, baltza be bardin izan nintekean, baita geixoa, goseki-lla, edo ezetariko ondasunik bagakoa be.

Geure asaba ta arbasoak euren odol garbia, osasuna ta beste olako ondasunak emon badauskuez, aundiagoa da eurai ta Aberrian dautsegun geure esker-ona ta zorra.

Sendiz, odolez, endaz eta izkuntzaz Aberri batekoak bagara, geure artean be anaiak gara, ta anai antzera, berez eta goi-maitasunez, alkar maite izan bear dogu ta lagundu, esker onez artu dogun zeintasuna ta berezitasuna galdu barik, geure ta Aberri guztiarena dalako izaera goragarri ori.

Euskaldun askok, edonungo guzurtiri entzunaz, euren izaera ta izkuntza, ardura barik galdu ta aitzu egiten dabez, iñoiz bereak izan ezpalitzazan lez, eta aurrekoen edestia be ezagutu bagarik.

Norberaren burua ta etxea jabon eta zaintzen ez dakianak, ezer ez daki. Onetarikoak Aberria zer dan be ez dakie, ta zeintzuk direan bere adiskide, arerio be ez. Kanpotarrak beste arerio ta kaltegarri, etxeakoak be bardin izan leitekez. Orregaitik aztertu ta ikusi bear izaten da norbere Aberria.

Alemandarrak Abertzale zintzoak dira ta an daukie «Dachau», erakustoki eder bat eginda, euretarrak egiñiko gaiztakeriak agirian ipiñita, ta danak jakin eta ikusi dagiezan, ederto erakusten dabena.

Bein baten Errioxako Abade bat, Julio Manzanares, Salamankan Irakasle agurgarria dana, joan zan ara, ta arriturik ikusi eban zelan alemandarrak, ain abertzale izanarren, euren okerkeririk ez ebela ezkututzen edo isilik izten. Zergaitik izan letekean ori bere artean gogoratzen egoala, urtekeran ikusi eban erantzun berebiziko bat, onela esaten ebana: «Aiztuten direan gaiztakeriak barrero be egin leitekez».

Esakun ori euskaldunentzat be ez dago txarto esanda.

Euskaldunak be orain arteko maitzurkeri, zapaltze, jazarpen, zigorraldi, «tortura» ta ilketak eleukiez aitzu bear, barrero be egin ez dagiezan, eta gerokoak be, euren esku-bideak zaintzeko, ezagutu dagiezan. Bestela barrero be laster agertu leitekez lengo zatarkeriak.

Españiko Errialdekoak Euskalerrria ez dabe ondo ezagutzen, eta euren abertzalekeriagaz, euskaldunen berezitasuna ezin dabe irunsi, ez ikusi. Orregaitik-edo, Santander'ko Alkate dan Hormaetxeak Ikastetxe Nagusian olako eskubide zerbait aipatu ta esan ebanean, ikaragarrizko zaparraldia sortu zan (*Deia-17*, 7, 83). Orretan Madrid'eko Jaurbide guztiak be, ez daukoe erru gitxi, batez be Euskaldunen izaera galtzeko asmoetan ibili diran batzuk. Euroen ustez eta irizpidez, beste edonoren Aberri ta abertzaletasunak galdu ta

ezereztu egin bear dira norberena zutunik geratzeko, ta euren eskubide guztiak ukatu.

Baiña ori etzan izan Errege-Katoliku ta beste askoren eretxia. Euren Aberria gorengo maillan ipiñi baebe, euskaldunen muga ta eskubideak, eta beste Aberrienak, ukutu bagarik geratu ziran betiko azkatasunean. Oraingo Agintariak, barriz, euren «Aberri-batasunean» eta izenean beti ibilirik, España ondatu baiño besterik ez dabe egin, ainbat matxinada ta guda artean, gorrotoa be sortu erazoaz.

Ganera, Erri bateri ez yako ain errez bere Aberritasuna galduerazoten, triskantza batzuk egiñarren. Or daukozu Alemania alderdi bitan bananduta, ta batzuk eta besteok bardin dira lenago lez, «alemandarrak», zatituta egonarren.

Igarlearen egunetan, bere gazterooan, galdu ziran Gernikako Batzar eta Lege-Zarrak, «Fueros» esaten eutsezanak, Españatar menpean oso-osorik geraturik. Baiña alan eta guzti be, bardin esaten eutsen erdeldunai «maketuak» edo erbestekoak, eta Prantzi aldekoai, «Euskaldunak».

Geure egunetan be bardin izan da beti.

Sabino Aranak «Euskaldunen Aberria Euzkadi da» esan eta dei egin ebanian, ez eban ori berak asmatu, euskaldunen biotzetan bere buru-argiaz ikasi ta ikusi baiño.

Aundiki ta Agintariak bestera esaten eta egiten ibiliarren, Igarleak eta beste baserritarrak lengo antzera maite eben euren Aberria, ta Igarlearen iragarpenak be euskaldunentzat, batez be Bizkaiarentzat izan ziran, esanda daukogunez.

Mendatako Profeta onek Euskalerra ta Bizkaia euki eban ba beti bere Aberritzat, eta benetako «Ama»tzat.

Ez aitzu ba olakorik, eta Igarlearen bide zuzen onetan jarraitu.

Baita begiratu ondo Politika'tarrak nun daukezan euren esnebeiak, Madrillen, Paris'en, Moskun edo Pekiñen, euren ardura ta irabazteak antxe daukiezalako. Onetakoai ez lagundu edo jaramon aundirik egin. Euskotar garbi ta zin-

tzo batek Euskalerrri oso-osoan euki bear dau bere esne-beia ta ardura guztia, siñeste ta gogapen guztiagaz, ondorengoai ikasbide zuzena emonez.

## AZKENALDIA

Liburu onetan aitatu ta esandakoak, danetarikoak dira ta asmo onez esanikoak. Politikarik ez iñori kalte egitekoarik ez dogu iñoiz erabili euskal ikasbide ta jarraibiderako esanak ezpadira.

Bizkaiko erritxu baten onetariko Igarle bat agertzea, egundo ikusi ez dan agertzea da, ta beste «profeta» askoren antzekoa iñoiz izan ez dana.

Auxegaitik gura izan dogu «profeta» orren izaera ta iragarpen arduratsuenak argi ta garbi esatea.

Bide batez, beste gorabera batzuk esan badoguz, «profetaren» nortasun, enda, asaba ta Aberriaren edesti edo eza-guntza batzuk jakitearren izan dira. Aurretiko ta geroztiko zerbait batzuk be esan bear ziran, bere egunetan zelakoa izan zan obeto jakiteko.

Nor izan zan «profeta» oneri bere iragarpenak iragarri eutsazana, beste jakintza aundiagoko barik, ezin leiteke egiztatu. Baliteke zerutikoa, parapsikolojítarra, edo Naberanek iñoan lez, misteriozko gizonen bat izatea. Bere egunetan olakorik argitu ez ebenez, gaur geuk be, ez diñogu ezer. Bakarrik diñogu, geroko jazokizunak aurretiaz ezagutu nai badira, esanda daukogunez (51) orri, euroen eta edonungo ezaupide guztiak aztertu bear dirala. Ta ikasi be bai azterkatzen.

Mendatako «profetaren» iragarkiak nundikoak izan ziran jakin ezarren, benetakoak izan zirala, badakiguz, eta bere egunetan be siñestu eutsoezan. Orduan bear zan ondoriorik euki ezpaeben, oraingoan edo urrengo baten euki

leiteke. Orregaitik diñogu barriro be, joan diran atsekabeak ez direala aitzu bear, zaindu baiño, Igarlearen esanak gogoratuaz, eta euskal-anaitasuna sendotuaz.

Mendatako Igarle ori baserritarra ta euskaldun jatorra izan zan lez, beretzako edo beragaitik liburu au idazten dan ezkeru, euskeraz idatzi egitea, oba zala uste izan dogu.

Atsegintsu ta onuragarria izango al yatsu emen damotsugun irakurgaia. Ta agur zintzoa, ta «Mendatako Profetaren» erakustea.

Alaxe izan daitela.

## AMAIA

## AURKIBIDEA

Itz bi .....	7
Sarrera .....	11

### 1'ngo. Atala

#### AURRETIKOAK

Billaketa .....	14
Norentzako esanak .....	15
Lenagokoak .....	17
Igarletza .....	18

### 2'garren. Atala

#### EUSKALDUNENAK

Nungotarra .....	20
Eusko-sustraiak .....	21
Lokarria .....	22
Andrazkoak .....	24
Erbestera .....	26
Naparroa .....	28
Bizkaia .....	31

### 3'rren. Atala

#### ALDAKUNTZAKOAK

Barritzalleak .....	35
Karla-Gudaketa .....	37
Bigarrena .....	39

### 4'rren. Atala

#### IGARLEARENAK

Igarle durundadea ... ..	41
Igarlearen sendia .....	42
Bataio-ezkontza Agiriak .....	44
Ustegabekoa .....	45
Mezularitza .....	47



## 5'rren. Atala

### IRAGARPEN-ADIEZLARIAK

Iragarpenak (Elorrieta) . . . . .	49
Iragarpenak (Naberanenek) . . . . .	<b>51</b>
Iragarpenak («Egin» Naberanek) . . . . .	54
Iragarpenak (Eusko-Folklore) . . . . .	55
Azterketa . . . . .	59
Igarle izaera . . . . .	60
Zorrak . . . . .	61
Zartzaroa ta eriotza . . . . .	62

## 6'rren. Atala

### EUSKO GORABERAK

Alderdi barria . . . . .	65
Etsaiarenak . . . . .	67
Maixu barriak . . . . .	69
Eleiz-maillan . . . . .	72
Erri-jaiak . . . . .	75

## 7'rren. Atala

### GUDATE-EZAUPIDEAK

Iragarki-Agertzeak . . . . .	80
Erkalderria . . . . .	<b>81</b>
Gudate-ezaupideak . . . . .	82
Gudate-Aurretikoak . . . . .	<b>84</b>

## 8'rren. Atala

### GUDATE TA IRAGARRITAKOAK

Gudatea . . . . .	86
Gudatea Bizkaian . . . . .	89
Nastea, Kanpu-Erreñu . . . . .	90
Zemakuntzak . . . . .	92
Kanpaiak jotzen . . . . .	93
Moroak . . . . .	95
Gernika erretan . . . . .	97
Zarrastadea . . . . .	<b>100</b>
Txipriztiñak . . . . .	<b>103</b>
Gogorrena . . . . .	<b>105</b>
Bilbo onean . . . . .	107

## 9'rren. Atala

### TRISKANTZAK

Etxean	geratunekoak.....	111
Abadeak	.....	114
Dotriña-erakusten	.....	117
Gitxi-bizirik	.....	120
Aita-Santua	.....	122
Portu-aldekoa	.....	123

## 10'rren. Atala

### IGARLE-ONDORENGOENAK

Ez-ezagunak	.....	125
Arbazegi	.....	126
Kortezubi	.....	129
Mendata-Etxebarri	.....	133
Beste anai biak	.....	135
Igarle-semearnak	.....	137
Ajangiz-Mendieta	.....	138

## 11'rren. Atala

### BESTE IRAGARKI BATZUK

Lege Barriak	.....	142
Gosearenak	.....	145
Karlistadea	.....	149
Abadeak eurak	.....	151
Siñismena	.....	153
Gerra txiki bat	.....	155
Jakituria	.....	156

## 12'rren. Atala

### AZKENALDIKOAK

Jakintza barria	.....	159
Beste Profetak	.....	162
Norbere Aberria	.....	164
Azkenaldia	.....	167

